ttipi-ttapa fundazioa | **795. zk.** | 2021eko azaroaren 25a | **XLI. urtea** | **erran.eus** | TOKIKOM

ttipi-ttapa

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

HAMABI URTEZ SEXU ABUSUEN BIKTIMA

Haurra eta nerabea zela sexu abusuen biktima izan zen emakumezko baten lekukotza bildu du TTIPI-TTAPAk. Eskualdekoa da eta kontatu digunez, «etxean nuen erasotzailea». Hamabi urtez lehengusuak egin zizkionak kontatu eta salatu ditu. / 8

'Izan Bhutan' Goizuetan eta Aranon

Bi herriek galtzen ari diren hainbat balio dituztela ikusita, tratu onak sustatzeko Bhutan proiektua martxan jarria dute / 11

'Hezur berriak' film laburra egiten ari dira Aritz Lazkano eta Garazi Taberna / 18

Iñigo Elizegirekin Goizuetako kooperatibaren bost urteko ibilbideaz / 62

Carlos Garaikoetxea Berroetako alkateak herriko kontuak izan ditu hizpide / 72

SINADURAK

GARAZI ZABALETA URKIOLA/ 3

AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA / 3

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI / 4

ZOZKETA / 88

Lur
SARRERAK SALGAI:
www.luraretoa.com webgunean
edo
MENDi ostatuan
Abenduak 4
IDOIA ASURMENDI
Abenduak 18
3. KANTU ZAHAR AFARIA
Larunbat gauetan, 12:00etatik aitizinera
DISKOTEKA


Liderrak
gure eskualdean
eta baita azterketa egiterakoan CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.
erran.eus
9.000 erabiltzaile
noticiasdenavarra.com
8.000
diariodenavarra.es
8.000
berria.eus
3.000
naiz.eus
2.000
navarra.com
1.000
SEXUAREN ARABERA
%70,8
EMAKUMEAK
%29,2
GIZONAK
ADINAREN ARABERA
%15,4
14-19 urte
%0
20-24 urte
%0
25-34 urte
%14,9
35-44 urte
%14,7
45-54 urte
%45,8
55-64 urte
%9
+64 urte
IKASKETA MAILAREN ARABERA
%15,5
Oinarrizko ikasketak
%9
Oinarrizko batxillergoa
%51,4
Unibertsitatea
%24,1
Goi mailako batxillergoa
DATU ITURRIA: CIES, 2021eko lehen neurketa
SINADURA: Ttipi-Ttapa

NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Ez dakigu egoten

Duela urte batzuk atera nituen kalkuluak. Egunaren heren bat lo pasatzen dut, bestea lanean, eta azkenaren parte handi bat (erdia, demagun) lanerako prestatzen. Publizitateko mezuek behin eta berriz errepikatzen didate, ordea: *carpe diem, bizi zure bizitza maximora eta ez galdu denborarik!* Nola, maximora? Nahita ere % 16,666 soilik gelditzen zait nik nahi bezala bizitzeko eta! Hau miseria… Esanen dit norbaitek klase ertaineko kezkak direla horiek, lana edukitzeaz pozik egon naitekeela… eta bai, horrela izanen da segur aski.

«EZ DUT ULERTZEN LANA DENAREN GAINETIK JARTZEN DUEN JENDARTEA»

Baina ez dut ulertzen lana beste gauza guztien gainetik jartzen duen jendarte hau (eta Euskal Herrian ongi dakigu horretaz). *Ei, ei, eta asteburuak zer?* Bada, irudipena dut azken aldian asteburuak ere laneko ikuspegi 'produktibistatik' planteatzeko joera hartzen ari garela. Zenbat eta gauza gehiago egin, hobe. Egin, egin, egin… aizue, eta egotea, egoteagatik gaizki sentitu gabe, noizko? Pelaxek dio abesti batean: «ez dakizu egoten». Gure belaunaldiaren isla izan daitekeela bururatu zait. Ez dakigu egoten. Agian normala ere bada, bizitzaren % 16,666 bizitzeko aukera soilik izanda…

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Nora zoaz, nora goaz…

Olatuan goiti eta beheiti gabiltzan honetan, dagoeneko ez dugu garbi txertoa behin-bitan-hirutan… hartzea den soluzioa edo zuzenean surf eskolan izena ematea. Artalde-inmunitatea izateko populazioaren %70ak txertaturik egon behar zuela zioten eta Nafarroan % 90a baino gehiagok txertoa hartu ondotik ere berdintsu gaude, nora goazen garbi ez dakigula.

NABARMENTZEKOAK

GERARDO DANBORIENA
USAZALE OMENDUA

Usazaleen irakasle eta eredu izateagatik urrezko paleta berezia jaso zuen etxalartarrak, Usategietako IX. Gastronomia Lehiaketako ekitaldien barrenean, azaroaren 5ean.

AIMAR OLAIZOLA
PILOTARIARI AGURRA

Zabalean ezker gantxo batekin egindako tantoarekin borobildu zuen pilota profesionaleko ibilbidea goizuetarrak, 42 urte bete zituenen egunean eta herriko frontoian. Bikain.

ATZERA BEGIRA

2011-11-10 · TTIPI-TTAPA · 554 zk.

Paris 365eko Patxi Lasarekin

«Paris 365 jantoki solidarioan 53.000 bazkari eta afari baino gehiago banatu ditugu. Nafarroan dauden etorkinentzako Etorkin Aholkularitza Juridikoaren bidez, 12.000 kontsulta baino gehiago egin zaizkie 75 herrialdetako 2.500 laguni. Azkenik, Bizikasi institutua aipatu nahi nuke, boluntario eta erabiltzaileei prestakuntza eskaintzen diena eta proiektu berrien diseinu eta finantziazioaz arduratzen dena» aipatu zigun duela hamar urte Patxi Lasak, Gizakia Herritar Fundazioko presidenteak. Justizia sozialaren eta giza eskubideen defentsan lanean ari den Gobernuz Kanpoko Erakudean da Fundazioa. Lasak aipatu zigunez, «pertsonetan sinisten dugu, gauzak egin eta aldatzeko duten gaitasunean».

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2021eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	40€
Leitza	30€
Hego Euskal Herria	48€
Ipar Euskal Herria, Europa	94€
Amerika eta Australia	140€

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · mecna · Baztango euskara · Bortziriatako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Gurekin ez dauden eta maite ditugun guztientzat

Denok dakigu hiltzeko jaio garela. Noiz gertatuko den? Hortxe dago gakoa.

Gure aurreko belaunaldiek naturaltasun osoz ikusten zuten heriotza. Hilotza etxean egoten zen, eta, bai familiak baita auzokideek ere gau guztia *belaran* egiten zuten, hilotzari konpainia, hurrengo egunean elizkizunak egin eta lurperatzeko.

Garai haietan (ez nahiz duela horrenbeste urtez solasean ari), heriotza bizitzaren prozesutzat hartzen zuten, eta tristura, samina eta negarrek baretzen zuten sortzen zien nahigabea. Etxeko guztiek, baita txikienek ere, ulertzen zuten heriotza, errealitatea inongo apaingarririk gabe erakusten zietelako.

Gaur egun, ordea, heriotzak sortzen dituen sentimenduak berdinak direla iruditzen zait, baina kudeatzeko modua zeharo aldatu dela pentsatzen dut. Helduen gauza dela pentsatzen dugu, eta txikienei heriotza ahal bezainbeste apaintzen saiatzen garela uste dut, errealitatetik urrunduz. Burbuila batean sartzen ditugu, eta ez gara konturatzen, hiltzeko jaio garela lehenbailehen ulertzea oso garrantzitsua dela. Modu honetan, heriotzak dakartzan sentimendu guztiak kudeatzea askoz errazagoa izango litzatekeela deritzot.

«HILTZEKO JAIO GARELA LEHENBAILEHEN ULERTZEA GARRANTZITSUA DA»

Baina, heriotza niretzat, tristura, mina, hutsunea… dira. Niretzat bezala askorentzat ziurrenik. Eta nire kasuan, momentu honetan sentimendu horiek guztiak ditut barrenean. Askotan ulergaitza suertatzen zait heriotzaren kapritxoa ulertzen. Inori ez datorkigu ongi familiako kide bat, lagun bat edota ezagun bat hiltzea. Baina gazte bat tokatzean are gutxiago.

Enpatia handia izaten dut halako egoera baten aurrean, niri bizitzea tokatu zaidanagatik, eta, gehienbat hurbilekoengan pentsatzen dut, sentitu behar duten tristura ulertzen dudalako. Nola kudeatzen den une horretan sentitzen dena? Bakoitzak bere modua dauka. Batzuk laguntza behar izan dugu, beste batzuek, aldiz, bakarrik nahiago izaten dute. Baina azken finean, denbora behar da gainditzeko.

Lehen esan bezala, tristura dut barrenean. Zendu berri den gazte bat burutik ezin kenduz, nire alabaren kintoa zen gaztea. Argazkiak ikusten aritu gara. Eskolan bizitako bizipenez ere oroitu gara egunotan; zure alaitasunaz, izaten zenituen despisteez, azterketak gainditzean sentitzen zenuen pozaz…

Familia guztiari besarkada eta gure indar guztia bidali nahi dizuet, beharko duzue eta. Gure babesa, berotasuna eta indarra emanen dizuegu behar duzuen momentu guztietan. Hemen gaude, nahi duzuen guztirako, horrek lagunduko dizuelako.

Julen, beti egonen zara gure bihotzean. Muxu eta besarkada handi bat zauden tokian zaudela ere.

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI

Baina nik, asteburuko txapeletan nuen burua...

“Ez dago B planetarik, ez dago BLA planetarik, bla bla bla…” esan zuen duela hilabete inguru Greta Thunberg aktibista gazteak Glasgown oraintxe bukatu berri den Klimaren azken Goi Bilera hasteko egun batzuk falta zirela. Hango erabaki zuri eta konpromiso hutsen berriak dakizkigun honetan, hauei tokia ematea aukera nezakeen tarte honetan baina… nik beste txapela batzuetan neukan burua oraingoan... “Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna” azaroaren 25ean izaten da eta hau ere gai potoloa da, gai potolorik bada! Ikaratzekoa da, oraindik ere, egun honen aldarrikapena ukatzen duen jendea ba omen dagoela entzutea! Okerragoa, gazteen artean harremantzeko eredu kezkagarriak darabiltzatela ohartarazten gaituztenean! Bai, kezkatzekoa... Baina nire burua beste txapela batzuk berotzen dute gaurkoan...

“Txapela buruan eta ibili munduan” esaten da! Pilota munduko txapeldunetan txapeldunaren dizdira ezin begietatik kendu! Pilotazale amorratua ez denak ere, Goizuetako herrian Aimarri antolatutako omenaldiaren berotasuna eta bere agurraren harira sortutako oihartzunen berri izango zuen. Ederra herriak urte hauetan jaso eta emandakoa! Zorionak Goizueta!

«TXAPELDUNAK IZAN BADIRELAKO ETA AURRERANTZEAN ERE IZANGO DIRELAKO»

Altuna IIIak, asteburuan, lau eta erdiko finaleko txapela jazteko egindako ahalegina ez nuke itzalean gelditzerik nahi! Txapela batekin ezin omen dira bi buru estali eta esaera zahar honi arrazoi eman behar! Finala zein estu jokatu zuten ikusita, bi aurkariek ere mereziko zuten aurtengoa jaztea! Hala ere, aurten Amezketara txapela!

Azkenik, nire gogoan oraindik ere beste txapela batentzat badago lekua! Izan ere, pilotak gure komunikabideetan daukan pisua nabaria izanagatik, hitzekin eta doinuekin jolasean maisu diren Amets Arzallus bezalako *hitzen magoak* ez nituzke ahaztu nahi. Xilaba, Bizkaiko eta Nafarroako Bertso Txapelketak belarrien eta bihotzen pizgarri dira niretzat, gure hizkuntza bizi-bizi dagoela sentiarazten didatelako.

Hiru txapela hauen azpian, hiru pertsona eredugarri daudela esango nuke. Lanaren eta humiltasunaten balioa aurpegian ikusten zaienak. Eta hiru txapela hauen aldamenean, babesa ematen dieten txapelik gabeko beste buru asko imajinatzen ditut. Lagunak, gurasoak, senideak,... Babesa, errespetua, herriarekiko begirunea, lana, indarra, erortzen eta altxatzen jakitea,...

Gure haurrak eta gaztetxoak balio egokietan hezten jakingo ote dugun galdetzen diot nire buruari. Gutxienez, balio hauen jabe egin eta beren bidea inor zapaldu gabe, errespetuz egiten asmatuko ote duten… Eroriz eroriz ikasiko dute hauek ere ibiltzen eta… Horrelako txapela gehiagok horrelako buru gehiago estal ditzatela opa diot gure herriari! Txapeldunak, izan badirelako eta aurrerantzean ere izango direlako!

11 GALDERA LABUR

ONINTZA AGIRRE ZUGARRAMURDIKO GAZTEA

«Batzuetan herrikook herrian toki guti izaten dugu»

Aurkeztu zure burua.
Zugarramurdiko 18 urteko neska bat naiz.
Zer egiten duzu zure egunerokoan?
Tokatzen denean klasera joaten naiz, eta bertzenaz lagunekin harat eta honat.
Zein dira zure zaletasunak?
Musika gustatzen zait, kantua, artea, mendia… zaletasun berezirik ez! Gauza xinpleenetaz disfrutatzen dut.
Zer ikasketa egiten ari zara?
Musikaren Historia eta Zientziak gradua ikasten ari naiz Salamancako Unibertsitatean.
Bertsotan ikusi izan zaitugu, baina, orain utzi omen duzu. Etorkizunean itzultzeko asmorik bai?
Aukera izatekotan… Salamancan bertsolaritza guti bada! Pandemia hasi zenetik bertsoak sortzetik aunitz urrundu naiz. Bertso bat bota eta gustura gelditzea niretzat zaila zen, hortara itzultzea beraz oraindik zailago... Bertsolari beharrean behar bada bertsozale hobe, kar kar.
Astebururako planik hoberena?
Konpainia onean edozein gauza! Herrian mendira itzuli bat, lagunekin otorduren bat, familiakoekin planak… Salamancan aski ezberdina da. Egiteko gauza ezberdinagoak daude, baina horiek jakitea zaila da, hiri arras haundia ez izan arren niri haundi egiten baitzait. Hala ere ez dugu aspertzeko astirik!
Zer du Zugarramurdik bertze herriek ez dutena?
Zugarramurdi herri aski berezia da! Alde guzietako jendea juntatzen da. Denak dira ongi etorriak, eta herrikoen artean giro aski ona eta hurbila bada!
Eta zer du faltan?
Neguan, jendea… eta udan soberan! Herrikoendako ekintzak eta jarduerak eskas direla sumatzen dut orokorrean, herrian gauzak egiteko baliabideak. Batzuetan herrikoek herrian toki guti izaten dugu.
Aitzinera begira, zein asmo duzu epe motzera?
Abenduko azterketak gainditu eta, eguberrietan pausatu eta ingurukoetaz disfrutatzea!
Eta epe luzerakoak?
Karrera finitu eta, ahal den heinean, lan munduan gustuko izanen dudan lan bat atxeman, … bitartean disfrutatu!
Amets bat?
Maite ditudanak zaintzen segitu. Azken urteetan ikasi dut denborak bizia nahi duen norabidean eremanen duela, horrenbertzez, ahal den bezala bide hortaz profitatu behar dugu!

IRAKURLEAK MINTZO

Doneztebeko San Miguel Ikastetxeko Zuzendaritza Taldearen oharra

ERNESTO DOMINGUEZ OLEA
DONEZTEBEKO SAN MIGUEL IKASTETXEKO ZUZENDARITZA TALDEAREN IZENEAN

TTIPI-TTAPA aldizkariak argitaratutako azkeneko alean Elizondoko eskola publikoko irakaslea den Idoia Goñiri egindako elkarrizketan eskoletako jantokietako esleipenen inguruan zera irakurri dugu: «Hortaz erraten dugu esleipen prozesua irregularra izan dela. Badakigu bertze ikastetxeetan, Donezteben adibidez, gauza bera gertatu zela eta prozesuarekin lehenbailehen akitzeko haien proposamenak onartu zituztela, baina hori ez zen ikastetxeen hasierako puntuazioa».

Doneztebeko San Miguel Ikastetxeko Zuzendaritza taldeak hauxe argitu nahi du: Informazioa ez da zuzena eta prozesuarekin lehenbailehen akitzeko onartu zuela gezurra dela adierazten du.

Ekainaren 30ean San Miguel ikastetxeko Eskola Kontseiluak barematu zituen jantokirako aurkeztutako sei enpresak.

Uztailaren 7an, kontratazio mahaiak eskatuta, eskola kontseiluak emandako puntuazioak berrikusi eta birbaremat zituen.

Hala ere, kontratazio mahaiak gure iritzia ez zuen onartu, eta uztailaren 26an egindako eskola kontseiluan uztailaren 7an hartutako erabakiari eustea adostu zuten eskola kontseilukideek.

Beraz, Doneztebeko San Miguel Ikastetxeko eskola kontseiluak prozesuari lehenbailehen akitzeko haien proposamenak onartu zituela esatea gezurra dela argi utzi nahi dugu.

Aldagaitzak

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Kezkatuta gabiltza klima aldaketa dela eta. Denak ez, ordea. Badira sinesten ez dutenak. Koronabirusa ere, beldurra sartzeko, jendea kontrolatzeko omen da. Denok poztuko ginateke ez balego ez klima aldaketarik ez koronabirusik.

Bitartean, gero eta ozeano zikinagoak; lur sailetan, gero eta lehorte handiagoak; lurraren tenperatura goraka, etengabe; glaziarrak urtzen eta itsasoko uren altuera handitzen; gero eta ekaitz bortitzagoak eta sarriagoak, han eta hemen. Lurraren egoera hondatzen ari gara. Zorigaiztoko gertaera hauek saihestea ez da samurra.

Gizakiaren bizitzan aldaketa zailak eta sakonak egin beharrean gaude. Horien artean, egunero bizi dugun migratzaileen mugimendu larria eta geldiezina aurkitzen da. Gero eta sarriago azaltzen da hedabideetan, klima aldaketaren arazo larria, eta koronabirusaren ondorioak ere hurbiletik ezagutzen ditugu.

Askok, zoritxarrez, bizia galdu dute, eta beste askoren kasuan, osasunean eragina izan du edo izaten ari da. Une honetan, badirudi kontrolatua dagoela eta okerrena pasatu dela; baina geroa nolakoa izango den ez dakigu. Hasieran esamesa asko izan zen, eta batzuen ustez, ohituren aldaketa ekarriko zuen; etorkizuna ez zen berdina izango. Urte eta erdi pasa ondoren, berriz, ez dirudi horrela izango denik. Gazte eta heldu, denok amesten ari gara koronabirusaren aurreko bizitzaren itzulerarekin.

Badirudi, ekonomia hobetzen ari dela eta betiko martxa hartuko duela. Giza-harremanak kaltetuak geratu ziren, baina poliki-poliki normaltasunera itzultzen ari dira. Klimak behartuta aldaketak izango dira. Baina aldaketa zail horiek gertatzen diren bitartean, harritzen gaituena batzuen portaera da. Bilboko eta Donostiako ostalariek ordu batzuetan beraien lokalak ixteko erabakia hartu behar izatea penagarria da. Gauari lotutako portaera batzuk ez dira ondo ikusiak izan, aspalditik helduen aldetik batez ere. Baina, ez da gazteen arazo hau zuzentzeko dugun kasu bakarra. Gaurko gizartea autokontzientzia egin beharrean dago gazteen ohitura hauek eta helduen beste asko aldatu beharrean gaudelako. Suposatzen da horretan dabiltzala guk aukeratzen ditugun agintariak. Baina ohiturak aldatzea, ikusten denez, oso zaila da, eta agintariez gain, denon parte hartzea beharrezkoa da.

IRAKURLEAK MINTZO
Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izendeiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Berradiskidetu? ala **Adiskidetu?**

Euskaltzaindiak ez du eman *ber-* eta *bir-*en erabilerari buruzko arau berezirik. Bata eta bertzea ia beti partizipioari eransten zaizkio eta 'errepikapena' adierazten dute. Joera nagusia <*ber-* + bokala> egitea da (berragertu, berreraiki, berregin...) eta <*bir-* + kontsonantea> (birgaitu, birjaio, birlandatu...). Salbuespen bakarra *berpiztu* da.

Kasu batzuetan izena ere gertatzen da oinarri, eta, orduan, 'bigarren aldiz lortzen dena' da adiera orokorra: birbiloba, birraitona, birramona...

Zenbaitetan ez dago zertan *ber-/bir-* aurrizkia erabili erdarazko *re-* aurrizkia duten hitz guztien euskarazko ordainetan. *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an, adibidez, hauek ez dira ageri:

-***Berradiskidetu** (es: *'reconciliar(se)'* / fr: *'(se) réconcilier'*) > adiskidetu.
-***Birfindegi** > (petrolio-)findegi...

Izan ere, *ber-/bir-* moldeez gain, euskarak baditu bertzelako baliabideak:

-berrindartu/indarberritu.
-birsortu/sorberritu.
-berpiztu/pizberritu.

Zein da zuzena?

*Gantzontzillo? ala **Galtzontzillo?**

Ez *gantzontzillo*, ez *gantzontzilo* ez dira zuzenak. *Galtzontzillo* da egokia eta Ipar Euskal Herrian *galtxoinak*.

Esaera zaharra

793. aldizkariko erran zaharra hauxe zen: ***Aberatsa tranpa hutsa, pobrea amets hutsa.*** Asmatu al zenuen?

Hizki-zopa

Bilatu hemen *kolpe* hitzaren sei sinonimo. Zein erabiltzen duzu zuk?

G	L	D	I	E	F	H	I	W	B	U	U	Z	K
K	W	Y	S	L	A	X	L	C	X	A	Q	A	A
N	D	A	Q	C	S	M	Q	V	Y	W	B	N	S
P	G	T	Z	E	Q	V	H	B	M	O	D	P	K
E	O	A	F	Q	W	O	J	G	B	I	I	A	A
M	F	K	Z	V	B	Y	O	C	D	Q	W	K	T
D	P	A	B	K	A	S	K	A	T	E	K	O	A
E	C	T	U	V	D	M	M	S	H	Y	J	F	F
N	B	E	F	K	O	L	P	E	C	K	L	G	Y
U	V	K	S	K	H	X	F	D	Z	P	U	A	M
O	E	O	E	C	U	F	J	K	X	M	W	W	Q
S	K	A	A	R	X	V	Y	V	B	X	S	T	B
A	R	L	B	R	B	X	T	L	A	P	W	N	D
I	D	Z	A	N	P	A	T	E	K	O	M	O	L

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus
744 48 43 61

2019an genero indarkeriari lotutako 20 salaketa aurkeztu zituzten eta 2020an 34. Salaketa kopuruek nabarmen egin zuten goiti.

«Hamabi urtez lehengusuak sexu abusuak egin zizkidan»

Sexu abusuak jasan zituenetik 25 urtera, eraso haiek berarengan utzi zuten eta duten arrastoaz solastatu da eskualdeko herritar bat Ttipi-Ttaparekin. Egin ziotenak «inguruan» biktima gehiago badirela ohartzeko bide eman dio, eta laguntza eskatzeko eta salatzeko deia egin du

G. PIKABEA

«Zazpi urte nituen, amatxiren etxeko komunean ni baino zaharragoa zen lehengusua laztantzen hasi zitzaidanean. Ilea, aurpegia eta besoa ukitzen hasi zen lehenbizi, eta gero bularra, gonaren azpitik eskua sartu eta izterra, izterretik goiti... ». Huraxe izan zen hasiera, hamabi urtez jasan zituen erasoen hasiera. Ez du bere egiazko izenik eman nahi izan, ez nongoa den erran nahi izan ere, baina ez da urrutikoa. Ttipi-Ttapak hartzen duen herri batekoa da. Sexu erasoen biktima izan zen hamabi urtez, eta «erasotzailea etxean nuen».

Urte luzez isilpean eduki du haurtzaroko mina. 25 urte behar izan ditu barrenak hustu eta abusu haiek berarengan utzi zuten eta duten arrastoaz solas egiteko: «Gaur, ia 25 urtez isilik egon ondotik, zer pasatu zitzaidan kontatzera ausartu naiz». Hori ez dela bidea onartu du: «Gaizki egin nuen inori deus ez erranda, ikaragatik eta familia ez zatitzeko eta familiakoei minik ez ematearren gelditu nintzen isilik. Baina zer pasatu zen nire minarekin? Niri eragindako guztia zer?».

«AUNITZ MAITE NINDUELA ERRANEZ ERABILI NINDUEN»

Haurtzaroan hasi

Amatxiren etxeko komunean hasitakoak amatxiren egongelako sofan izan zuen segida: «Eskolatik ateratakoan, lehengusuak amatxiren etxera joaten ginen bazkaltzera. Egun hartan, lehengusuak komunera laguntzeko eskatu zidan eta bere gauzak egiten ari zen bitartean, ni laztantzen hasi zen. 'Ze arraro' pentsatu nuen, eta hasieran laztanekin gustura sentitu nintzen. Baina aldi berean, ez nuen entenditzen hainbertze miresten nuen lehengusua zer egiten ari zen».

Handik guttira egoera berdintsua sufritu zuen: «Amatxiri sukaldea biltzen lagundu genion eta sofara joan ginen telebista ikustera amatxik kafesnea hartu bitartean. Hotz egiten zuen eta manta gainean paratu genuen». Ez du atzendua lehengusuak egin ziona: «bat-batean, eskuin aldetik, laztantzen hasi zen. Eskua lehenbizi, besoa eta bular aldea gero...». Handik aitzinerakoa maiztasunez errepikatzen zen kontua bihurtu zen: «astero pasatzen zen». Eta orain, heldua denean eta gauzak garbiago ikusten dituenean, ttikia zela lehengusuak hala «erabili» izana gogor salatu nahi izan du: «Aunitz maite ninduela erraten zidan, 'Zeinen polita zaren', 'Nire lehengusina maitagarria zara'... Hitz gaizto horiek erabilita burua jaten dizute. Izugarria da ttikiak garenean, haurtzaroko inozentzia horrekin, nola erabiltzen ahal gaituzten erasotzaileek».

Eta nerabezaroan segitu

Koskortu zen, baina erasoek ez zuten etenik izan eta haurtzaroko inozentzia gibelean utzita, «ikara» sentimendua nagusitu zitzaion. Lehengusuak erasoak «normaltasunez egiten zituen». Eta areago, hasierako ukituak gehiagora joan ziren. «12-13 urterekin etxean bakarrik gelditzen nintzen aldiro

Genero indarkeriaren salaketak eskualdean

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021*	GUZTIRA
BAZTAN	10	1	1	5	4	5	8	6	8	10	3*	61
LEITZA	2	2	1	2	5	1	2	2	4	4	0*	25
LESAKA	1	5	0	0	2	3	0	1	2	6	1*	21
BERA	0	1	2	1	1	2	1	0	2	3	4*	17
DONEZTEBE	0	3	0	0	1	0	1	0	3	7	2*	17
BERTIZARANA	0	1	2	1	0	1	0	1	0	1	2*	9
URDAZUBI	2	0	0	0	1	1	1	1	0	0	1*	7
GOIZUETA	0	0	0	0	0	1	1	1	0	0	0*	3
ETXALAR	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	0*	3
ARANO	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0*	2
GUZTIRA	**15**	**13**	**7**	**9**	**14**	**15**	**14**	**12**	**20**	**33**	**13**	**166**

*OHARRA: 2021EKO DATUAK IRAILERA BITARTEKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALA.

etxean agertzen hasi zen». Egun haietako batean, «gurasoak kanpoan zeudela eta etxean bakarrik gozatzen ari nintzela, tinbrea jo zuen. Bera zen, lehengusua, lantxo bat egiteko laguntza eske etorri zitzaidan». Baina gehiago izan zen: «Lan hura egiten ari nintzen bitartean, ukituak, muxuak... hasi ziren. Nik ez nuen nahi –hori azpimarratzea nahi du–, eta alde batera egiten nintzen, baina gero eta gehiago hurbiltzen zen niregana, paretaren kontra gelditu nintzen arte». Gaizki sentitu zen: «'Hau zer da?' galdetzen nion neure buruari. Eta berak 'mugitzen bazara makurragoa izanen da' erran zidan. Eta hantxe gelditu nintzen, mugitu gabe, geldi-geldirik bera nazkatu zen arte. Berak nahi izan zuenean lasai ederrean joan zen».

Erasotzailea «lasai» baina bera ez, «ni negarrez hasi nintzen, maite ninduela pentsatzen nuen, aldiro hori errepikatzen zidalako, baina ez nuen deus ere entenditzen».

Behin eta berriz

Ez zen behin bakarrik pasatu: «Behin, bi aldiz, hiru aldiz... Aunitzetan gertatu zen. Ez dakit nola jakiten zuen etxean bakarrik nintzela, eginahalak egiten nituen enteratu ez zedin, baina hantxe agertzen zen...». Momentu haietan «ikara» eta «itxaropena» nahasten zitzaizkiola ere aitortu du: «Alde batetik, ikara sentitzen nuen eta ez nuen berarekin egon nahi izaten, baina bertzetik, beti banuen bisitan etortzen zenean deus eginen ez zidanaren esperantza. Ez nintzen atea ireki gabe uzteko gai izaten, hainbertze aldiz erraten zidan maite ninduela...». Baina horretan gelditu zen kontua, «ez zen halakorik gertatu, eta segitu zuen».

Hilabeteak joan eta etorri, noiznahi atean zoritxarreko «*din-don*» hotsa eta zoritxarreko bisita. Erasotzailea berriz etxea, lasai ederrean. «Egun haietako batean, solastatzera zetorrela erran zidan. Baina buruko mina hasi zitzaiola eta ilunpetan ohatzean etzanda jarri behar zuela erran zidan. 'Ederki. Segi lasai' erantzun nion. Baina bere ondoan jartzeko eskatu zidan eta betikoan hasi zen: nire gainean jarri eta eskua han, eskuan hemen, eskua hanka tartean, muxuak...». Halakoetan ezin erreakzionatuz gelditzen zela kontatu du, «geldirik, izoztuta bezala. Uste nuen mugituz gero okerragoa izan zitekeela, kontra egiten banion kolpe bat emanen zidala pentsatzen nuen. Ni baino zaharragoa eta handiagoa zen eta ttiki eta gutti ikusten nuen neure burua bere ondoan».

Azaldu duenez, halako egoeratan «minik ez egiteko utzi egiten duzu, indarrez deus egin ez dezan onartu, baina hagitz gogorra da eta hagitz-hagitz gaizki sentitzen zara». Sentitzen eta desiratzen zuen bakarra «agudo pasatzea» izaten omen zen. «Gustatzen zitzaidan galdetzen zidan, eta ez nintzen deus errateko gai izaten». Gehiago ere kontatu du: «Barrenak nahasten zitzaizkidan. Alde batetik, badakizu hori ez dagoela ongi, baina bertzetik, maite zaituela erranez burua jaten dizutenez...».

«SINETSIKO ZIDATEN KONTATUTA? FAMILIA ZATITZEKO BELDUR NINTZEN»

«ESKATU LAGUNTZA BERTZELA ZU IZANEN ZARA GALTZAILE»

Isilpean

Kontatu duenez, «penetraziorik ez zidan egin, baina ukituak eta sexu orala etengabekoak ziren. Batez ere sexu orala eginarazten zidan». Ordurako ez zen haur mukizua, «banuen egiten zidanari izena paratzen hasteko adina, banekien hura zer zen». Baina lehengusuari kontra egitera ez zen ausartu, ezta inori kontatzera ere. «Norbaiti erran beharko niola pentsatzen nuen, baina sinetsiko ote zidaten? Sinetsiko ote zidaten zalantza nuen, eta kontatuta familia zatitu eta izorratuko nuela pentsatu nuen. Ez nuen balorerik izan». Horren ondorioz, «familiarekin gero eta guttiago egon nahi nuen. Babesa lagunen artean bilatu behar nuela pentsatu nuen, baina lagunei deus erran gabe, lotsa sentitzen nuelako». Hala, «atzentzea eta irenstea» bilakatu zen bere helburua.

Horrela segitu zuen 18 urte egin zituen arte, «erasoak hasi eta 12 urtera, berriz nire etxera etorri, atea jo eta ez dakit nondik ateratako indarrarekin nahikoa zela, nire bizitza izorratzen ari zela eta bakean uzteko erratera ausartu nintzen arte». Aitortu du, hura errateko momentuan «urduri» sentitu zela, «dardarka eta →

2020ko urtarriletik 46 salaketa

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak Ttipi-Ttapari emandako datuen arabera, 2020ko urtarriletik 2021eko irailera, genero indarkeriari lotutako 46 salaketa aurkeztu dituzte eskualdean.

Erasotzaile gehienak 41-50 urtekoak

- 46 kasuetatik 16tan **erasotzaileak 41 eta 50 urte bitartekoak** izan dira (% 34,8); 21-30 urtekoak % 19,6 dira; 51-60 urtekoak % 17,4; 31-40 urtekoak % 10,9; 61 urtetik goitikoak % 8,7 eta 20 urtez azpikoak % 4,3. Bi kasutan erasotzailearen adina ez dago zehaztua.

41-50 urte

Erasotzaileen % 34,8 adin tarte horretakoa da

Bereziki eraso fisikoak eta psikikoak

- Aurkeztutako salaketa gehienetan biktimek **eraso fisikoak eta psikikoak**, biak, **edo psikikoak** jasan dituzte. Psikikoak eta fisikoak izan dituztenak % 39,1 dira; eta psikikoak jasan dituztenak bertze horrenbertze (% 39,1); urruntze agindua urratzeagatik aurkeztutako salaketak % 17,4 dira eta sexu erasoak egin dizkiotenak % 4,4.

% 39,1

eraso fisikoak eta psikikoak izan dira eta bertze horrenbertze pskikoak

Biktima gazteak

- 30 urtez beheitikoak dira salaketa aurkeztu dutenen % 36,9. Zehazki, **biktima gehienek 21 eta 30 urte bitartean** dituzte (% 30,4). Horren ondotik 31-40 urtekoak daude (% 19,6); 51-60 urtekoak (% 17,4) eta 41-50 urtekoak gero (% 15,2); 61 urtetik goitikoak % 10,9 dira eta 20 urtez beheitikoak salaketa aurkeztu dutenen % 6,5.

21-30 urte

biktimen % 30,4 adin tarte horretakoa da

Erasotzaileen ia erdia bikotekidea

- Aurkeztutako salaketetan biktimen **% 45,7**k adierazi du **erasoak bikotekideak** egin dizkiola. Kasuen % 37 bikotekide-ohiek egindako erasoei dagokie. Biktimak eta erasotzaileen artean harremanik ez den kasuetan salaketa aurkeztu dutenak %6,5 dira; familiakoengandik erasoa izan dutenak % 4,3 dira eta berdin bertzelako harremanen bat zutenen aldetik erasoa izan dutenak (% 4,3). Eraso bat etxe bereko bertze norbaitek egindakoa da (% 2,2).

% 45,7

erasoa bikotekidearengandik izan dutenak dira

ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA.

ikaratua» eta, are gehiago, «momentu batez hura nire azkena zela ere pentsatu nuen». Baina ezinaren ezinez, aski zela bota zion: «Ezin nuen gehiago hura aguantatu» eta «direnak eta ez direnak erran nizkion, dena kontatuko nuela erranez mehatxatu ondotik, pikutara bidali nuen».

Huraxe izan zen azkena, «zorionez etxeko tinbrea aditu nuen azken aldia». Handik aitzinera «guttitan» ikusi zuen erasotzailea, «familiako bazkarietan ikusten nuen, eta tokatu izan garenetan deus pasatu ez balitz bezala jokatu izan du, baina niri, bera ikusita, barrenak ederki nahasi izan zaizkit».

Urteetako zama bizkarrean

Arantza, ordea, barrenean sentitu du geroztik. «Sexualitatean ez naiz libre sentitu» eta «berari kontra egin eta kontatu ez izana» ere barrenean iltzatuak izan ditu. Hala ere, duela zenbait urte, 35 bat urte zituela, erasotzailearen anaiari kontatzea erabaki zuen, eta neurri batean «bakea» sentitu omen zuen: «Eskuak burura eraman zituen baina ez nuen espero nuen babesik izan, eta horretan gelditu zen dena». Geroztik «gaia ez dugu berriz atera», gaineratu du.

Lehengusuari ez ezik, izebari eta gurasoei kontatzea ere pentsatu izan du «baina horrenbertze denbora pasatu ondotik, lehengusuaren erreakzioa ikusita eta min emateko ikaraz azkenean isilik gelditzea erabaki izan dut».

Laguntza eskatzeko deia

Bere hitzetan, «bertze pauso bat» izan da Ttipi-Ttapari kontatzea, «honi buruz solastatzea aunitz kostatzen» baitzaio. Azaldu duenez, «urteak eman ditut sexu abusuei buruz solastatu gabe, baina Nafarroako Gobernuko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Lantaldearen (EAIV) laguntza hartzen hasi naizenetik, barrenean dena mugitu zait eta kanporatzeko beharra sentitu dut».

Berari gertatu zitzaionak «kasu gehiago badirela ohartzeko» bide eman dio, dioenez, «inguruan ere bai». Eta horregatik, berak bizi eta sufritu zuena ez diolako inori desio, horrelako egoeran dagoenari mezu argia luzatu nahi izan dio: «Hagitz garrantzitsua da laguntza eskatzea. Nahiz eta ikara eta lotsa sentitu, eskatu laguntza gurasoei, medikuari, eskolako orientatzaileari, lagun baten amari... Baina eskatu laguntza. Nik dena gorde nuen eta horrekin bizitzea tokatu zait. Ez egin hori, zu izanen zara galtzaile eta erasotzaileak gauza bera egiten segitzen ahal du bertze batekin, eta bertze baten bizitza izorratuko du».

Helduengan ere arreta jarri du: «Adin batean ez da erraza, baina ttikitatik haurrekin solas egin behar dugu, eta gauzak kontatzeko konfiantza ematen saiatu behar dugu. Sexua ez dadila gai tabua izan. Niri horrek huts egin zidan, nire etxean ezin zen naturaltasunez solastatu». Horren harira ohartarazpen hauxe egin du: «Lotsa dela, epaitua izateko ikara dela eta horrelako gauzak aitortzea, are gehiago etxeko norbait denean, hagitz-hagitz zaila dela kontuan izanda, atera kontuak biktimak nolako bizia izaten ahal duen eta zer sentitzen ahal duen».

Amaia Paz Vallejo eta Oihane Calderon Callejas, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak.

«Zaintzarik gabe ez dago bizitzan aurrera egiterik»

AMAIA PAZ VALLEJO ETA OIHANE CALDERON CALLEJAS TEKNIKARIAK

Bost urte bete ditu herritarren arteko tratu onak sustatu eta zaintzaren balioa azpimarratzea helburu duen Bhutan proiektuak Goizuetan eta Aranon. Horri esker, «ahultzen ari ziren ezaugarriak eta balioak» indartzen ari direla diote berdintasun eta prebentzio teknikariek

G. PIKABEA

Parte-hartzea, herri sentimendua, zaintza, tratu onak, zoriontasuna.... «Galtzen ari garen» halako «balio asko» antzeman izan dituzte Goizuetan eta Aranon. Duela bost urte, ordea, «izaera hori pixkanaka galtzen hasi zela» ikusteak kezka sortu zuen eta, egoerari buelta eman nahian, «herritarren arteko tratu onak sustatzeko eta zaintzaren etikaren balioa azpimarratzeko» Bhutan proiektua martxan jartzea erabaki zuten. Bi herriek Tibet eta India artean dagoen Bhutan herrialdearekin dituzten «antzekotasun handiek» eman zioten proiektuari izena. Geroztik, gizarte zerbitzua eta herrietako eragileak elkarlanean ari dira.

Zein izan zen Bhutan proiektuaren abiapuntua?

Bhutan, ekialdeko Himalaian dagoen estatu ttiki bat da, mendiz inguratua eta beste herrialdeetatik urruti dagoena. Nortasun aldetik, Bhutanen pertsonek herri sentimendu handia dute, parte-hartzaileak dira eta naturarekin duten harremana oso estua da. Bizi kalitatea ez dute Barne Produktu Gordinarekin lotzen, hau da, herrialdearen garapena ez da ikuspegi ekonomikoaren araberakoa. Bhutanen aberastasuna, garapena eta bizi kalitatea herritarren zoriontasunarekin neurtzen dute. Ongizatea ez da gauza materialekin lotzen, emozioekin baizik. Harremanek, emozioek, pertsonen eta naturaren zaintzak hartzen dute garrantzia. Garai hartan gizate zerbitzuetako prebentzio programako teknikaria zen Virginia Landiribar Rodriguezek Goizuetak eta Aranok Bhutan herrialdearekin antzekotasun handiak zituztela ikusi zuen. Baina duela bost urte, aldaketak sumatzen hasi ziren: parte-hartzea gutxitzen, gazteak kanpora bizitzera, herri sentimendua galtzen... Herri zaintzaileen izaera pixkanaka galtzen hasia zela antzeman ondoren, gaur egun Bhutan osatzen duten eragile guztiek egoerari buelta emateko beharra ikusi zuten, eta hortik sortu zen proiektua. Geroztik, goizuetarrak eta aranoarrak zoriontsuak badira, herrietan bizi kalitatea hobetuko dela, herri sentimendua eta parte-hartzea handituko direla eta elkar zaintzea erdian jarriko dutela pentsatuz, motibazio horrekin ari gara lanean.

Zein zaudete proiektuaren atzean?

Hainbat eragile gaude. Goizuetako Xalto eskolako irakasle eta ikasleak, Goizuetako Guraso Elkartea, osasun etxea, Aranoko eta Goizuetako udalak, bertako tabernariak eta merkatariak, Goizuetako Jubilatu Elkartea, Goizuetako Emakume Taldea, Gazte Asanblada eta gizarte zerbitzua. Horrez gain, herritarrak ere proiektuan sartzen ditugu. Eragile eta herritar guztien inplikazioa beharrezkoa da proiektu komunitarioa izan dadin. Herritik herritarrentzat sortua da.

Zein dira helburu nagusiak?

Helburu nagusia goizuetarren eta aranoarren arteko tratu onak sustatzea eta zaintzaren etikaren balioa azpimarratzea da. Horretarako, beharrezkoa da herritarren arteko zaintzen, harremanen eta tratu onen garrantzia nabarmentzea, emozioei duten garrantzia ematea, horiez kontziente izatea eta modu osasuntsuan kudeatzeko estrategiak garatzen laguntzea, baita harremanak izateko eta komunikatzeko modu osasuntsuak garatzea ere.

Nolako bilakaera izan du?

Hasieratik gaur egunera aldatu da, baina helburua eta filosofia mantendu ditu. Hainbat ekintza egin ditugu. Horien artean 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako txokoa; ligatze tailerra gure ligatzeko moduaz hausnartzeko eta modu berriak eraikitzeko; *Zuk aukeratu zuk dantza egin* lehiaketa musika ez sexista eta inklusiboa bultzatzeko; *Tabernetan etxean bezala* proiektua tabernak errespetuzko espazioak izateko; →

Zaintzaileak zainduz taldea eta *Osasuntsu zahartu* proiektua; eskolarekin egindako zaintzen ginkana; gizon taldea; emakumeen ahalduntze tailerrak; *Zaintza pandemia garaian* proiektua eta, aurten, eremu digitalean errespetuzko harremanak lantzeko kanpaina.

Proiektuak zer eman die bi herriei?

Bi herrien nortasunaren balioa azpimarratu du, beraien ezaugarriak agerian utziz. Ahultzen ari ziren ezaugarri horiek indartzen ari gara. Emozioei eta tratu onei buruz hitz egiteko espazioak sortzen ari gara, zaintzen inguruko hausnarketak sortu ditugu, zaintzaren garrantzia azpimarratzen eta errespetuzko harremanak sustatzen ari gara. Proiektuak ez die zerbait berria ekarri, baina lehendik zituzten ezaugarriak indartzen laguntzen ari da.

Ongi errotu da?

Lanketa handia egin dugu, baina proiektu osotzat ulertzeko zailtasunak izan ditugu. Bhutan ekintza solteekin lotzen zuen jendeak, ez, ordea, filosofia baten barnean. Horregatik, azken bi urteotan proiektua ezagutzera emateko saiakera berezia egiten ahalegindu gara eta, pixkanaka, herritarren artean errotzen ari da. *Izan Bhutan* esaten dugunean honakoa ulertzea nahi dugu: zaintza, tratu onak, zoriontasuna eta emozioak kontuan hartzen dituen herritarra izatea.

2019an Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen XII. Saria eman zioten Bhutan proiektuari...

Sorpresa izan zen. Pozez hartu genuen eta proiektuan gehiago sinesteko balio izan zigun. Sariak proiektuari merezi duen lekua eta ikusgarritasuna emateko, herrira gehiago hurbiltzeko, irudi korporatiboa lantzeko eta jarduerak motibazio handiagorekin diseinatzeko aukera eman digu.

Joan den urtean *Zaintza pandemia garaian* landu zenuten. Nolako balorazioa eginen zenukete?

Aldaketa ugari ekarri ditu pandemiak, baina zerbait agerian gelditu bada, hori zaintza eta tratu onak bizitzaren sostengu direla izan da. Zaintzarik gabe ez dago bizitzan aurrera egiterik. Bazen garaia hori ikusarazteko. Balorazio oso positiboa egin genuen, batez ere, pandemiak zaintzaren inguruko hausnarketa orokorra sortu duelako, mugimendu feministak aspaldi hasia zuena. Denok dugu zainduak izateko beharra eta denok izan beharko genuke aldi berean zaintzaile.

Eta aurten eremu digitalari begira jarri zarete. Zergatik?

Hori ere pandemiak ekarri duen hausnarketa da. Lehendik pantailen mundua indar handia hartzen ari zen, baina pandemiak biderkatu egin du. Batbatean, bideo-deiak, telelana, pantaila bidez aisialdia eta komunikazioa... Ez gaude horrek sortzen dituen arriskuak kudeatzeko edota modu osasungarrian kontsumitzeko prest. Pantailen munduan, zaintza eta tratu onak bultzatzea ezinbestekoa da, mundu erreala eta birtuala ez direlako gaur egun hain ezberdinduak. Eremu digitalean zaintzen badakiten goizuetarrak eta aranoarrak nahi ditugu, pantailen munduan *Izan Bhutan* filosofia aplikatzeko gai direnak. Arriskuak islatzeko hamar panel handi sortu ditugu aztarna digitala, ziberbullyinga, itxurakeria, ordu kopurua, pornografia, *sharenting*a, txiste matxistak, pantaila bidezko jazarpena, zurrumurruak eta autoestimua landuz. Arriskuei erantzuten dien *Eremu digitalean zainduz* dekalogoa osatu dugu.

Zer dugu gai honetan ikasteko?

Gauza ugari. Mundu birtuala asko garatzen ari da eta gure bizitzan presentzia eta eragin ikaragarria du. Etengabe mundu birtualeko errealitateaz hausnartzea da garrantzitsuena, ezin baitugu berrikuntza ororen jakitun izan. Mundu birtuala begirada kritiko batetik aztertzea, eta ahal den heinean, arriskua prebenitzeko eta onura izateko pautak jarraitzea da gakoa.

Arriskuez jakitun gara?

Batzuetan bai eta beste batzuetan ez horrenbeste. Ikusten dugu, adibidez, ziberbullyingaren kaltea, baina badaude horren agerikoak ez diren gaiak. Adibidez, gure mugikorrera ailegatzen den guztia partekatzeko ohitura dugu. Zurrumurru asko zabaltzen dira informazio gisa eta klik egiten badugu, gu ere konplize gara. Argi izan behar dugu, bestalde, Interneten debaldekoa den zerbitzu bat hartzen dugun aldiro, askotan gu geu garela produktua. Gure kontsumo ohiturak aztertuz, algoritmoak deitzen diren patroiak egiten dituzte eta informazio hori enpresei saltzen diete. Mundu birtuala kontsumoari begira sortua da. Ez dugu beldurrik eragin nahi, baina geure burua eta besteena zaintzeko hausnarketa beharrezkoa da.

Zein erronka dituzue?

Zaintza, tratu onak eta zoriontasuna bultzatzen jarraituko dugu. Parte-hartzea bultzatzearen ideia buruan dugu, horixe baita proiektuaren aurkezpenean gaineratu zuten behar handienetariko bat, baina erabakitzeko dago bidea. Dena den, *Izan Bhutan* filosofia egunerokoan aplikatzeko deia egin nahi dugu.



Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak *Eremu digitalean zainduz* dekalogoarekin.

«EGUNEROKOAN 'IZAN BHUTAN' APLIKATZEA NAHI DUGU»

«GEURE BURUA ETA BESTEAK ZAINTZEKO HAUSNARTU BEHAR DUGU»

Bhutan proiektuaren atzean herritarrak

GOIZUETAKO UDALA

«Herritarrek berezkoa dute zaintzarako joera»

«Herritarrek berezkoa dute zaintzarako joera: ezbeharren bat gertatu denean borondate izugarria, pandemia garaian jarrera eredugarria… Proiektuak gure herriaren izaera oso ongi definitzen du, eta herria saritu nahi izan duela ulertzen dugu».

GOIZUETAKO GURASO ELKARTEA

«Esperientzia aberasgarria izaten ari da»

«Esperientzia aberasgarria izaten ari da. Pantailen erabilera eta tratu onen inguruan gurasoen beharrei erantzuteko bidea hasi dugu, eta aurrerantzean proiektuan parte hartzen duten beste eragileekin egin dezakegunaren espektatibak onak dira».

GOIZUETAKO EMAKUME TALDEA

«Lanean jarraitzeko erreminta interesgarria da»

«Bhutanen bidez bizi kalitate ona zoriontasunarekin eskutik doala ikasi dugu eta eragile bakoitzak bere eremuan gauza txikiak egiteak herriari osotasunean ale txiki bat jartzen diola. Aurrerantzean lanean jarraitzeko erreminta interesgarria dugu».

AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI ARANO

«Hurbileko proiektua da, ilusioz egina»

«Oso proiektu bitxia eta hurbilekoa da, ilusioz egina. Herri hauen izaeran eta elkarreraginean, komunitate izaeran, errespetuan, eta batez ere denon ongizatea bilatze horretan sentsibilizazioa bilatzen du. Jendearengana gehiago ailegatzea gustatuko litzaidake».

JOXE JABIER ETXEBERRIA SALABERRIA MEDIKUA

«Merezi du saiatzea eta parte hartzea»

«Gizartea zoriontsu izateko osasuntsu eta alai bizi behar da. Hori asko arin dezakegu elkarri lagunduz, gazteen heziketan, zaharren zaintzan, larrialdietan eta prebentzioan. Proiektuak harremanak indartu eta berriak bultzatu nahi ditu. Merezi du parte hartzea».

ELI SALABERRIA LOIARTE GOIZUETAKO ESKOLA

«Proiektu zabala eta positiboa da»

«Proiektu zabala eta positiboa iruditzen zaigu, hainbat eremutara ailegatzen delako eta batez ere modu integralean lantzen delako. Besteak beste, *Eremu digitalean zainduz* erakusketa oso positiboa izan da ikasleentzat, aurretik eskolan landu baititugu gaiak.

2022ko aurrekontuak onartu ditu udalak

4.284.356 euroko aurrekontua onartu du udalak aho batez. Aurtengoa baino 696.490 euro gehiago dira.

Ur hornidura eta zoladura hobetzeko inbertsioak eginen ditu udalak.

AINHOA LARRETXEA AGIRRE

Azaroaren 10ean egindako osoko bilkuran 2022ko aurrekontuak onartu zituen udalak aho batez. Guztira 4.284.356 euroko aurrekontua da onartutakoa, azken aurrekontuak baino 696.490 euro gehiago. Aurtengo aurrekontuetan ezin izan ditu kontuak berdindu, eta 44.304 euroko mailegu bat hartzea aurreikusi du udalak. Hala ere, udalaren zorra gutxitzen segituko dute 2022an, maileguen amortizaziorako 82.9942 euro bideratuko dituztelako.

Toki-erakundeen finantziazio sistema berria adostu du Nafarroako Gobernuak. Aurten %23,7ko igoera adierazgarria izanen da, eta 1.200.000 euro jasotzea aurreikusita dago. Tokiko Inbertsioen Plan berria ere adostu du Nafarroako Gobernuak, eta jasotzen den dirua ur hornidura eta zoladura hobetzeko erabiliko du udalak. Euskaldunan hasi eta Ilekuetarainoko ur sarea berritu asmo du udalak 2022an. Horretarako 174.000 euroko dirulaguntza jasotzea espero du. Fibrozementuzko hoditeria aldatzeko asmoa ere badu, eta 290.000 euroko gastua aurreikusten du horretarako.

1,1 milioi inbertsioetan

Inbertsioetarako 1.103,532 euro bideratuko dituzte. Atal horretan sartzen dira udal eraikinen mantentzea, espaloiak moldatzea, baserri bideak moldatzea, mugikortasun neurriak, eta bertze hainbat kontu.

Langilegoari dagokione,z Musika Eskolako langileen lan baldintzetan hobekuntza egon da. Hiru irakasle obra kontratuarekin egotetik interino izatera pasa dira, eta musika eskolako idazkariari ere C mailako soldata berdintzen duen osagarria ezarri zaio. Bortzirietan Berdintasun teknikaria kontratatuko da eta 27.414 euro jarri beharko ditu horretarako Berak. 18.124 euro jasoko ditu dirulaguntza kontzeptuetan. Gainera, bigarren albinte bat hartzeko prozesua ere martxan dago, eta sei hilabeteko ordainsaria sartu du aurrekontuetan.

Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako aurrekontu akordioan, Portu interpretazio zentroaren proiektuarekin jarraitzeko 64.000 euro aurreikusten dira.

Dirulaguntzen atalean udaleko fatxadako irudi polikromatuak berritzeko laguntza eskatuko da. 50.000 euro aurreikusten dira horretarako. Laguntza jasotzen bada eginen da, eta bertzela gerorako utzi beharko da. Halaber, kiroldegiko teilatuan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak paratzeko dirulaguntza bat ere eskatu da. 40.000 euroko kostua du horrek, eta %85 IDAEk finantzatzea aurreikusten da.

Kulturan, bestak eta euskararen arloko diru partidak mantenduko dira, eta auzoz auzo egindako bileratan jasotako eskariak betetzeko inbertsioetarako diru zati bat erabiliko da.

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera
Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LABE ZAR
Astelehenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

Frutas y Verduras
FERRANDONEA, S.L.
FRUTAK ETA BARAZKIAK
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
• Elektrizitatea
• Sukaldeak
• Etxetresnak
• Eguzki panelak
• Autoentzat kargadore elektrikoak
• Probextu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
• Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.
ekoiztu zure energia, izan EKOlogikoa

Ander Rodriguez Kortak arkitektuak diseinatu du estalpea.

Abenduaren 2an inaguratuko dute ikastolako estalpea

Denera 200 metro karratu estali dira eta biltegi bat eta komun baterako espazioa ere baditu estalpe berriak

AINHOA LARRETXEA AGIRRE

Urriaren 20an bukatu ziren Labiaga ikastolako Eztegarako ikastetxeko patioan estalkia eraikitzeko lanak. 200 metro kuadroko azalera estali da, biltegi eta komun baterako espazioak dituena. Mugara Arkitektoak estudioko Ander Rodriguez Korta beratarrak egin du diseinua. Abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, ekitaldi batzuk antolatu ditu Labiaga ikastolak patioan estalpe berria aurkezteko. Arratsaldean ikasleen emanaldiak izanen dituzte eta 18:00etan Pottoka kantari baztandarraren kontzertua.

PEDRO PEGENAUTE

Estitxuren disko berriaren aurkezpena

Azaroaren 6an aurkeztu zuen Estitxu Pinatxo abeslaria *Isilik daude harriak* bere azken diskoa. XX.menden zentsuratutako hainbat abesti berreskuratu ditu diskoan. Estitxurekin batera Garazi Esnaola, Igor Telletxea, Txema Garces, Julen Suarez eta Mikel Sanchez igo ziren oholtzara.

Familia osoarentzako 'Zine Star' ikuskizuna igandean Kultur Etxean

Euskararen Nazioarteko Egun a dela eta Euskarabideak antolatutako Gora Gora Fest jaialdiaren baitan, Zine Star haurrentzako ikuskizuna izanen da azaroaren 28an, igandean Kultur Etxean. Maitane Perez, Ainhoa Ruiz eta Xabi Artieda dira ikuskizuneko protagonistak, eta antzerkiaz gain, dantzak eta musikak ere protagonismo berezia izanen du.

Pelikula bat entregatzekotan direla, zinta apurtuta dagoela konturatuko dira protagonistak, eta publikoaren laguntza beharko dute bi ordutan berriz ere lan guztia hasieratik egiteko.

'Hogei, Hogei, Hogei' erakusketa ikusgai Armi arte galerian

Igandera bitartean egonen da ikusgai Euskal Herriko 85 artistaren lana biltzen duen arte erakusketa

Erakusketa parte hartu duten hainbat eskultore inaugurazioan. ROSA ERRANDONEA

Eskultore bakoitzak obra bat erakutsiko du erakusketan. ROSA ERRANDONEA

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 6an ireki, eta igande hau bitarte, azaroak 28, *Hogei, Hogei, Hogei* arte erakusketa ikusgai dago Suspela auzoko Armi arte galerian. Ibilbide luzeko 85 artistaren lanak biltzen ditu erakusketak, eta egunero ikusten ahal da 11:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara.

Ibilbide luzeko artisten lanak dira erakusketan ikusgai daudenak. Tartean dira Koldobika Jauregi, Mari Jose Recalde, Iñaki Riverino, Ramon Balerdi eta Jon Ormazabal artista ezagunak bertzeak bertze. Eskultura mailan azken urteetan Euskal Herrian egin den erakusketa zabalena da Beran ikusgai dagoena, eta helburua Beran erakutsi ondotik Euskal Herrian zein nazioartean erakustea ere bada. 85 artista izaki, artista bakoitzak obra bakarra erakutsiko du eta Guillermo del Olmok egin ditu komisario lanak.

Azaroaren 6an egin zuten inaugurazio ekitaldia. Erakusketan parte hartu duten hainbat artista bertaratu ziren eta ikasleen bisitak ere izan dituzte.

Hotel Churrut
HOTEL ***
Bezero agurgarriak:
Jakin ezazue azaroaren 22tik aitzinera, **astelehenetan**, behe-denboraldian, **Hotela eta Jatetxea itxita** egonen dira, (zubiak eta jaiegunak izan ezik) abisu berri bat eman arte.
Mila esker eta barkatu eragozpenak.
Foruen plaza | BERA
T. 948 62 55 40
www.hotelchurrut.com

Urte xaharra *Churrut Jatetxean*, bai ederki!!
Hotel Churrut
HOTEL ***
Foruen plaza | BERA | T. 948 625 542
T. 948 62 55 40
www.hotelchurrut.com
EGUNEKO MENUA
TALDEENTZAKO MENUAK,
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK eta BATAIOAK

2021eko Urte Zahar Gaueko Menua
Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin,
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin,
Ganboiak plantxan.
******
Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.
******
Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.
******
Etxeko kremazko tututxoak,
txokolate bero eta praline-izozkiarekin.
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.
******
Alkorta ardo beltz ondua (Errioxa), Las Campanas ardo gorria (Garnatxa), Las Campanas ardo zuria (Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.
******
Prezioa: 80€ BEZ barne

INTERNET MUGAGABEA
300MB
Kontratua orain egiten baduzu,
DEBALDE IZANEN DUZU
eta heldu den urtera arte
ez duzu deus ordainduko!!!
GESTEL
T.: 948 63 01 32 / 637 40 86 40
E-mail: navarra@gestelcom.es
In. Zalain 4. nabea, 5. lokala - BERA
NON GAUDE:
- BORTZIRIAK
- MALERREKA
- BAZTAN
- URDAZUBI
- ZUGARRAMURDI

A-25
Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna
Indarkerien biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko taldeetan bizitza hobe baterako atea irekitzen lagunduko dizugu.
Zure ondoan gaude.
www.igualdadnavarra.es/taldeak
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
INAI NABI
Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Aritz Lazkano eta Garazi Taberna Skullmendi Films ekoiztetxeko kideak. TTIPI-TTAPA

«Fikzioa erreminta sanoa da sekretupeko egiez hausnartzeko»

ARITZ LAZKANO ETA GARAZI TABERNA SKULLMENDI FILMS EKOIZTETXEKO KIDEAK

'Hezur berriak' film laburra egiten ari da Lesakako Skullmendi Films ekoiztetxea. Finantzaketa kolektiboko kanpaina bat abiatu dute Itsulapikoan lanaren diru kostuak finantzatzeko

AINHOA LARRETXEA LESAKA

1967ko gaua da eta Baztango mendi bideak Poliziaz eta iheslari portugaldarrez bete dira. Ezkutuan doa kontrabando talde bat behiak garraiatzen. Tentsioa agerikoa da eta traizioaren hotzikara aziendaren usainarekin nahasi egiten da. Abiapuntu hori du Skullmendi ekoiztetxearen *Hezur berriak* lehen film laburrak. Kontrabandoa abiapuntu, kontrabandoaz haragoko gaiak landu nahi ditu film laburrak: inmigrazioa, sekretuak, giza esplotazioa, beharra. Urdazubin eta Lesakan egin dituzte grabaketak, eta orain post-produkzio fasean da filma. Aritz Lazkano eta Garazi Taberna Skullmendiko kideek filmaren nondik norakoak aletu dituzte.

Film laburraren grabaketak bukatu dituzue. Nola joan dira?

Aritz Lazkano: Zinema ikastera joan nintzen lehendabiziko egunean esan ziguten saiatzeko ez grabatzen ez umeekin, ez aitona-amonekin, ez animaliekin. Bada guk jada lehenengoan animaliekin egin dugu eta espero baino zailagoa egin zaigu. Baina aurrera atera dugu. Lantaldean ere denak ginen ezagunak, denak egin izan dugu lan elkarrekin, baina inoiz ez batera lan talde berean. Eta hastea ere kostatzen da, bakoitzak bere lekua hartu arte. Baina gerora ongi moldatu gara eta oso kontent nago.

Lehen lana duzue Skullmendi ekoiztetxean. Nondik sortu da ?

AL: Iaz koronabirusaren kontuarekin betiko lankideak biltzen hasi ginen, eta pentsatu genuen esperientzia anitz badugula jada, badugula denak elkarrekin lan egiteko gogo pila bat eta behar genuela euskarri txiki bat gure proiektuak egiteko. Kontaktua badugu bi gidoilari ospetsurekin, eta erakutsi genizkien gure gidoiak eta ideiak. Guk baino gehiago baloratu zituzten, eta esan ziguten unibertso oso-oso interesgarria dugula hemen bertan eta oso interesgarria iruditzen zitzaiela aurrera egitea eta lantzea. Animatu ginen film luze bat idaztera, ttikia, bi pertsonaiekin. Proba bat egin dugu, zuzendari eta produktora batzuekin probatu dugu eta itxura ona hartu diote. Hori egin aitzinetik film labur txiki bat egin dugu, bertako unibertsora begira, eta horrekin behintzat gure lan taldea ezagutaraziko dugu. Film laburrarekin nor garen erakutsi nahi dugu, eta helburua da film luzea ere bertan egitea.

Nondik aukeratu duzue 'Hezur Berriak' film laburrerako gaia?

Garazi Taberna: Film luzerako gaia izanen zen zerbait nahi genuen, hemengoa izatea, kontrabandoa, muga azaltzea. Nik osaba bat badut mugalaria izan zena, eta galderak egiten hasi nintzen. Azienda kontrabandoaren historia kontatu zidan, nola egiten zuten, Beran bazirela bi talde egiten zutenak…

AL: Hariari tiraka kontrabandoari buruz galdezka hasi ginen. Iruditzen zitzaigun badela kontrabandoaren irudi idiliko bat, baina urrunetik begiratuta kontrabandoaren gibelean beti izaten dira kon-

tu ilunagoak. Bertako adinekoekin harremana sortu zen, eta portugaldarren kontua kontatu zidaten. Esan zidaten gure etxean bertan portugaldarrek lo egiten zutela. Telebistarako lan batean Rosa Arburuari elkarrizketa bat egin genion eta datu zehatzak ere eman zizkigun. Esan zigun ikerketa batzuk erraten dutela ia milioi eta erdi pertsona pasa zirela hemendik. Txunditu ninduen horrek, eta galdezka hasi nintzenean bertako gazteek ez zuten aunitz entzuna gaia, baina etxean galdetzen hasi eta familiako istorioekin etortzen ziren. Konturatu ginen bazela zerbait hor sekretupekoa eta gordea, eta benetan inoiz ez genuela jakingo zehazki zer gertatu zen.

Fikizioa aukeratu duzue historia hori kontatzeko. Zergatik fikzioa?

AL: Uste dugu fikzioa erreminta hagitz sanoa dela egia sekretu horren gainean hausnarketa bat egiteko. Horrela ez dugu inor seinalatzen, ez dugu inor epaitu nahi, baina bai uste dugu oso sanoa dela hausnarketa hori egitea. Zer egin dugun, eta nola aprobetxatu garen miserian zegoen jendearekin. Gaur egun ere gauza berdina gertatzen ari da, badira hemen iheslariak Bidasoan hiltzen direnak, mafiak. Gaur egungo kontu hauek aitzinatik itxi gabe ditugunak dira, eta etorkizunera begira hausnarketa hori egin behar dugu.

«IRUDITZEN ZAIGU KONTRABANDOAREN IRUDI IDILIKO BAT DAGOELA»

«HURRENGO FILMA BORTZIRIETAN GRABATU NAHIKO GENUKE»

Animaliekin egin dituzte grabaketetako batzuk. SKULLMENDI FILMS

Aktore profesionalak zein amateurrak nahastu dituzte lanean. Hor dago adibidez Juanen Saralegi lesakarra. Nola egin duzue aukeraketa hori?

GT: Denak aktore profesionalak dira. Saralegik ere esperientzia badu, eta emaitza hagitz profesionala izan da. Uste baino gehiago atera da, uste baino paper gehiago eman dizkiogu azkenean. Castingik ez dugu egin, baina bertze aktoreak deituz lortu ditugu.

AL: Juanen gure apustua izan da. Gure etxeko konponketa egin zuen, eta ez nekien aktorea zenik. Beti begiratzen nion, eta pentsatzen nuen bere ahotsa eta itxuragatik zerbait egin behar genuela. Beste aktoreak profesionalak dira, antzerkian ibiltzen dira. Berez gure lagun bat, Eriz Alberdi zen protagonista. Baina, grabaketa aitzinetik, hiru aste lehenago gaitz larri batek hartu zuen eta utzi behar izan zuen. Itxura zakarreko aktoreak nahi genituen, eta uste dut oso ongi geratu dela.

Finantzaketa kolektiboko kanpaina bat abiatu duzue Itsulapikoa plataforman. Zertara bideratu nahi duzue lortzen duzuen dirua?

GT: Dirua film laburra finantzatzeko da,langileak modu duinean ordaintzeko. Batzuetan film laburrak egiten dira gizarte segurantza ordaindu gabe. Guk dena nahi genuen txukun egin, aktoreek ez zezaten dirurik galdu lan profesionala egiteko. Horregatik abiatu genuen kanpaina eta ea jendea animatzen den.

Navarra Tierra de Cine sariketan finalista izan zarete film laburreko gidoiarekin. Finalisten artean egoteak ze aukera eman dizue?

GT:Lehiaketa horretan hamar herrik beren herria aurkezten dute grabaketak egiteko. Guk Urdazubi eskatu genuen ez Lesaka ez Bera ez zeudelako aukeren artean. Horregatik egin dugu grabaketa Urdazubin. Udalak bertan egoteko Kultur Etxea utzi zigun eta sariketak segurua ordaindu digu. Gauza ttikiak dira finean. Orain lehiaketan gure lana aurkezteko aukera dugu eta sariren bat irabaztekoa.Helburua film laburra mundu guztikojaialdietara eramatea da.

Behin film laburra bukatuta, non aurkezteko asmoa duzue?

GT:Udalekin kontatuan gaude, eta gure asmoa da herri batean baino gehiagotan egitea emanaldiak eta baita solasaldiak ere. Helburua bada lan honekin gai bat mahai gainean paratzea, eta horri buruz solastatzea. Jendeak zer iritzi duen ezagutzea. Ez gu bakarrik ere, bertze batzuk ere ari dira gaia lantzen, eta iruditzen zaigu garai ona dela, eta badagoela behar bat. Gaiari buruz solasten hasten garenean jendeak beti erantzuten digu familiako kontuak kontatuz. Gaiari buruzko elkarrizketak eta badaude, baina horrelako plaza batean errazago kontatzen ahal da.

Estreinurako data zehatzik baduzue?

AL: Oraindik ez dugu zehaztuta, baina San Tomas inguruan izatea gustatuko litzaidake. Garaziren aitonak kontatu zidan San Tomas eguna izaten zela urteko egunik inportanteena. Baserriko kontratua berritzen zen egun horretan, eta egun oso markatua zen. Data gustatzen zait eta data horren inguruan egiten saiatuko gara.

Arestian aipatu duzue film luze bat egin asmoa duzuela. Horren inguruko inguruko zerbait aurreratzerik bai?

AL:Portuges-afrikar bat hona iristen da eta kontrabandista bat kontaktatzen du. Bi pertsona horiek Bidasora iritsi arteko bidaia kontatzen du filmak. Berez gure eskualdean egin nahiko genuke Bortzirietan. Udazkenerako idatzita dago, eta ea hurrengo udazkenean hasi gaitezkeen.

Nabarmendu nahiko zenuketen bertze zerbait?

AL:Film laburra plazaratu aitzinetik oso kontent nago gaia bueltaka hasi delako. Portugaldarraren rola jokatu duen batek adibidez orain ikusi du bere familia ere bertatik igaro zela. Hasi da jendea honetaz solasten, eta badira beste proiektu batzuk ere hau lantzen. Denen artean ari gara indar metaketa polit bat egiten, eta gure herriko kulturari eta etorkizunari ekarpen polita egiten. Eta eskerrak eman Lesakako eta Urdazubiko udalari eta Eriz Alberdiri besarkada bat, berari eskaini nahi diogulako lana.

Hainbat eraikin historiko nabarmentzeko argi bereziak ere paratu dituzte.

Argiteria publikoa hobetzeko lehen fasea bukatu da

200 argi baino gehiago aldatu dituzte eta 118.835 euroko inbertsioa egin da, 86.528 euro dirulaguntzaren bidez lortuak

AITOR AROTZENA

Hilabete batzuk dira argiteria publikoaren berritze lanen lehen fasea bukatu zituela udalak, eta aldaketa hauen emaitzak agerikoak dira dagoeneko. Herriko argiteriaren auditoria energetikoa egin ondotik, bertan azaldutako lehentasunak segituz, lehen faseari ekin zion udalak. Lan hauetan berrehun farola edo argi baino gehiago aldatu dira. Zehazki 118.835 euro inbertitu dituzte lan hauek ordaintzeko, horietatik 86.528 euro Nafarroako Gobernuak diruz lagunduak, eta gainerakoa udalak ordaindua. Auditoriaren arabera, herrian argiteria publikoaren kontsumo energetikoa 141 KWh zen biztanleko, Nafarroako batezbestekoaren gainetik (133kWh biztanleko).

Zabaleta dorrea argitua.

ARGINDARREAN URTERO 7.500 EURO AURREZTEKO DIRELA USTE DUTE

Argiteriaren berrikuntzaren lehen faseari honetan, Antoiu karrikako koadroko farolak aldatu dira LED argiak jarriz, bai eta herriko hainbat alde eta eraikin historiko nabarmentzeko hainbat argi berezi ere (Onin errekakoak, Zabaleta dorrea...).

Soilik aldatutako faroletan egindako hobekuntzen ondorioz, eraginkortasuna, eta aurrezpen energetikoa nabarmen hobetu eta kutsadura luminikoa murriztu da.

Hasierako estimazioen arabera, urtero 7.500 euro aurreztuko dira argindarrean, baina egokitzapen batzuei esker eta elektrizitatearen kostua ikusirik, aurrezpena haundiagoa izanen dela uste du udalak. Instalazioak gaur egungo araudietara egokitu dituzte, egoera hagitz kaskarrean eta segurtasun akatsekin baitzegoen argi sarea. Era berean, telegestio bidez erregulatzen ahal dira argiak, honek eskaintzen dituen aukera guztiekin.

Lehen fase hau bukatuta, pausu gehiago eman dira, hurrengo fasetako proiektuak eta bertzelako dokumentazioa prestatuz. Orain dirulaguntzak lortzeko lanean ari da udala, ahal den heinean herriko argiteria guzia hobetzen joateko.

Berriz ere zabalik da Haur Txokoa astegunetan komentuan

TTIPI-TTAPA

Harriondoan dagoen haur txokoa azaroaren 8an ireki zuten berriz ere. Joan den urteko martxoan lehen aldiz martxan paratu zuten espazioa, baina espero baino lehen bertan behera utzi behar izan zuten COVID-19a dela eta. Hala ere, arrakasta ikusirik, aurten zerbitzua berriz ere martxan jartzea erabaki du udalak. Miren Etxepeteleku da arduraduna.

Honela, 2022ko martxoaren 25a arte irekita egonen da astelehenetik ortziralera 16:00etatik 19:30era. Ortzegunetan itxita egonen da.

3-12 urte bitarteko haurrek izanen dute erabiltzeko lehentasuna, baino gaztetxoek ere sartzeko aukera izanen dute. Gurasoen edo zaintzaileen ardurapean egon beharko dute beti haurrek eta sei urtetik goitikoek musukoa erabili beharko dute. Modu honetan, Udalak euria egiten duen egunetan haurrek jostatzeko espazio babestu eta goxo bat izatea ahalbidetzen du. Hortaz gain, hainbat ekintza eta aktibitate egiteko asmoa dago, eskaintza zabalagoa emateko.

Haur eta gazteen parte-hartze organoa ere osatu nahi du udalak.

Turismo lan-mahaia osatzeko lanean ari da udala

Uda honetan 1.014 bisitari igaro dira turismo bulegotik eta 147 pertsonek parte hartu dute doako bisita gidatuetan

A. AROTZENA

Azken hilabeteetan herriko Turismo Plana eratu du udalak, lo egiteko establezimenduen, ostalaritzaren eta biztanleriaren laguntzarekin. Plana hiru fasetan egin da: lehenik, turismoaren diagnostikoa osatu zen; gero, aurtengo udako analisia egin zen; eta azkenik, hurrengo hilabeteetan aitzinera eramanen diren neurri eta proiektu-proposamenak azaldu zituzten. Turismo Plana Udalaren webgunean eskuragarri dago.

Udan 1.014 bisitari

Argi ikusten da turismoak gero eta garrantzia handiagoa duela herrian. Udan 1.014 bisitari igaro dira turismo bulegotik eta nahiz eta pandemiaren aitzineko datuetara oraindik ailegatu ez diren, 2020koak % 31n gainditu dituzte. Abuztua izan da hilabeterik oparoena. Jatorriari begira, gehienak estatu espainiarreko bisitariak izan dira (%93a), baina inoiz baino nazioarteko turista gehiago ibili da, gehienak Frantziatik etorritakoak, baina izan dira Belgikatik, Herbehereetatik, Alemaniatik, Letoniatik eta Estatu Batuetatik etorritakoak ere. Estatu espainiarrekoei dagokienez, Valentziatik, Madriletik eta Bartzelonatik etorri dira batik bat. Gehienak familian edo bikotearekin etortzen dira, hemengo kultura eta inguruko herriak ezagutzeko asmoarekin eta aunitzek bizikleta edo oinezko txangoak egiten dituzte. Igande eguerditan bisita gidatuak ere eskaini zaizkie bai turistei, baita herritarrei ere, doan. *Lesaka: gure kulturaren sorterria* izenburuarekin. 147 pertsonek parte hartu dute.

Turismo lan-talde bat osatu nahi du udalak hurrengo hilabeteetan elkarlanean aritzeko eta koordinazioa lantzeko. Honen helburua, turismoaren inguruko agente guztiak kontuan hartzea izanen da eta denen artean, herriko turismoa dinamizatzea, herritarren eta turisten arteko ezinbertzeko oreka hori bilatuz. Joan den asteartean eta ortzegunean egin zituzten bi bilera.

Feria giroan murgilduko da herria asteazken eta ortzegunean

Aitzineko aldizkarian aipatu bezala, feriak ospatuko dira aurten herrian. Asteazkenean, hilak 24, Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketa eginen dute eta trikitilariak ere ariko dira. Biharamunean azienda lehiaketa eginen dute frontoiaren gibeleko aldean. Plazako aparkalekuan elikagaiak izanen dira eta Plaza Zaharrean artisauak. Herri kirolak ere izanen dira. Lizaso eta Amets Arzallus Ezpelteneko balkoitik ariko dira eta arratsaldeak Kilimak taldeak eta Distopia elektrotxarangak paratuko dute musika.

UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko trial txirrindulariak bikain

Lesakako Trial taldean ari diren gaztetxoek emaitza bikainak lortu zituzten azaroaren 7an Aretxabaletan. Xabier Valverdek infantil mailan lehen postua lortu zuen (argazkian). Elite mailan, laugarren izan zen Oier Mitxelena beratarra. Uxuri Portu, Oihan Castro, Goiuri Urra eta Julen Aierdi oiartzuarra ere aritu ziren.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

DenokBat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
LIBURUDENDA
KOLORETAKO FOTOKOPIAK
USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
ESKANERRAK
ESKOLA MATERIALA
INFORMATIKAKO MATERIALA
BULEGOKO MATERIALA
EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Gastronomia lehiaketan saritutakoak eta Gerardo Danboriena omendua.

Usategietako IX. Gastronomia Lehiaketa egin dute

Ibardingo Mendiko sagardotegiak irabazi zuen Urrezko Paleta eta Gerardo Danborienak omenaldia hartu zuen

IRUNE ELIZAGOIEN

Pandemiaren ondorengo geldialdiaren ondotik, azaroaren 5ean egin zuten Usategietako IX. Gastronomia Lehiaketa. Baztan-Bidasoko hainbat jatetxek hartu zuten parte eta Urrezko Paleta Ibardingo Mendiko sagardotegiarentzat izan zen. Berrikuntzaren Paleta Lizarrietako Hordago ostatuak eskuratu zuen. Zilarrezko paleta, berriz, Elizondoko Santxotena jatetxeak lortu zuen. Epaimahaia Martin Sarobe (Nafarroako Gastronomia Akademiako presidentea), Maria del Mar Txurruka (Euskadiko Gastronomia Akademiako presidentea), Iñaki Idoate (Iruñeako Alhambra jatetxea), Leandro Gil (Iruñeko Hotel Alma), Mario Valles (Madrilgo Hortensio jatetxea), Pilar Diaz de Bustamante eta Cordón Bleu (Mahai Ona Kofradia), Xanti Elizagoien (usazalea) eta Teresa Gonzalez Camino de Gazteluk osatu zuten.

Antolatzaileek bertze sari bat ere eman zuten eta Landaburuko bordako Gerardo Danborienari Urrezko Paleta Berezia eman zioten, «usazaleen irakasle eta eredu» bere 55 urteko ibilbidea saritzeko.

UTZITAKOA

Landagain eskolakoak usategietan

Aurten hiru txandatan joan behar izan dute Landagain eskolako ikasleek usategietara, sare bidezko uso ehizaren tradizioa ezagutzera. Aurtengo helbururik garrantzitsuena eskola eremutik ateratzea da. Hau da, ahal den neurrian, ekintzak herriko parajeetan egitea, baita bisitatu ere.

JABIER IRIARTE

Emozioen hizkuntza Garbiñe Goiarekin

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak antolatuta eta Nafarroako Gobernuak lagundua, emozioen hizkuntza hitzaldia izan zuten azaroaren 9an kultur etxean, Garbiñe Goia psikoterapeutaren eskutik. Ekitaldia Haur eta Lehen Hezkuntzako gurasoei eta irakasleei zuzendua izan zen eta 13 lagun bertaratu ziren.

«Haur hauei euskaraz aritzeko espazioak eskaini behar zaizkie»

PATRI ARBURUA ETXEBERRIA BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIA

Kurtso hasieran Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzeleen Topaguneak martxan jarri zuten 'Solasean' programa Bortzirietan. Orain, egitasmoaren bilakaerari buruz aritu gara Arburuarekin

R. OSKARIZ

Aisialdiko programa bat da *Solasean* egitasmoa, «euskaraz ikasteko zailtasunak dituzten haurrei hizkuntza indartzeko aukera ematen diena». Aurtengo ikasturte hasieran martxan paratu dute bigarrenez Beran eta Lesakan eta oraingoz «dena aurreikusi bezala» doala azaldu digu Patri Arburuak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak.

Zein da programaren helburua?

Hizkuntzaren errefortzua ikuspegi ludikotik eta ahozkotasunetik lantzea, euskara haien komunikazio tresna bihurtu dadin eta komunikatzeko trebetasuna lortu dezaten. Herriko bizitzan euskaraz murgiltzeko baliabideak ere eskaini nahi zaizkie.

Zergatik sortu zenuten?

Zorionez gure eskualdeko familien gehiengoak euskarazko hezkuntza sistema (D eredua) aukeratzen du beren seme-alabentzat. Halere, familia horietan aniztasuna gero eta handiagoa da: gero eta gehiago dira euskaraz ez dakiten gurasoak, kanpotik etorritakoak, etab. Testuinguru horren ondorioz, azken urteotan ikastetxeetan ikusten hasi dira zenbait ikaslek, euskaraz eskolatuak egonda ere, zailtasunak dituztela euskara erabiltzeko, ikasteko eta baita ulertzeko ere. Zenbait kasutan horrek ondorioak ditu haien garapen akademikoan, eta kezka horretatik abiatuta sortu genuen.

Mankomunitateak sortu du 'Solasean' programa eta Topaguneak kudeatzen du.

Joan den urtean egin zenuten egitasmoa lehenengoz. Nolakoa izan zen emaitza?

Solasean pandemia betean abiatu zen, hain zuzen ere ikusi genuelakoz ikasle horiek eskolara joan gabe eman zuten denbora horrek lehendik zekarten arazoa haunditzea ekarri zuela. Proba gisa abiatu genuen, , eta hasieratik erantzun ona izan zuen: 2020ko urrian 17 ikaslerekin abiatu ginen, eta urtarriletik aitzinera baziren 27 izena emanak. Ikasturtearen akabailan balorazio inkesta bete zuten parte hartu zuten neska-mutikoek, gurasoek eta ikastetxeetako tutoreek. Oro har, balorazioak aski positiboak izan ziren, eta agerian gelditu zen programa honen beharra.

Eta nolakoa izaten ari da aurtengo kurtsoa?

Ikasturtea 27 neska-mutikorekin hasi dugu; 15 Beran eta 12 Lesakan. Bi begirale ditugu aurten ere, Haizea Etxeberria eta Ganix Arruti, eta biak egoten dira taldearekin, astearteetan Lesakan eta ortzegunetan Beran. Egitasmoa urriaren erdi aldera abiatu zen eta oraingoz dena aurreikusi bezala doa.

Haurren bilakaera positiboa da?

Bai, joan den urteko balorazioek hori erakusten dute. Halere, ez dugu pentsatu behar hori programari esker bakarrik gertatu denik, ikastetxean eta eskolaz kanpoko jardueretan ere euskaraz aritzen baitira. Programak bere mugak ditu, haur bakoitzak astean bi ordu bakarrik ematen dituelako bertan. Hortaz, euskalduntze prozesuan lagungarri izanen zaien bertze baliabide bat da.

Garapen akademikoan, programak duen eragina neurtzea zaila da. Ulertu behar duguna da haur hauei euskaraz aritzeko aukerak eta espazioak eskaini behar zaizkiela; zenbat eta gehiago, hobe.

Bertan integratzeari begira, programaren helburuetako bat da haurrekin herriko plazetara, parkeetara, kiroldegietara, liburutegietara… eta bertzelako espazio publikoetara joatea, ezagutu ditzaten eta euskaraz sozializa daitezen. Iazko ikasturtean zaila izan zen, osasun neurri zorrotzak bete behar zirelako, baina aurten gehiago heldu nahi genioke horri.

Haurren etxeko giroa ere garrantzitsua izanen da prozesuan…

Balorazio inkestan ikusi genuen familiek gustura hartu zutela programa, eta seme-alabak pozik joaten ziren saioetara, bertan ongi pasatzen baitzuten. Garrantzitsua da euskararekin eskolaz kanpo horrelako esperientzia positiboak izatea.

Etxeko giroari dagokionez, haur hauen etxeetan euskarak ez du presentziarik edo hagitz ttikia izaten du. Gurasoei transmititu nahi diegun mezua da haien seme-alabekin euskaraz solastatzeko aukerarik ez badute ere, gauza aunitz egiten ahal dituztela euskarak etxean ahalik eta presentzia handiena izan dezan. Adibidez, euskara eguneroko errutinetan erabiltzea agurretan edo esaldi laburretan, musika, telebista eta pantailaren aitzinean euskarari presentzia ematea eta euskararekiko jarrera positiboa erakustea.

Zerbait gehitu nahi al duzu?

Orain arte errandakoarekin, parte hartzen dutenak atzerritik datozten haurrak edota atzerriko gurasoak dituzten haurrak direla pentsatu daiteke. Hau ez da beti horrela, programan badira euskal herritarren seme-alabak ere.

Ekitaldiz gainezka prest dira abenduko kultur egunak

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, egitarau ederra prestatu du aurten euskara batzordeak

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Azken hilabeteotan kultur egunak prestatzen aritu da Igantziko euskara batzordea, bi urteko etenari buelta emateko asmoarekin.

Indartsu hasiko dira kultur egunak: Joseba Asiron historialariak *Nafarroaren konkista* hitzaldia eskainiko du **abenduaren 2an**, ortzeguna, 19:30ean, Baratzondon. Horrekin batera Baratzondon bertan *Nafarroako konkista artisten ikuspuntutik* erakusketa ikusi ahal izanen da, hain zuzen ere Eneko Lizardi, Javier Etayo, Fidel Azkoaga eta Martintxo Altzueta marrazkilariek egina; erakusketa Baratzondon egonen da ondoko egunetan ere.

Abenduaren 4an, larunbata, Igantziko dantza taldearen emanaldia izanen da frontoian, 19:00etan. Iraileko jaialdian dantzari kozkorrenek eskaini zuten saioa, eta abendukoan gaztetxoenak arituko dira.

Igandean, **abenduak 5**, goizetik hasiko da besta. 10:00etan herriko txistulariek karrika buelta eginen dute, eta 12:00etan buruhaundi eta kankailuak aterako dira. 18:00etatik aitzinera, gazta eta opil jatea izanen da Baratzondon, Joxe eta Iñakik musikaz eta kantuz lagundua Sarrera 5 eurokoa izanen da helduentzat, eta 2 eurokoa 12 urte bitarteko haurrentzat.

Abenduaren 6ko arratsaldea herriko haur eta gaztetxoei eskainia izanen da. Haientzako pelikulak emanen dira Baratzondon, 16:30ean 3-6 urte bitartekoentzat, eta 17:30ean 6 urtetik goitikoentzat. PKrispetak jateko aukera ere izanen dute neska-mutikoek.

Asteartean, **abenduak 7**, helduentzako antzerki emanaldia izanen da Baratzondon. Tartean Teatroak, Patxo Telleria eta Mikel Martínez aktoreek, *Ez dok hiru akustikoa* eskainiko dute, euskal kantutegian oinarritutako antzezlana.

Kultur egunei behar bezalako akabaila emateko, **abenduaren 8an**, 16:30ean hasita, mus eta partxis txapelketa eginen da Baratzondon. Bikote bakoitzak bortz euro ordainduko du parte hartzeagatik.

Baratzondo jubilatuen elkarteko mus eta partxis txapelketak eta Ahetzera irteera

Baratzondo Jubilatuen Elkarteak mus eta partxis txapelketak antolatu ditu. Musean zazpi bikoke parte hartzen ari dira eta partxisean zortzi. Sari bereziak izanen dituzte: txapeldunentzat bi urdaiazpiko, bigarrenentzat txuletak, trofeoak eta abar izanen dira.

Azaroaren 21erako antolatua zuten Ahetzerako irteerara lagun dexentek izena eman zuten. Ahetzeko merkatua ikusi ondotik Urdazubiko Koxka jatetxean giro ederrean bazkaldu eta Dantxarinea bisitatzeko aukera izan zuten. Etxalarko Bentan ere gelditu ziren bueltan.

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Emozio hezkuntza eskolan

Ikastetxean ohikoak diren ikasgaiak lantzeaz gain, argazkian ageri den bezala, eskolako haurrak emozio hezkuntzarekin lotutako ekintzetan burubelarri hasiak dira (Antzerkigintza, margoketa eta yoga). Bistan denez, ikasgelako aulkitik mugitu eta bertze ariketak gustuko dituzte neska-mutikoek.

Joseba Aldabe hirugarren urtez Garfen pilotari

Joseba Aldabek, 25 urteko pilotari igantziarrak, hirugarren denboraldia jokatuko du Garfe pilota enpresarekin.

Aldabe, hagitz pilotari segurua da eta argi mugitzen da kantxa gainean. LENC 2021eko Binakako Pilota Txapelketan txapeldun suertatu zen Labaka bikotekide zuela.

UTZITAKO ARGAZKIA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

Eskolako antzerkiak abenduaren 17an eginen dituzte

Egun horretan eginen dute zareen zozketa ere. Dagoeneko txartelak saltzen hasiak dira

NEREA ALZURI

Joan den urtean, osasun egoeragatik eskolako lagunek ezin izan zuten antzerkirik egin, baina ikasturte honetan antzerki tailerra berreskuratu dute.

Estitxu Mentaberri irakaslearekin, Lehen Hezkuntzako gaztetxoak antzezlanak prestatzen ari dira. Lehenbiziko eta bigarren mailakoek antzezlan bat eginen dute; eta hirugarrenetik seigarren mailara bitarteko ikasleek bertze lan bat antzeztuko dute elkarrekin.

Haur Hezkuntzako ikasleek tailer honetan parte hartzen ez badute ere, beren antzezlana ere prestatzen hasiak dira. Bertze urteetan bezala, DBHko neska-mutikoek aurkezpen lanak eginen dituzte.

Zuzen bidean, osasun egoerak mugatzen ez badu behintzat, antzerki emanaldiak abenduaren 17an eginen dituzte. Urtero bezala, zareen zozketa ere orduan eginen dute. Eskolako ikasleak dagoeneko hasiak dira etxez etxe eta baserriz baserri txartelak saltzen.

TTIPI-TTAPA

Kultur egun ederrak

Urri hondarrean hasitako kultur egunei, azaroaren 6an eta 7an eman zieten segida. Euskara Batzordeak antolatuta, Maddi Ane Txoperenak *Ene baitan bizi da* liburua aurkeztu zuen eta Patxi Bisquertek *Ombuaren itzala* proiektua. Ameli eta xirrikituen jostunekin ipuin-kontaketa saio ederra ere izan zen.

Abenduaren 11n Burlada ostatuko besta eginen dute

N. ALZURI

Abenduaren 11n urte akabailako besta antolatu du Burlada ostatu-jatetxeak.

Besta eguerdian hasiko da eta 14:00etan bazkaria izanen da. Bazkalondoa alaitzeko, Beñat Mitxelena eta Fernando Otano musikari eta kantariak ariko dira. Ilunabarrean, berriz, luntxa izanen da.

Txartelak aitzinetik har daitezke, 50 eurotan Burlada ostatuan berean.

Jakinarazi dutenez, osasun arauk betez eginen dute ospakizuna eta ostatua 02:30ean itxiko dute.

Traktoreen azterketa teknikoa abenduaren 1ean eta 2an

N. ALZURI

Heldu den abenduaren 1ean eta 2an, asteazkenean eta ortzegunean, traktoreei azterketa teknikoa egiteko unitate mugikorra herriko frontoian izanen da. Aitzindu dutenez, quad eta ziklomotorren azterketarik ez dute eginen.

Abenduaren 1ean herrikoen eta Eguzkialdekoen txanda izanen da eta abenduaren 2an, berriz, Aientsako, Azkilarreko eta Bordalarreko auzotarren traktoreak ikuskatuko dituzte.

Bi egunetan, unitate mugikorra 10:15etik 14:00etara izanen da frontoian.

LARRETXEA EGVRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

iparra
RAUL IPARRAGIRRE ALZURI
Fisioterapia-Osteopatia
Jaizkibel 2. Hendaia
00 33 (0) 5 59 48 19 32
00 34 606 26 06 59
Ondarreta pasealekua 13, bajua. Donostia
943 31 51 80

Eneit Bertiz Nafarroako openeko irabazlearen maillotarekin. UTZITAKOA

Udazkeneko BTT Opena irabazi du Eneit Bertizek

Azken lasterketa irabaztean gain, sailkapen orokorrean lehenbizikoa izan da kadete mailan herriko txirrindularia

MAIDER PETRIRENA

Irailaren 12an hasi zen Nafarroako Udazkeneko BTT Opena eta azaroaren 7an seigarren eta azken lasterketarekin Muniain de la Solanan (Nafarroa). Atzoko lasterketan lehenbizikoa izateaz gain, kadete kategoriako irabazlea izan da Eneit Bertiz sailkapen orokorrean, garaipenez betetako urtea borobilduz. Izan ere, urte bikaina izan da Bertizentzako, Nafarroako txapeldun, Euskadiko txapeldun, Euskadiko Openeko txapeldun, Superprestigioko txapeldun, Udazkeneko Openeko txapeldun eta Espainiako txapelketan 8. postua lortu baitu. Zorionak!

MAIDER PETRREINA

Itxitura berriak Bidasoko Bide Berdean

Uraren bailarak, Baztan-Bidasoaldeko turismo erakundeak, segurtasuna hobetzeko helburuarekin bide berdean zehar itxitura berriak paratu ditu. Sunbillan, zehazki, Ondartziagan, Auloan eta Larrakaitzeko tunela ondoan jarri dituzte. Argazkian, Ondartziaga ondokoa ageri da.

UTZITAKOA

Lihar Lastiri gustura rallyetan

Denboraldiari bukaera emanez gustura akitu du Liher Lastiri Aranbarri piloto herritarrak Malerrekako V. Rallysprinta, Gorka Iribarren Gonzalez kopiloto lagun izan duela. Autoa aparkatu orduko, berriz ere gogoz dago hurrengo denboraldia ailegatzeko eta hango eta hemengo errepideetan aritzeko.



Gizonezkoen pala txapelketako pilotariak eta haurren jokuak. ARANTXA ITURRALDE

Festa herrikoia izan zuten hilaren 13an Beintza-Labaienen

Maite Arzuaga biologarekin txangoa, pala txapelketa, haurrentzako herri kirolak eta taloak izan zituzten

ARANTXA ITURRALDE

Beintzako Orbela aterpetxeak antolatuta, festa herrikoia ospatu zuten azaroaren 13an Beintza-Labaienen. Larunbat horretan, 15:00etan, Maite Arzuaga biologoaren gidaritzapean egindako paseo gidatuarekin hasi zuten egitaraua. Haur eta nagusi multzo polita bildu zen paseoan.

Ondotik, Beintzako frontoian gizonezkoen binakako pala txapelketa jokatu zuten. Lau bikotek hartu zuten parte eta Gasteizko Diego eta Iruñeko Victor izan ziren txapeldunak. Bigarren postuan geratu ziren Pello Telletxea eta Beñat Albisu. Parte hartu zuten bertze bi bikoteak Jon Otxandorena eta Fidel Bertiz eta Oscar Askunze eta Iñigo Estanga izan izen.

Eguna akitzeko haurrentzako herri kirolak izan zituzten eta taloak janez bukatu zuten festa.



UTZITAKOA

Elgorriagako bainuetxea onenen artean

El Economista komunikabideak estatuko 10 bainuetxe onenen sailkapena egin du, eta 10. postua lortu du Elgorriagakoak. Bainuetxearen ingurugiro erlaxagarria eta naturaz betea nabarmendu dituzte, lasaitasuna transmititzen duena. Uraren mineral kontzentrazio altua ere azpimarratu dute.

JAIONE ZABALO

Antzerkia eta hitzaldia Ezkurran

Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, Euskarabideak *Gora Gora Fest 2021* kultur zikloa antolatu du, hainbat jarduerekin. Azaroaren 6an, *Bi ero diskotekan* antzerkia izan zuten Ezkurrako ludotekan eta Aroa Noblek, Lañaide Leitzako neska* gazteen taldeko herriko kideak ere hitz egin zuen.

Nafarroako aizkora txapelketa nagusia Beintza-Labaienen

A. ITURRALDE

Herri kirol eta aizkorazaleek hitzordu garrantzitsua izanen dute abenduaren 12an Beintza-Labaienen, Nafarroako aizkora txapelketa nagusiaren finala jokatuko baita herrian, igande eguerdian. Xehetasun gehiago 81. orrialdean.

Triki-bertso afaria abenduaren 4ko Euskararen Egunean

JAIONE ZABALO

Ezkurrako udalak antolatuta, Euskararen Eguna ospatuko dute abenduaren 4an eta triki-bertso afaria antolatu dute, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Erreserbatzeko Barranka jatetxeko 948 61 50 98 telefonora deitu.

Ikastaroa adimen desgaitasuna duten pertsonentzat

Defentsa pertsonaleko ikastaroa izanen da azaroaren 27an kiroldegian. Aitzinetik izena eman behar da parte hartzeko

MARGA ERDOZAIN

Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatu dute Nafarroako Gobernuak eta Anfas elkarteak elkarlanean. Ikastaroa datorren larunbatean, azaroaren 27an izanen da Doneztebeko kiroldegian 10:30ean hasi eta 13:30ak arte.

Adimen desgaitasuna duten hamalau urtetik gorakoei zein beren senitartekoei zuzenduta dago ikastaroa, eta parte hartzaile bakoitzak senitarteko edo laguntzaile bat ikastarora berarekin eramateko aukera izanen du.

Nafarroako Gobernuak finantzatu du jardunaldia eta beraz, parte hartzaileentzat dohainik izanen da. Hori bai, parte hartzeko beharrezkoa izanen da aitzinetik izena ematea eta horretarako aski da *santi@anfasnavarra.org* helbidera mezu bat idaztea, edota 948 27 50 00 telefonora deitu eta Santiz galdetzea.

Arantxa Meca irakasle

Arantxa Meca Nafarroako Kirol Egokituen Federazioan Judoan irakasleak emanen du ikastaroa, eta hiru ordutan defentsa pertsonaleko oinarrizko kontzeptuak erakutsiko ditu. Eguneroko ohiko bizitzan arrisku-egoerak hautematen ikasiko dute, beren buruarengan konfiantza eta segurtasun handiagoa izaten, eta baita egoera jakin batzuen aurrean egoki erreakzionatzen ere. Gainera, estresa kontrolatzeko metodoak ere ikasiko dituzte parte hartzaileek. Edukiak horiek denak jokoen bidez landuko dituzte.

DONEZTEBEKO UDALA

Mugikortasuna hobetzeko lanak

Herriko mugikortasuna hobetzeko lanean ari da udala azken aldian. Pixkanaka karrikako pintaketa lanak egiten ari dira, eta seinalizazio berriak ere paratuko dituzte hemendik gutxira. Mourgues karrikan seinale berriak pintatu dituzte, eta hemendik aitzinera seinalizazio bertikalak kokatzen hasiko dira.

Salgai daude Errekako gabonetako saskiaren boletoak

Urtero bezala Erreka kirol elkarteak eguberrietako saski eder baten zozketa eginen du. Boletoak dagoeneko salgai daude herriko hainbat komertziotan, eta Errekako kirolariek ere salduko dituzte. Zozketa abenduaren 18an eginen dute 12:00etan Erreka Kirol Elkartearen egoitzan. Boletoekin ateratako dirua elkarteak urteroko jarduna finantzatzeko erabiliko du. Zozketatuko duten saskiak ondorengo sariak ditu barrenean: 150 euroko balea Doneztebarrak Merkatari eta Zerbitzu elkarteko saltokietan gastatzeko, 150 euroko balea erregaian gastatzeko, Roomba Robot xurgagailua, asteburu baterako ateraldia bi pertsonentzat, ordenagailu eramangarria, mendi bizikleta, telebista, bi pertsonarentzako otordua inguruko jatetxe berezi batean, hutsean ontziratzeko makina, Lacturale produktuen lotea eta ardoa, urdaiazpikoa, likoreak...

Saridunak hamabi eguneko epea izango du zozketak egiten denetik saria hartzera joateko.

Etxebizitzak zaharberritzeko ituna sinatu du udalak Nafarroako Gobernuarekin

Nafarroako Gobernuak eta Baztan, Bera, Doneztebe, Elgorriaga eta Lesakako udalek etxebizitzak zaharberritzeko hitzarmen bat sinatu zuten Bertizen.Horri esker, Nasuvinsak Donezteben kudeatzen duen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoko (EEZB) eta udal teknikariek dagoeneko lan egiten duten lankidetza-esparrua indartu ahal izanen da. Nafarroako Gobernuak lankidetza indartu du ELENA- Primavera birgaitze energetikoa erdiesteko proiektu europarrean sartutako inguruko udalekin.

Txapelketaz txapelketa segitzen du Maika Ariztegik

Euskal Herriko ingude txapelketan bigarren izan zen eta igande honetan Sherpa.ai aizkora txapelketako finalean aritzekoa zen

A. MINDEGIA

Maika Ariztegi azaroko bi asteburuetan Bizkaian aritu da lehian. Azaroaren 13an Mungian Euskal herriko ingude txapelketan aritu zen eta bigarren postuan sailkatu zen, Karmele Gisasola bizkaitarraren gibeletik. 95 altxaldi eman zizkion txapeldunak 10 kiloko ingudeari. Maikak, aldiz, bi guttiago, 93.

Sherpa.ai aizkora txapelketa nagusiko finalean ere parte hartzekoa zen igande honetan Bilbon, Karmele Gisasola berarekin eta Uxue Ansorregirekin batera. Hurrengo zenbakian emanen dugu emaitza.

Bertsolariak ere

Nafarroako Bertsolari Txapelketako azaroaren 27ko finalera sailkatu diren bertsolariak gogotsu ariko dira hitzordua prestatzen. Horien artean ez daude herriko bertsolariak, baina txapelketa bikaina egin dute denek. Berriozarren eta Leitzan zituzten finalaurreko saioetan bai Alazne Untxalok baita Iker Gorosterrazuk ere beraien maila erakutsi zuten, bertso bikainak botaz.

Guraso elkartearen eskutik egutegiak eta kamisetak

Eguberrietako bestarako egutegiak eta kamisetak martxan jarri ditu eskolako guraso elkarteak. Kamisetaren diseinuan eskolako 6.mailako ikasleek parte hartu dute eta beraiek egin dute marrazkia. Diru-iturri honekin urte osoan ekintzak antolatuko dituzte.

Kontsultategian administraria hasia da lanean

Azaroaren 8tik aitzinera ari da lanean administraria mediku-kontsultategian. Herritarrak ez ezik, Eratsun, Ezkurra eta Zubietakoak artatzeko lanak egiten ditu. Ordua hartzeko 948 45 05 20 telefonora deitu behar da, lehen zuten zenbakiak ez baitu funtzionatzen.

UTZITAKOA

Aurtizko bestak giro ederrean

Aurtizko San Martin bestak modu xumean ospatu dituzte aurten. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten gazteek, haur jokoak, motozerra erakusketa, gaztetxoen eta afizionatuen pilota partidak, mus, tortilla eta postre txapelketa… Imuntzo eta Belokiren kontzertuan gogotik dantzatu zuten denek.

UTZITAKOA

Pulunpa eskolakoak erakusketan

Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek lehen ateraldia egin zuten azaroaren 4an Iruñera, Juan Carlos Pikabea margolariaren eta Lesagibel eskultorearen *Bidaso, bida so* erakusketa ikustera. Eguna borobiltzeko Planetarioan *Amama Lur* izeneko tailerra izan zuten. Egun ederra pasatu zuten

Jubiloteka zerbitzua ematen hasi dira asteartero

Eskolako beheko solairuan biltzen hasi dira astearte honetan eta astero eginen dute saioa 16:00etatik 18:30era

FERMIN ETXEKOLONEA

Beste zenbait herritan aritzen den Ramoni Ordoki lesakarraren eskutik herrian ere jubiloteka zerbitzua eskaintzen hasi dira asteartero, 16:00etatik 18:30era eskolako beheko solairuan. Hain zuzen, astearte honetan, azaroak 23, izan dute lehen saioa. Astebete lehenago, azazaroaren 15ean izan zuten udal ordezkariek bilera eta bere garaian herrian izan zen zerbitzu hau berreskuratzea erabaki zuten. Nahi duen guziak, denborapasako jokoak eta ariketak egiteko aukera dauka

FELIX LOIARTE

Joaldunek ere Aimar Olaizolari agur

Zubieta, Ituren eta Aurtizko joaldunek ere ez zuten hutsik egin azaroaren 13an Goizuetan Aimar Olaizolari egin zitzaion agurrean. Joare soinuak hedatu zituzten frontoian pilotari handiaren azken partidaren ondotik eta berekin argazkia ateratzeko aukera ere ez zuten alferrik galdu.

Landarte programaren barrenean proiektua landu du Goldarazenak

F. ETXEKOLONEA

Landarteren bosgarren edizioa balantze «hagitz on» batekin akitu da, parte hartu duten eragile guztiek, sortzaileek zein lan egin duten komunitateek egindako balorazioen arabera, Kulturako Zuzendaritza Nagusiko Kultura Ekintzako Zerbitzuak - Vianako Printzea Erakundea, bultzatutako programa honen koordinazio-taldeak adierazi duenez, eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak ere parte hartu du. 2021ean sei artista eta kolektibok parte hartu dute Nafarroako BESTE hainbat herritan. Zubietan Katixa Goldarazena artista izan da. Zubietako tradizioan oinarritutako proiektu bat landu du, gorputzak bizitzan duen presentziari buruz gogoeta egiten duena. Artistak azaldu duenez, «gazte-talde bat gonbidatu dugu horri buruz hainbat saiotan pentsatzera, esperimentatzeko eta jolasteko, herriaren iraganeko uneak erakusten dizkiguten ikus-entzunezko erregistroen, argazkien eta idatzien artxibotik abiatuta».

UTZITAKOA

Piz&Lohi jaialdia egin dute berriz ere

Azaroaren 12an Olaiak (argazkian) eta Vetulinek emandako kontzertuekin abiatu zen Piz&Lohi jaialdiaren bigarren edizioa eta hilaren 13an beste hainbat talde aditzeko aukera izan zen estalpe inguruan. Ostiral gauean taloak eta larunbat eguerdian herri bazkaria ere izan zituzten gazteek.

En la vida,
como en el
deporte,
Bizitzan,
kirolean
bezala,
JUEGO LIMPIO_
_JOKO GARBIA
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Baztango Kirol Taldea jokalari gutirekin ari da

Senior taldean hamaika fitxa bertzerik ez ditu eta jubenil mailakoan hamahiru. Hortaz, elkarrekin entrenatzen dutela jakinarazi digu Raul Bartolomé entrenatzaileak

Jokalari nahiko biltzeko zenbait arazo izan ondotik, berriz ere lehian hasia da Baztango BKTko eskubaloi talde nagusia, Raul Bartolomé entrenatzaile irundarraren gidaritzapean. Jubenil mailako taldearekin ere ari da lanean Bartolome, Gurutze Aizpururekin batera eta jokalari gutti dituztenez, «bi taldeek elkarrekin entrenatzen dugu asteazken eta ortziraletan. Horrela pista bat aurrezten dugu eta entrenamentu onak egiteko jokalari aski ditugu, sei seiren kontra aritzeko, errate baterako. Bakoitza bere aldetik entrenatuko bagenu arazo gehiago izanen genituzke, Dinamika ona daukagu, neskek ongi entrenatzen dute eta arras kontent nago».

Jokalari eskasia da aurtengo arazo nagusia, baina klubean argi zuten taldea atera behar zela. Bartolomeren erranetan, «iaz 21-22 jokalari zeuden, baina aurten, arrazoi bategatik edo bertzeagatik, senior mailako 11 fitxa bertzerik ez ditugu. Hortaz, deialdietan beti jubenil mailako bizpahiru neska sartzen ditugu. Jubenil mailan 13 fitxa ditugu, iaz bezalatsu, eta denak arras konprometituak daude, entrenatzera zintzo etortzen dira eta hori garrantzitsua da».

Jokalari guti izan arren, emaitza onekin hasi da BKTko talde nagusia.
ARGAZKIA: BKT

SENIORRAK

Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Sara DORREGARAI OIEREGI	IRURITA
Maialen ITURBIDE LAZARO	ELIZONDO
Izaro DENDARIETA ESCUDERO	IRURITA
Hana IRISARRI URRUTIA	ELBETE
Nahia BAYLON URTASUN	IRURITA
Garazi INTZIARTE ARIZTEGI	ORONOZ
Leire ARRAZTOA ALEMAN	IRURITA
Nahia MITXELENA VAQUERO	ELIZONDO
Melanie TELLETXEA RIVAS	DONEZTEBE
Miren GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO
Entrenatzailea:	
Raul BARTOLOME	IRUN

Beraz, helburu nagusia, klubak aitzinera segitzea, lortzen ari dira aurten. Entrenatzaileak dioenez, «ez dugu liga honetako lau-bortz hilabetetarako epe laburreko helbururik jarri, datozen bizpahiru urteetan ekipoa mantentzeko helburua baizik. Gaur egun dugun talde hau elkarrekin mantentzen badugu, gauza politak egin daitezke hemendik urte batzuetara. Denok gure aldetik jartzen badugu, lortuko dugu. Jubenilen taldea izanen da talde seniorraren oinarria epe laburrean eta gibeletik bada segida polita: kadete mailako bi talde, infantil mailako bi talde eta alebin mailako bi talde ditugu. Denera ehun jokalari baino gehiago ari da klubean eta hori kopuru ederra da».

Helburua etorkizunerako zutabeak jartzea bada ere, liga hasiera ona egin dute seniorrek: «ahalik eta hobekien jokatzeko helburuarekin joaten gara entrenatzera eta gero, partidak, beti irabazteko asmoarekin jokatzen ditugu. Niretzako kirolaz gozatzeko modurik onena irabaztea da eta orain arteko partidetan, lan ona egin eta lortu dugu. Baina badakigu ez garela Barça eta konpetitzen dugunagatik konpetitzen dugu».

BAZTANGO KT **JUBENILAK**

Naia IRIARTE ARRIETA ARIZKUN
Cecilia ADIN URTASUN ELIZONDO
Haize OIARTZABAL AIZPURU IRURITA
Julene BAYLON URTASUN IRURITA
Marina ZABALA SARASOLA DONEZT.
Maialen BERTIZ ORBEGOZO ELIZONDO
Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN ARIZKUN
Andrea SAN MIGUEL GRANDE OIZ
Nahia GARAIKOETXEA LOBEIRAS BERROETA
Patricia DEL CAMPO PELLICER ELIZONDO
Valeria ADIN URTASUN ELIZONDO
Ainara DENDARIETA ELIZAINTZIN IRURITA
Ainara GOÑI ALMANDOZ ELIZONDO

Entrenatzaileak:
Gurutze AIZPURU ORONOZ
Raul BARTOLOME IRUN

Jubenil mailako neskak ongi ari dira, Gurutze Aizpururen eta Raul Bartolomeren gidaritzapean. BKT

BAZTANGO KT **KADETEAK A**

Ixiar ETXEBERE ETULAIN AMAIUR
Amaia GARATE APEZTEGIA ORONOZ
Leire MIHURA HABANS ELIZONDO
Maialen MARITXALAR POZUETA ORONOZ
Elixabet BAYLON URTASUN IRURITA
Amaia BALLARENA TELLETXEA ELIZONDO
Uxue ZABALETA ZAMORA ORONOZ
Maialen P.DE NANCLARES ETXABE ELIZONDO
Ane BARRENETXE BERTIZ ELIZONDO
Araitz ZABALETA ZAZPE IRURITA

Entrenatzaileak:
Enrique PETRIRENA BAQUERO ELIZONDO
Rafa MITXELENA MARITORENA ELIZONDO

Kadete A mailako taldeak Rafa Mitxelena eta Enrique Petrirena historikoak ditu prestatzaile.
AITOR AROTZENA

BAZTANGO KT **KADETEAK B**

Kadete B mailako taldeak Iñaki Uriarte eta Pali Garmendia beteranoak ditu gidari. BKT

Ane URREAGA ESKUDERO IRURITA
Naxara ALEMAN IRISARRI ELIZONDO
Uxue KORTEA IPARRAGIRRE ZIGA
Irati BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
Uxue BIKONDO GOÑI IRURITA
Miren ARRAZTOA GARBALENA GARTZAIN
Auza IPARRAGIRRE ITURZAETA ELIZONDO
Mikele JUBERA IDOATE LEKAROZ
Iraide ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
June URRUTIA ERIZE IRURITA
Elaia VAQUERO ALEMAN IRURITA
Maialen MIGELTORENA GASKUE BERROETA
Lur OIARTZABAL AIZPURU IRURITA
Eider ERASO ETXENIKE IRURITA
Aroa KORTARI MARQUEZ ORONOZ
Marina MENDIBURU OHARRIZ GARTZAIN

Entrenatzaileak:
Iñaki URIARTE BALLARENA ERRATZU
Pali GARMENDIA ARIZMENDI ELIZONDO

BAZTANGO KT **INFANTIL A**

Infantil A mailako taldea, Jone Uriarte entrenatzailearekin. BKT

Saioa PEROTXENA DANBORIENA IRURITA
Irati NEOL BURLADA ARIZKUN
Enara MINDEGIA ARGAIN IRURITA
Lorea LIZARDI MUGIKA ELIZONDO
Maddi LAZARO GARMENDIA ELIZONDO
Maialen BALLARENA RIPA ELIZONDO
Nora GALLEGO IZETA ELIZONDO
Onintza GOROSABEL IRISARRI ELIZONDO
Oihana GAMIO EUGI IRURITA
Naroa IPARRAGIRRE MEOKI ELIZONDO
Elisa ITURRALDE OLABE IRURITA
Ane MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE ARIZKUN
Iradi GAMIO JUANKORENA IRURITA
Iraia IRAZOKI LIZASOAIN ELIZONDO
Jasone BAYLON URTASUN IRURITA
Irati MEOKI BALLARENA ELIZONDO
Clara EGURROLA OLABE ELIZONDO
Aitziber BALLARENA TELLETXEA ELIZ.

Entrenatzailea:
Jone URIARTE JAIMERENA ERRATZU

BAZTANGO KT **INFANTIL B**

Infantil b mailako taldea, Izaro Dendarieta entrenatzailearekin. BKT

Ilazki IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU
Izaro YANCI IRIGOIEN GARTZAIN
Arantxa ETXEBERRIA ZABALETA ELIZONDO
Leire VIDES SAN JOSE ELIZONDO
Olaia AVILA DURAN ELIZONDO
Naroa ZABALETA ZAMORA ORONOZ
Kiara GUTIERREZ CALDERON ORONOZ
Ainara ZELAIETA ALEMAN ELIZONDO
Iraia IRAZOKI LIZASOAIN ELIZONDO
Izadi MIHURA HABANS ELIZONDO
Izaro GALLEGO IZETA ELIZONDO
Itziar ZIAURRIZ GOÑI ELIZONDO
Itsaso BALLARENA RIPA ELIZONDO
Saioa BIGURIA ETXABARRI ELIZONDO
June DENDARIETA ESKUDERO IRURITA

Entrenatzaileak:
Izaro DENDARIETA ESKUDERO IRURITA
Xanti DENDARIETA LUCAS ERRATZU

BAZTANGO KT **ALEBIN A**

Olatz GOÑI ELIZAINTZIN ELIZONDO
Ixone URRUTIA REY IRURITA
Aimar GALARREGI RIPA ELIZONDO
Maialen ZOCO ARGAIN IRURITA
Iratxe IBAÑEZ APEZETXE IRURITA
Izaro ITURREGI ZELAIETA ELIZONDO
Eiara ARREGI SANSIÑENA ELIZONDO
Ane ELIZAINTZIN LARRE IRURITA
Fernando ARRAZTOA GARBALENA GARTZAIN
Maitane ETXEBERRIA ESKUDERO ELIZONDO
Elorri R.LARRINAGA MARITORENA ANIZ
Ariane GARCIA SANSIÑENA ELBETE
Ainhoa GAMIO EUGI IRURITA
Ane ETXANDI DANBORIENA IRURITA

Entrenatzaileak:
Izaskun DANBORIENA AZPILKUETA
Izaskun AIZPURU ELIZONDO

BAZTANGO KT **ALEBIN B**

Izaro URRUTIA BRAÑA ELBETE
Jone ARRAZTOA ZIA IRURITA
Uxoa YANCI IRIGOIEN GARTZAIN
Laia ARRIADA LIZASOAIN ELIZONDO
Laia OBREGOZO SASERAS IRURITA
Nahia IBARGARAI SANTESTEBAN ERRATZU
Irati MITXELENA JUANABERRIA LEKAROZ
Irati GALARREGI RIPA ELIZONDO
Uxue IRIBARREN OTEIZA IRURITA
Izar MARITORENA ERROZ ANIZ
Garaxi ELIZALDE MENA ARIZKUN
Sara ETXANDI DANBORIENA IRURITA
Orbara ZABALETA FERNANDEZ ANIZ
Cloe GARDE PEROTXENA ELIZONDO
Nora URRUTIA ERIZE IRURITA
Peio PEROTXENA DANBORIENA IRURITA
June LABORRA ELIZEGI ELIZONDO
Katixa MURGIA LIZARDI ELIZONDO

Ent.: Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN ARIZKUN
Naia IRIARTE ARRIETA ARIZKUN

Erreka taldea lasaiago baina ongi hasi da ligan

Enaitz BALDA AGINAGA	BERA
Haroun SHELI KADI	BERA
Inar REYTEGI RICO	BERA
Adur AROZENA ELRIO	BERA
Oinatz AROZENA ELRIO	BERA
Aimar ALMANDOZ TAPIA	BERA
Damian POP VILLA	BERA
Markel HUIZI MATXIARENA	BERA
Unai AROSTEGI IRAZOKI	BERA
Matia ZUAZO REY	BERA
Beñat GOÑI ERRANDONEA	BERA
Xamal LAZKANO LASAGA	BERA
Peio TAPIA AGIRRE	BERA
Xan ZELAIETA ZELAIETA	BERA
Iker CAPDEQUI ZAPIRAIN	BERA
Angel TABERNA MARTINEZ	BERA
Ander URBISTONDO ALZUGURENBERA	
Entrenatzaileak: Hernan NUÑEZ	BERA
Andoni IRAZOKI	BERA

artatu

ONGIZATE ZENTROA

Oihana Elzaurdia Ariztia
Julen Errandonea Martin

· Fisioterapia.
· Erreadaptazioa.
· Prestaketa fisikoa.
· Coaching.

San Esteban 21 behea | BERA
633 78 83 23 | artatubera@gmail.com

Menditarrak-BRT taldeko seniorrak euskal ligako bigarren mailan ari dira. MENDITARRAK BRT

Berriz ere lehiara itzuli da Menditarrak-BRT

Euskal Ligako bigarren mailan bikain hasi da senior taldea eta Irungo eta Zarauzko taldeekin bat egin dute Baztan eta Ultzamako gazteek Itsasmendi BRT taldean

Urte eta erdi baino gehiago konpetitu gabe egon ondotik Euskal Ligako bigarren mailarako taldea plantatu du Menditarrak BRT taldeak. Ongi ekin dio gainera. Etxetik kanpo jokatutako lehen bi partidetan garaipen garbiak lortu zituen eta lider da hau idazterakoan.

Senior taldean 28 jokalari ditu eskura Iñaki Ezkurra entrenatzaileak eta helburua «taldea hazten joatea da, ongi pasatzea eta partidaz partida sailkapenak erranen digu lehen mailara igotzeko lehiatu gaitezkeen ala ez». Ezkurraren erranetan «talde arras gaztea da, baina konprometitua», beraz gogo handia dago talde honek gogor tira egin dezan «taldeak gutieneko egitura bat lor dezan, klubari segida emateko».

Gazteak Itsasmendi BRTn

Sub-18 taldean adin horretako Baztango eta Ultzamako bederatzi jokalari hasi dira. Euskal ligan lehiatu ahal izateko Txingudi Irun eta Zarautz Beltzak taldeekin bat egin dute, Itsasmendi BRT taldea osatuz. Hauek ere ongi hasi dira, baina helburua «hazten segitzea, ongi pasatzea eta proiektu honi bertze jokalariren bat gehitzea da».

Errugbi eskolari dagokionez, azaroaren 5ean berriz ere martxan hasi zen eta ortziralero biltzen dira Lekarozen 18:00etatik 19:30era. Aurten hiru alde sortu dituzte.

SENIORRAK

Aimar AROZENA MITXEO	ALMANDOZ
Alex SANTESTEBAN OPOKA	IRURITA
Ivan MUTILVA RUIZ DE AZUA	ANOTZIBAR
Ander OSKOZ GAGO	DONEZTEBE
Jokin BEIKA PAGAZAURTUNDUA	ARIZKUN
URKI NEOL BURLADA	ARIZKUN
Haritz URZAIZ CUARTERO	ELIZONDO
Fermin LARRALDE CORDOBA	ELIZONDO
Eneko FREIRE PEROTXENA	OLAGUE
Manex ETULAIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Unai AGINAGA ETXAMENDI	ELIZONDO
Julen LINZOAIN EUGI	IRAGI
Mikel GOROSTIDI JAIMERENA	ARIZKUN
Joseba MITXELENA LARZABAL	IRURITA
Joanes MOLINUEVO	ELBETE
Benjamin LANGE E	IRUÑEA
Jokin URREAGA ETXENIKE	ELBETE
Jokin MAIA DAGERRE	ELIZONDO
Aitor ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Iñaki IRAIZOZ PEREZ	ETSAIN
Eñaut BERISTAIN IRIARTE	ARIZKUN
Haize ARRIETA GONZALEZ	ELIZONDO
Josu MARTINEZ SAN JOSE	ELIZONDO
Ellande ALTZUGARAI ARIZTEGI	ELBETE
Beñat ARREGI ARRETXEA	ORONOZ
Andres PEREZ MTNEZ.	ELGORRIAGA
Iñigo LIZASOAIN UTERGA	ELIZONDO
Julen ANCIZU MERCKERP	LIZASO
Entrenatzailea:	
Iñaki EZKURRA OSAKAR	URRITZOLA
Laguntzaileak:	
Oscar VILLABONA ZENOZ	LATASA
J.Angel PEROTXENA URANGA	ELIZONDO

SUB-18 (BAZTANGOAK)

Aritz ARRAZTOA CARBAJO	IRURITA
Markel ADIN BIDEGAIN	ARIZKUN
Julen ARRIADA IRIGOIEN	AZPILKUETA
Asier EZKURRA ITURRALDE	URRITZOLA
Unai MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Alex IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN
Beñat NEOL BURLADA	ARIZKUN
Iñaki JUBERA IDOATE	LEKAROZ
Beñat VIELA MENA	IRURITA
Entrenatzaileak:	
Aitor MUTILVA RUIZ DE AZUA	ANOTZIBAR
Pedro EZKURRA OSAKAR	URRITZOLA

Itsasmendi BRT taldean bildu dira Baztan, Ultzama, Irun eta Zarauzko errugbilari gazteak. MENDITARRAK BRT

Nahi duzu...
Eraldatu?
Kudeatu?
Berritu?
Ekin?
Planifikatu?
Hazi?
Ikasi?
Sortu?
Merkatari izan nahi duzu?
MAITEREN ISTORIOA ERAGUTU.
Maite bezala, zu ere merkatari izan zaitezke, bisitatu merkataritza.nafarroa.eus eta lehen urratsa ematen lagunduko dizugu.
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

Arkupeak elkarteko mendizaleak Kartxela inguruan. PABLO IRASTORTZA

Lodosara ateraldia egin dute elkarteko 170 kidek

Azaroaren 4an eta 11n bi txandatan egin zuten urteroko irteera eta egun ederrak pasa zituzten eguraldi bikaina lagun

P. IRASTORTZA

Hemeretzi hilabetez inora atera ezinik egon ondoren, ahalik eta afera gehien errekuperatu nahi dira orain. Horretan saiatzen ari da Batzordea buru-belarri, ikusirik bazkideen mugimendu beharra eta gogoa. Lehenengo irteera, urrian, Benidormera egin zuten eta 100 lagun animatu ziren. Bigarrena, azaroaren 4an eta 11n Lodosara egin zuten 107 lagun joan ziren, eguraldi ederra lagun zutela bi egunetan. Urriaren 4an Malerrekako eta Leitzaldeko kideak joan ziren, eta 11n Baztangoak eta Bortzirietakoak.

Urteroko usadio bezala, Lodosako irteeran Perón janari etxea bisitatzeko parada izan zuten eta etxeko patroia den Jesusek hamaiketako goxo batekin ongi etorria eskaini zien bertaratutako denei. Kontserba lantegiaren funtzionamendua ere irakatsi zien nagusiak, eta ondotik bertako produktu goxoak erosteko aukera ere ez zuten alferrik galdu.

Eguerdian Larrión herrira abiatu ziren, hango Venta de Larrión jatetxean bazkaria egin eta 17:30ean etxe aldera abiatu ziren bueltan. Egun ederra pasa zuten.

P. IRASTORTZA

Kloti Iñigorentzat iraileko saria

Urriko galderan Jorde Oteizak Aita Donostia Nafarroako zein menditan eraiki zuen asmatu behar izan zuten parte hartzaileek. Oteizak Agiñan eraiki zuela asmatu dutenen artean zozketa egin ondotik, Iturengo Kloti Iñigo Ariztegi izan da irabazlea! Zorionak Kloti, eta gozatu saria!

Abenduko galdera

Zenbat urte bete zituen Iruñeko Orfeoiak 2020 urtean? ☎ 618 56 78 37.

Arkupeak elkartearen Eguberrietako loteria eskuratzeko azken egunak

P. IRASTORTZA

Hilabete eskas falta da abenduaren 22rako, eguberrietako loteriaren zozketa egunerako hain zuzen. Urtero bezala Arkupeak elkarteak ere badu bere zenbakia eta hala nahi duenak oraindik ere badu erosteko aukera.

Horretarako, Arkupeak elkarteak herriz herri dituen delegatuekin egotea aski da , beraiek arduratuko baitira loteriaren salmentaz.

Arkupeak elkartearen loteria erosi zutenek diru saria jaso zuten iaz, zenbakia saritua izan baitzen. Aurtengo loteriaren iragarkia Baztango lurretan grabatu da eta ziur zorte ona emanen duela horrek zozketan.

Argazkilaritza eta pintura lehiaketetako saridunak jakinarazi dituzte

P. IRASTORTZA

Urtero bezala burutu ditu Arkupeak elkarteak argazkilaritza eta pintura lehiaketak. Juan Carlos Pikabea pinturan, eta Ignacio Zalduak eta Iosu Inziartek argazkilaritzan osatu dute aurtengo epaimahaia. Argazkilaritzan lehen saria Oronozko Blanca Bertizek jaso du, bigarren saria, berriz, Oronozko Margarita Pecok.

Pinturan eta marrazkigintzan, aldiz, Doneztebeko Juan Jose Gonzalez izan da irabazlea, eta Oronozko Maria Puy Luquinek jaso du bigarren saria. Zorionak denei!



Argazkilaritza saria irabazi duen argazkia . BLANCA BERTIZ

Bertsolari txapelketako finala igandean Iruñean

Anaitasuna kiroldegian hasiko da 17:00etan eta eskualdeko bortz bertsolari arituko dira kantuan

Xabier Silveira eta Joanes Illarregi bertsolariak Leitzan. BERTSOZALE ELKARTEA

TTIPI-TTAPA

Altsasun, Berriozarren eta Leitzan jokatutako finalaurrekoen ondotik erabakita gelditu da 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean kantatuko duen zortzikotea. Beren saioak irabazita zuzenean sailkatu dira Iruñeko finalera Eneko Lazkoz Martinez (Etxarri-Aranatz), Julio Soto Ezkurdia (Gorriti). eta Joanes Illarregi Marzol (Leitza) bertsolariak. Puntuazioaren arabera, aldiz, Saioa Alkaiza Guallar (Iruñea), Josu Sanjurjo Altzuri (Lesaka), Xabat Illarregi Marzol (Leitza), Xabier Silveira Etxeberria (Lesaka) eta Eneko Fernandez Maritxalar (Lesaka). Alaitz Rekondo Ferrero eta Ander Aranburu Arriola izanen dira finaleko gai jartzaileak.

Aurpegi berriak izanen ditu igandeko finalak. Lehenengoz kantatuko dute Anaitasunako plazan Saioa Alkaiza Guallar eta Josu Sanjurjo Altzurik. Urte batzuz bertsolaritzatik aparte ibili ondotik, zazpi aldiz txapelketa irabazi duen Xabier Silveira Etxeberria ere sailakatu da finalera.

Estitxu Arozenak paratuko du txapela

Txapeldunari Estitxu Arozena Lesakako bertsolariak paratuko dio txapela. Urte anitzez bertso irakasle izateaz gain, 1995 eta 2003 artean Nafarroako Bertsolari Txapelketan kantatu zuen Arozenak eta bi aldiz irabazi zuen txapela, 1995ean eta 1998an. Lehenengo emakume txapelduna ere bada. Gisa honetan, bertsolaritzaren alde egindako lana eskertu nahi izan dio Nafarroako Bertsozale Elkarteak.

Azaroaren 28a, igandea, jokatuko da finala 17:00etan hasita Iruñeko Anaitasunan. Sarrerak lehenagotik salgai daude *www.bertsosarrerak.eus* helbidean. Finalaren egunean 15:00etan etengo da internet bidezko sarrera salmenta, eta orduan irekiko dute Anaitasunako txarteldegia. 15:30ean irekiko dituzte aretoko ateak.

Iñigo Elizegi, Goizuetako kooperatibako lehendakaria.

«Gauzak egiteko ilusioa mantendu eta indartu behar dugu»

IÑIGO ELIZEGI ERBITI GOIZUETAKO KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA

Goizuetari zerbitzu bat emateko helburuarekin, duela bost urte sortu zuten kooperatiba eta horren bitartez, gasolindegia. Bost urte beranduago, 199 bazkiderekin aurrera jarraitzen du zerbitzuak, ongi errotu den seinale

G. PIKABEA | GOIZUETA

«Herriko biztanleriaren jaitsierarekin eta zerbitzuen galerarekin» kezkatuta eman zuten lehenbiziko pausoa, eta «herritarrengan sortutako ilusio handiak» bultzatuta borobildu zuten auzolanean egindako bidea. Hutsetik hasi zuten proiektua, baina dagoeneko bost urteko ibilbidea egin du Goizuetako kooperatibak eta horrekin batera gasolindegiak. Momentu martxa onari eutsita, etorkizunean bide beretik jarraitu nahi dute, gasolindegiaz gain, herriarentzat onuragarri izan daitezkeen bestelako proiektuak baztertu gabe. Hasierako eta oraingo kontuez, eta etorkizuneko erronkez mintzatu da Iñigo Elizegi Erbiti (Goizueta, 1971) kooperatibako lehendakaria.

2016an sortu zenuten Goizuetako kooperatiba. Ordura arteko bidea nolakoa izan zen?

Frantzian kartzelan preso egon nintzenean, bisitetan eta komunikabideetan, herriak zer joera zuen ikusten nuen. Biztanleria jaisten eta zerbitzuak galtzen ari zen eta horren inguruan buruari buelta asko ematen nizkion, eta jendearekin ere askotan hitz egiten nuen. Bat-batean Frantziako herri ttiki batean, gure arazo bera zuten herri batean, gasolindegi bat irekitzeko kooperatiba bat sortu zutela ikusi nuen eta horren bueltan hasi ginen. Kartzelatik atera nintzenean taldetxo bat elkartu eta gasolindegi bat irekitzeko zein aukera egon zitezkeen jakiteko kalkuluak egiten hasi ginen. Aukerarik hoberena kooperatiba bat sortzea zela ikusi genuen eta horrela egin genuen.

Auzolanaren emaitza izan zen?

Bai, bai, guztiz, % 100ean auzolanean egindako proiektua izan zen.

Zenbateko aurrekontuarekin sortu zenuten?

Hutsetik hasi ginen, horrelako gasolindegi bat irekitzeko zenbat kostako litzatekeen jakiteko informazio bila. Hasteko bazkideei 90 eurona eskatu eta horrekin proiektua egin genuen. Proiektua eginda, gasolindegia egiteko aurrekontua 150.000 eurokoa izan zen. Aurretik egina geneukan bideragarritasun planarekin Elkargik mailegua bere gain hartu eta Laboral Kutxan mailegua eman ziguten.

Proiektuak hasieratik herritarren interesa piztu zuen. Espero zenuten?

Egia esan ez. Goizuetak 700 biztanle ditu eta lehenbiziko batzar informatiboa egin genuenean, 110 lagun azaldu ziren. Oso handia izan zen. Hor esan genuen proiektuak ez zuela atzera bueltarik, herritarrengan ikusmina eta gogoa sumatu genituen.

Hasieran, jendearen kezka nagusietako bat gaizki ateratzea zen...

Bai, gaizki aterako balitz bazkideek izanen luketen ardurak kezkatzen zuen jendea. Normala da. Baina azalpen guztiak emanda, gustura gelditu ziren, kezkak nahiko agudo uxatu ziren.

Bost urte hauek nolakoak izan dira?

Lehenbiziko urtea nahiko zaila izan zen. Hasieran, askotan gertatzen den bezala, obra guk nahi baino gehiago luzatu zen, eta martxan jarritakoan, arazo

bat edo beste izan genuen makineriarekin. Ez genuen zorte askorik izan. Baina gerora, oso ongi moldatu gara. Zorra ordaindu ahal izateko zenbat saldu beharko genukeen gutxieneko litro kopurua kalkulatu genuen, eta litro kopuru horretara erraz ailegatzen gara. Hilabetero-hilabetero, arazorik gabe, zorra ordaintzen jarraitzen dugu. Ez gara aberasten ari baina ongi doa.

Helburua ez zen hori, ezta?

Ez, ez, ezta pentsatu ere. Hasiera-hasieratik gure helburua zerbitzua ematea izan da. Argi genuen ez genuela espekulatuko, eta erosten genuen erregaiari gutxienekoa gehituko geniola, zorrak kitatu ahal izateko eta koltxoi bat izateko. Horregatik oso prezio onean dago erregaia.

Zenbateko kontsumoa duzue?

Hilabetean batez beste 24.000-25.000 litroko kontsumoa dugu.

Gaur egun nolako martxa duzue?

Martxa ona, gasolindegia ongi doa. Automatizatua da eta egunero 24 orduz irekia dago. Norberak bere txartelarekin har dezake, inon beharrik izan gabe. Bazkideek beste txartel bat daukate eta txartel horrekin merkexeago dute. Baina bazkideak ez direnak ere joan daitezke bankuko txartelarekin.

Nola osatua duzue zuzendaritza batzordea?

Sei gara, eta sorreratik nik bakarrik segitzen dut. Lau urtetik behin aldatzen dugu zuzendaritza, ez delako lan askorik izaten. Gaur egun, Luisi Loiarte, Bakartxo Uitzi, Jose Ramon Uitzi, Juan Jose Indakoetxea, Leire Alsua eta seiak gaude. Lanik gehiena gasolioa eta gasolina jaisten denean hori eskatzean izaten dugu, ahalik eta preziorik hoberenean eskatzea. Erne egon behar izaten dugu eta gainerakoan, beste intzidentziarik baldin bada ere bai, edo garbitu behar denean gauza bera.

165 bazkiderekin abiatu zenuten bidea. Gaur egun zenbat zarete?

Gaur egun 199 bazkide gara. Urtero ekainean bazkide berriak egiteko deialdia egiten dugu, orain arteko baldintzekin, hau da, 90 euroren truke, eta urtero bi edo hiru gehiago sartzen dira. 190 bazkide baino gehiago izanda kasik herri guztia sartua dago. Etxe guztietan badago bazkideren bat.

Itxialdiaren edo oro har pandemiaren eragina sumatu duzue?

Itxialdian, 15 egunez lantegiak itxita egon ziren, baina gero lantegiak berriz ireki zituztenean, jendeak gasolindegia erabiltzen jarraitu zuen. Diferentzia bakarra kanpoko jendeak ez zuela erabili izan zen. Herrikoek bakarrik erabilita ere, hilabete bukaeran zorra kitatzeko moduan egon gara eta horrek lasaitasuna ematen du.

Herriari zerbitzu bat emateko helburuarekin abiatu zenuten proiektua. Bestelako zerbitzuen beharrik ikusten duzu herrian?

Goizuetak duen biztanleria eta isolatua dagoela kontuan izanda, zerbitzu asko ditu. Gure arazoa ditugun gutxieneko zerbitzu horiek mantentzea da. Segur aski galdetuz gero edo ongi begiratuz gero, zein zerbitzuren beharra dagoen azalduko litzateke, edo daudenen artean zein hobetu edo mantendu behar diren. Urteak pasa ahala, jendeak hirietara joateko joera du, fabriketara lanera eta hirietara bizitzera, eta joera horri nola bueltan eman behar diogun asmatzea da gure erronka. Baina hori ez da Goizuetako arazoa bakarrik.

Nolako etorkizuna ikusten diozu kooperatibari?

Kotxe elektrikoaren kontua asko aipatzen da baina oraindik urte asko pasatuko dira gasolina eta gasolioa desagertu arte, eta gasolindegiak hor jarraituko du urte askotan. Kooperatibaren etorkizuna, berriz, guk kooperatibari eman nahi diogun lanaren araberakoa izanen da, hau da, gasolindegi bakarrarekin konforme gauden edo beste zerbitzuetan edo proiektuetan murgiltzen garen, horren araberakoa izanen da.

Eta herriari?

Errealistak izanda, epe motzean biztanleria oraindik jaitsi eginen da, eta guri dagokigu gehiegi jaitsi ez dadin lan egitea, eta ditugun zerbitzuak mantentzea, etorri nahi duten guztientzat hor egon daitezen eta aurrera begira herri bizi bat izaten jarrai dezagun.

Beste zerbitzurik baduzue buruan?

Argindarraren autokontsumoaren inguruan informazioa biltzen ari gara, eta kotxeak garbitzeko eta autokarabanentzako ur beltzak eta grisak deskargatzeko puntuak egiteko proiektuak ere buruan ditugu... Momentuz informazioa biltzen ari gara, zer egin dezakegun ikusteko.

Zein mezu luzatuko zenieke herritarrei?

Kooperatiba sortu eta gasolindegia ireki genuenean, herrian gauzak egin zitezkeela ikusi genuen eta ilusio handia sortu zen. Aspaldiko partez, gasolindegia ireki zen zerbait izan zen. Ilusio hori mantendu behar dugu, mantendu eta indartu. Jendea gauzak egitera eta parte hartzera animatuko nuke, ttikiak diruditen kontuak horrelako herri batentzat handiak izan daitezkeelako.

Aurrera begira, beste proiektu batzuk lantzeko informazioa biltzen ari dira.

«ZORRA KITATZEKO GUTXIENEKO KOPURURA ERRAZ AILEGATZEN GARA»

«PROIEKTUAK GARATZEKO INFORMAZIOA BILTZEN ARI GARA»

Azaroaren 25aren harira hainbat ekitaldi egunotan

Ostegunean elkarretaratzea eginen dute biribilgunean eta ostiraletik igandera ekitaldi gehiago izanen dira

TTIPI-TTAPA

Ostegunean, azaroaren 25a izaki, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanen da eta horren harira hainbat mobilizazio antolatu dituzte. Alde batetik, ostegunean, 19:00etan biribilgunean eginen duten elkarretaratzean parte hartzeko deia egin du Lañaide taldeak. Gizarte zerbitzuen mankomunitateak, berriz, egun horretan morez jantzi eta balkoiak morez apaintzeko deia egin dute.

Ostiralean, Lañaidek pintxo pote musikatua antolatu du gaztetxean. 19:00etan hasiko da.

Larunbatean, Mabel Lozanoren *Biografía del cadáver de una mujer* dokumentala ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan, 18:30ean. Hitzordua Lañaidek antolatu du.

2019ko azaroaren 25eko irudi bat.

Igandean, azkenik, udalak eta berdintasun batzordeak antolatuta, *Birritan bortxatua antzezlana* ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan, 19:00etan.

Hilabete honetan hasi da lanean Miren Tirapu kultur teknikaria

TTIPI-TTAPA

Hilabete honetan hasi da Miren Tirapu kultur teknikaria lanean eta udalak «laster» Herri Aretoan aurkezpen publikoa antolatuko dutela jakinarazi du.

Udalak uztailean egin zuen aldi baterako kultur teknikaria kontratatzeko deialdia. Jardunaldi erdiko lanpostua eskaini zuen eta hamar eskaera bildu zituen. Azerketa teorikoa eta praktikoa egiteko lehen hitzordura, ordea, bost hautagai aurkeztu ziren eta probak bi hautagaik gainditu zituzten. Azken ahozko proba eta tituluen balorazioa egin ondotik, Tirapu izan da puntuazio altuena lortu duena.

Bere eginkizun nagusia Herri Aretoko programazioa osatzea izanen da eta horrekin batera, herriko eragileei eta sortzaileei babesa emateaz eta koordinazio lanaz arduratuko da. Udaleko azpiegitura kulturalen eta herriko eskaintza kulturala zabaltzeko dirulaguntzen kudeaketa ere bere gain hartuko ditu. Nafarroako Antzerki Sarean herriko ordezkaria ere bera izanen da. Udalak Nafarroako Antzerki Sareko kide izateko eskaera bideratua du. Hain zuzen, horren parte izateko bete beharreko azken baldintza kultur teknikaria izatea zen.

Miren Tirapu. UDALAK UTZITAKO ARGAZKIA

Kultur teknikariaren bitartez, udalak beste zenbait saretan ere parte hartuko du, hala nola, KUNA Nafarroako Kultur Kudeatzaileen Sarean edo Udabiltzak bultzatuta sortutako Geuretik Sortuak proiektuan.

ARGAZKIAK: LEITZEKO KONTSUMO TALDEA. TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA

Eguraldi euritsua baina jende ugari azokan

Azaroaren 14an Amazabal pilotalekuan egin zuten Leitzako eta Aresoko produktuen azoka, LeitzEko kontsumo taldeak antolatuta. Kanpoan bertako haragi errea probatzeko aukera izan zen, taloarekin batera, eta aziendek ere beraien lekua izan zuten.

Elurra egitean A-15a itxko dute Gipuzkoan

A-15 autobidean Belabietako tuneletan estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko obrak egiten ari dira, eta elurra kentzeko kamioiekin trafiko desbideratzeetatik ibili ezin denez bi noranzkoetan autobidea ixteko erabakia hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 700 metrotik behera elurra iragartzen duenean Berastegi eta Andoain arteko bi galtzadak ibilgailu guztientzat itxiko dituzte. Ibilgailu arinek GI-2130 errepidea erabili ahal izanen dute, eta kamioiek N-1 errepidea edo Sakanako autobidea.

Batango presa botatzen aritu ziren lehengo astean. JUAN MARI BARRIOLA

Nafarroako Gobernuak Batango presa bota du

Udalak gorago dagoen Errezumeko presa ez botatzeko eskatu du, balio historikoa kontuan hartuz

JUAN MARI BARRIOLA

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuak bultzatuta, azken egun hauetan, Batango presa izenez ezaguna zen errekako harresia bota dute makina handi batekin.

Dirudienez Nafarroa osoan ari dira horrelako presak botatzen, erreketako faunari laguntzeko. Erasote auzoan zegoen aspalditik, eta ura jaso eta hainbat lantegi zahar hornitzen zituen ur-indarrez. Udalak, bere balio historikoa kontuan hartuz, zatiak uzteko eskatu zuen eta Errezumeko presa ez botatzeko ere eskatu du. Auzotarren artean pena eragin du presa botatzeak.

Jeiki abesbatzak kontzertua emanen du abenduaren 12an

Abenduaren 12an, Jeiki abesbatza Herri Aretoko oholtza gainera igoko da eta 12:00etan kontzertua emanen du. Hori baino lehen, agenda kontuekin segituz, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Adin Txikikoen Tratu Onen Sareak *Jolasa-jostailuak eta haurrak* tailerra antolatu dute azaroaren 30erako. Itzaire Haur Eskolan izanen da, 16:15etik 18:45era. 0-3 urte bitarteko haurrei eta guraso eta zaintzaileei bideratuta da eta doan da. Informazio gehiago gizarte zerbitzuetara deituta.

Oialde txokoa liburutegi bihurtzeko lanak

Udalak jakinarazi duenez, «liburutegi berria Oialden ezartzeko pausoak emateko lanean jarraitzen dugu». Hilabete honetan barrualdea husten eta txosten teknikoak egiten aritu dira. Dirulaguntza eskatu eta «finantzaketa nahikoa lortzen dugunean, obraren esleipena martxan» jartzeko asmoa du.

Ostegunean elkarretaratzea eginen dute

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna denez, 19:00etan elkarretaratzea eginen dute eta ondoren pintxo potea

TTIPI-TTAPA

Egun seinalatua da azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Nazioarteko Eguna. Eta hori gogoan, ostegunean, elkarretaratzea eginen dute. Herritarrei 19:00etan biltzeko deia egin diete eta horren ondoren, pintxo potea eginen dute.

Indarkeria Matxistaren Egunaren harira, larunbatean, azaroaren 27an, beste ekitaldi bat antolatu du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun batzordeak. 18:00etan hasita, *Zauriak* dokumentala ikusteko aukera izanen da.

OHIANA KALPARSORO

Sanmartinak giro ederrean

Azaroaren 13an Unai eta Eñaut Agirre bertsolariekin eta Imanol Kamio musikariarekin bertso zahar musikatuak izan zituzten herritarrek. Ekitaldian jatekoa eta edatekoa ere banatu zuten eta giro goxo eta atsegina sortu zen. Pilota partida, ordea, eguraldi txarragatik atzeratu behar izan zuten.

Larunbateko Feri Egunak borobilduko du azaro kulturala

XVII. azienda, artisau eta nekazari feria izanen da aurtengoa eta bazkarirako txartelak osteguna baino lehen eros daitezke

TTIPI-TTAPA

Kultur ekitaldiz ongi hornitutako hilabetea izaten ari da aurtengoa, eta behar bezala, borobiltzeko Feri Eguna izanen da larunbatean, hilaren 27an.

Iazko geldialdiaren ondoren, aurtengoa azienda, artisau eta nekazari feriaren XVII. edizioa izanen da eta egun osoko festa prestatu du feri batzordeak.

10:00etan zabalduko dituzte azokako postuak eta ordu horretatik aurrera aziendak ikusteko aukera ere izanen da. Posturen bat jarri nahi izanez gero, azaroaren 17an bukatzekoa zen izena emateko epea. Lerro hauek idazterakoan herriko eta kanpoko hainbatek adierazia zuten parte hartzeko interesa.

12:30ean toka txapelketa hasiko da eta 14:30ean herri bazkaria eginen dute frontoian. Jateko bertako babarrunak, betizu gisatua eta postrea prestatuko dituzte.

Giroa ziurtatua izanen da, eta horretan Igandea txarangak lagunduko du. Normalean festetako gonbidatua izaten den txarangak egun osoan joko du.

Bestalde, feri batzordeak larunbatean baserritarrez jantzita joateko deia egin du.

Bazkarirako txartelak

Feri Eguneko herri bazkariko txartelak Amaia kafetegian eta estankoan eros daitezke.

Helduen txartelak 21 euro balio du, gazte eta langabeenak 18 euro, 9 eta 16 urte bitartekoenak hamar euro eta 8 urtez beherakoek dohainik dute. Ostegun hau, azaroaren 25a, izanen da txartelak erosteko azken eguna.

Larreak erretzeko eskaerak urtarrilaren 31ra arte

Mendiko larreak erre nahi dituztenek urtarrilaren 31rako aurkeztu beharko dituzte agiriak. Hala jakinarazi du udalak. Alde batetik, baimen eskaera aurkeztu beharko dute, izenabizenak, helbidea, telefonoa eta sinadurarekin. Horrekin batera, terrenoaren eskritura osoaren kopia eraman beharko dute. Eskaera egiten duenak eskrituran agertzen dena izan beharko du. Azkenik, planoaren kopia eskatuko dute, lekua markatuta eta katastroko erreferentziarekin. Eskaera udal bulegoan egin beharko da.

Ostiralean bakarrizketa Antton Telleriarekin

Feri Eguna ez da egun hauetako hitzordu bakarra izanen. Ostiralean, azaroaren 26an, Antton Telleriak *Nekatutak* bakarrizketa saioa emanen du udaletxeko ganbaran. 18:30ean hasiko da eta txartelak estankoan eros daitezke, bost eurotan.

Indarkeria Matxistaren Egunean kalejira

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Azaroaren 17an, gizarte zerbitzuen mankomunitateak antolatuta, emakumeen kontrako indarkeriari buruz hitzaldia egitekoa zuten Emagin elkartearekin. Hilaren 21ean, bestalde, gizarte zerbitzuen eta emakume taldearen eskutik, *Zauriak* dokumentala ikusgai jartzekoa zuten. Ostegunean, azkenik, azaroaren 25ean, kalejira antolatu du emakume taldeak. 18:30ean hasiko da. Egun horretan morez janzteko eta balkoiak morez apaintzeko deia egin dute.

2019ko kalejiran hartutako irudi bat.

FELIX LOIARTE

Umore Onako Atalen Eguna giro ederrean

Aurreko urteetan baino ekitaldi gutxiagorekin izan bazen ere, Umore Onak Atalen Eguna antolatu zuen azaroaren 6an. Goizean, pilota eskolako kideak frontoian aritu ziren. Arratsaldean, plazan, dantza taldeak emanaldi berezia egin zuen abesbatzaren laguntzarekin. Eguna borobiltzeko, pintxoak izan zituzten Xalto eskolako aterpean.

Bere azken gantxoa herrian egin du Aimar Olaizolak

42 urte bete dituen egunean eta bere azken partidaren ondoren, omenaldi beroa egin diote herritarrek

TTIPI-TTAPA

«Amestutakoa baino hobea eta politagoa. Lehen zorra nuen herriarekin eta orain igual zor handiagoarekin geldituko naiz». Halaxe, «oso pozik», mintzatu zen Aimar Olaizola herriko pilotari handia azaroaren 13an sorterrian egindako omenaldiaren ondoren.

Azken partida etxean jokatzeak sortzen zion «betiko ilusioa» betez, eta nola ez, maila polita emanez, profesionaletako azken partida jokatu zuen bere 42. urtebetetzearen egunean. Imazekin bikote eginez, 22-14 irabazi zien Jaka eta Aretxabaletari. Ezin zitekeen bestela, ezker gantxo batekin borobildu zuen bere 23 urteko ibilbide profesionala, 1.300 partida baino gehiago jokatu ondoren. 15 txapel ofizial jantzi ditu.

Omenaldi hunkigarria

Partidaren ondotik omenaldi beroa eta hunkigarria eskaini zioten herritarrek. Ainhoa Zabaletak egin zituen aurkezle lanak eta Umore Ona pilota eskolak, dantza taldeak, abesbatzak eta elkarteak, udalak, Ituren, Zubieta eta Aurtizko joaldunek, herriko mozorroek, Gontzal Mendibil abeslariak, kuadrillak, Fermin eta Josetxok, Maren eta Amets ilobek, sarrandarrek, etxekoek... Modu batera edo bestera, denek egin nahi izan zioten oparia.

Olaizola II.ak, berriz, denei eskerrak emanez hartu zuen hitza eta berriki hildako Josu Apezetxea laguna ere gogoan izan zuen. Hain zuzen, «azkeneko txalo zaparrada Josuri eta Goizuetako herriari» eskaini nahi izan zion.

Mozorro taldeak dantzan jarri zuen Olaizola. F. LOIARTE

Kuadrillakoen eskuetatik ere oparia hartu zuen. F. LOIARTE

Udalak ere oroigarria eman zion. Argazkian, Unai Miranda alkatearekin. F. LOIARTE

Aimar Olaizola etxekoekin. FELIX LOIARTE

Umore Ona elkarteak egindako opariarekin, Goia eta Lekuonarekin. F. LOIARTE

Euskararen egunerako hainbat ekitaldi prest

Azaroaren 29tik abenduaren 3ra bitarte euskararekin lotutako ekitaldiak antolatu nahi dituzte

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 3a ospakizun eguna izan ohi da Areson eta aurten ere asmo horretan dira herritarrak. Azaroaren 15ean egin zuten festa batzordeko bilera eta, denen artean, egun osoko egitarau polita osatzen ari dira.

Goizean, festa giroko kalejira bat egingo dute, musikariekin, erraldoi eta buruhaundiekin... eta herriko eragile desberdinei bertan parte hartzeko gonbidapena ere egin nahi diete beraien aldarrikapenak kaleratu ditzaten. Gainera, festa giroaren seinale, gonak, atorrak, txapelak eta zapiak armairutik atera eta baserritarrez janztera animatu nahi dituzte herritarrak. Kalejira bukaeran ekitaldia egingo dute eta ondoren hamaiketakoa izango da plaza zaharrean.

Arratsaldean segida izango du festak. Herriko dantzarien emanaldia izango da, segidan euskarazko abestiekin dantzan eta kantuan aritzeko aukera eta indarrak hartzeko txokolate beroa banatuko dute.

Kalejira egingo dute aurten ere.

Iluntzean afaria egingo dute trinketean eta afalondoan musika izango da.

Astean zehar ekitaldiak

Euskararen egunari aurre hartu eta girotzen joateko, hainbat ekitaldi antolatzeko proposamena ere egin zuten. UEMAk antolatutako hitzaldia, dokumental baten proiekzioa eta haurrentzako emanaldi bat prestatzen ari dira.

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean ekitaldiak izango dira

TTIPI-TTAPA ARESO

Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna da eta horri lotuta ekitaldiak izango dira herrian.

Zauriak dokumentala ikusteko aukera izango dute 17:00etatik aurrera Udaletxean biltzen direnek. Eromena eta osasun mentala ikuspegi feministaz batetik lantzen duen dokumentala da *Zauriak*. Sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen ditu bederatzi emakumeri ahotsa emanaz. Ondoren, 19:00ak aldera plaza zaharrean kontzentrazioa egingo dute. Aurreko urteetan Leitzan bildu izan dira aresoar zein leitzarrak, baina aurten bilkura herrian bertan egin nahi izan dute.

'Zauriak' dokumentaleko irudia.

UTZITAKOA

Zapatisten bisita

Mexikoko zapatisten mugimenduko kideak Europan zehar egiten ari diren bidaian geldialdia egin zuten Areson. Festa giroan egin zieten ongietorria eta bertakoentzat zein bisitarientzat aberatsa izan zen oso bilkura. Ez zuten galtzen utzi ideiak, bizipenak... elkartrukatzeko aukera.

Panpanoziri aldizkariaren zenbaki berria

Bateko eta besteko kontuak bildu, argazki zaharrak lortu eta berriak atera...mimoz aritu dira lanean Panpanoziri aldizkaria osatzen duten lantaldeko kideak. Laster jasoko duzue etxean eta ea zuen gustukoa izaten den emaitza. On egin!

Eskolako jardunaldia hautatzeko bozketa

Jardunaldi jarraiarekin segi edo ez erabakitzeko aukera izango dute Nazabal Eskolako gurasoek abenduaren 1ean. Errolda osoko hiru bostenek baiezko botoa ematen badute neurria indarrean egongo da urtarriletik aurrera eta 2022-2023 ikasturterako.

Guraso elkarteko Eguberrietako boletoak salgai

Guraso elkarteak Eguberrietako saski ederra prestatu du aurten ere: Errigorako saskiko produktuak, herriko ekoizleek emandakoak... Azken urtetan bezala, Sastinean jarri dute ikusgai. Euro baten truke eskuratu daitezke zozketan parte hartzeko boletoak.

Birziklatu gehiago. Hobeki. Beti

Ekonomia zirkularrean, birziklatzen duzunean, hondakinak baliabide berri bihurtzen dituzu. Birziklatu kartoizko eta paperezko ontziak edukiontzi urdinean.

Baztango Udala
www.baztan.eus

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea
www.bortziriakzabor.com

Malerrekako Mankomunitatea
www.malerrekakomankomunitatea.eus

ecoembes
El poder de la colaboración

Hainbat ekitaldi azaroaren 25era begira

Antzerkiak, mobilizazioak eta elkarretaratzeak Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu azaroan berdintasunaren alde. Lehenbizikoa azaroaren 4an trans pertsonei buruz egindako mahai-ingurua izan zen. Azaroaren 21ean berriz, *Esnatu Naiz* kabareta izan zen Iruritako Gizarte Bilgunean, Kultura Batzordeak antolatua

Azaroaren 4an egindako mahai-ingurua

Indarkeria matxistaren aurka

Azaroaren 25ean, Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea eginen dute Elizondon, Berdintasun Zerbitzuak antolatua. Herriko plazan izanen da 12:00etan, eta jendea bertaratzera animatu dute Berdintasun Batzordetik elkartasuna adierazteko. Honez gain, eragile feministek mobilizazio bat antolatu dute 19:00etan, Elizondoko plazatik abiatuko dena. Gainera, egun horretan Lekarozko institutuan berdintasunari buruz kontzientziatzeko ekintzak eginen dituzte gazteekin, Burrunba Morea taldearen eskutik.

Akitzeko, azaroaren 26an, 19:00etan, *Bi ero diskotekan* antzerkia izanen da Gizarte Bilgunean, Euskarabideak eta Euskara Zerbitzuak antolatua.

Jangela bueltan da Gartzaingo eskolan

TTIPI-TTAPA

Jangela zerbitzua martxan paratu dute berriz ere, koronabirusaren ondorioz bertan behera gelditu ondotik. Bizitasuna nabaritzen da berriz herrian, haurrak arratsaldetan eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte eta kanpoan jostatzen gelditzen dira gero.

Baztango Udalaz gain, hainbat eragilek parte hartu zuten mintegian. UTZITAKOAK

Landa Ingurunearen Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Guneaz aritu dira

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak antolatua, 40 lagunek parte hartu zuten Lekarozko Campuseko elizan egoitza izanen lukeen Landa Ingurunearen Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Guneari buruz gogoeta egiteko. Azaroaren 6an egin zuten mintegia Campuseko harreman-arteko eraikinean.

Hainbat eragilek parte hartu zuten saioan, haien artean NUPeko, EHUko eta Pau-Adour unibertsitateko ikerlariek. Bertan izan zen Izaskun Goñi, gobernuko Enpresa Politika, Nazioarteratze eta Lanaren zuzendari nagusia, eta Joseba Otondo alkateak aurkeztu zuen saioa. Nasuvinsak lagundu zuen jardunaldian.

Gune berrian lanean

Egitasmoaren ildo nagusiei buruzko aurkezpenarekin hasi zuten saioa. Gero, iritzi eta ekarpenak aztertu eta biltzeko unea izan zuten. Elizaren kanpoaldea ikusi ondotik, proiektuaren garapenari buruz aritu ziren. Egitasmoarekin aitzinerat egiteko laneko mahaiak antolatu zituzten; erakundeena, akademikoa eta lurralde-harremanena. Baztango produktuen dastaketarekin akitu zuten saioa.

BRIKO LIMPIEZA, SL
MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...
konfidantzazko zerbitzua
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Hainbat emakume baserritar bildu ziren Elizondon. BAZTANGO BERDINTASUN ZERBITZUA

Landa-guneko emakumeekin bildu da Baztango Berdintasun Batzordea

BERDINTASUN ZERBITZUA

Baztango herrietatik etorritako hainbat emakume elkartu ginen azaroaren 10ean Arizkunenean, lurrarekin harremana duten emakumeen beharrak identifikatzeko.

Baztango Udala I. Berdintasun Plana ebaluatzen ari da Elhuyarrekin batera. Lanketa horretatik abiatuta bide-orria zehaztuko da, eta hori hurrengo urteetarako plangintza osatzeko erabiliko da.

Ez da lehenbiziko bilera izan, dagoeneko emakume migratuekin eta hainbat sektoretan lanean dabiltzan emakumeekin bildu gara, baita udaleko teknikari eta politikariekin ere. Oraingoan ere, emakumeen saretzearen eta ahalduntzearen beharraz solastatu gara.

Nabarmentzekoa da belaunaldi-erreleboa dela emakume nekazariek duten kezka garrantzitsuenetako bat. Emakumeek baserrietan egin izan duten lana ikusezina izan da, eta horrek pobrezia arriskuan eragin zuzena du. Ogibide honetan aritzeko arazo andana dituzte: kotizatzeko zailtasunak, pentsio baxuak, ekoitzitakoaren prezio baxuak… Honez gain, baserriak iraun badu familien arteko transmisioari esker izan da, beraz nola sartzen ahal da ogibide horretan baserri familiarik ez duena? Zentzu horretan baserritar berriek aukera gutiago dituzte. Zer erranik ez baserritar gazteak eta emakumeak badira.

Rol eta estereotipo aunitz dauzkagu hausteko, ez soilik emakume eta gizonen berdintasuna sustatu nahi bada, baita baserrien biziraupena ziurtatu nahi bada ere.

Larunbatean afaria egin zuten elkartean Santxotenak alaitua. MAIALEN IANTZI

San Martinetako seinale gisa hainbat ekitaldi egin dituzte Berroetan

MAIALEN IANTZI

Lehen San Martinetan egiten ziren herriko bestak, baino eguraldi txarra zela eta dataz aldatu ziren aspaldi. Hala ere, seinalerik ez da falta izaten. San Martin egunean herriko helduenek bazkaria egin zuten elkartean.

Larunbatean, auzolana egin zuten goizean, eta arratsaldean haurren txanda izan zen. Herriko neska batek egin zuen gradu amaierako lanetik abiatuta, gure aitatxi eta amatxiek egiten zituzten jolasak erakutsi zitzaizkien; atxenka, salto motxa, akandreak... ederki pasa zuten! Gero, txokolate beroa edan zuten. Ekitaldiak borobiltzeko, Santxotenak alaiturik, afaria izan zen elkartean. Herritar ugari elkartu ziren dantzatzeko eta kantatzeko!

Bertso afaria eginen dute Iruritan abenduaren 18an

Iruritako gazteek bertso afaria antolatu dute Gizarte Bilgunean abenduaren 18an 21:00etan. Julio Soto eta Iker Zubeldia izanen dira bertan kantari. Txartelak salgai daude 30 euroren truke Gizarte Bilguneko tabernan.

(H)ilbeltzaren solasaldia azaroaren 26an

(H)ilbeltzako ekitaldien barnean, *Film Noir-en zirrikituak: Generoa, sexualitatea eta desioa* solasaldia emanen du Leire Ituarte EHUko irakasleak. Arizkunenean 19:00etan bilduko dira zine beltzari eta generoari buruz hausnartzeko.

«Alkatetza niretako ikasketa prozesu bat izaten ari da»

CARLOS GARAIKOETXEA ELSO BERROETAKO ALKATEA

Hirugarren agintaldia du aurtengoa Carlos Garaikoetxeak Berroetan, eta herrian orain arte egindako aldaketei eta etorkizunerako asmoei buruz aritu da Ttipi-Ttapa rekin

R. OSKARIZ

Hirugarren agintaldi du aurtengoa Carlos Garaikoetxeak Berroetako alkatetzan. «Gustura nago eta beti izaten dut buruan hobetu behar den zerbait. Alkatetza niretako ere ikasketa prozesu bat izaten ari da».

Lanen banaketa

Hainbat zeregin ditu alkateak, haien artean, «herrikoek egiten dituzten eskaerei erantzutea eta hobekuntzak egiteko proposatzen dituzten ideiak biltzea». Herritarren eta udalaren arteko bitartekaritza lanak ere egin behar ditu, eta Batzar Nagusian parte hartu; «horrek bilerak, jardunaldiak eta abar egitea eskatzen du». Horrez gain, «herriko gauza garrantzitsuak erabakitzeko batzarrak egiten ditugu eta auzolanetarako deialdiak ere bai».

Baina lan guztiak ez dira alkatearenak, «Amalur, Mikel eta Iñaki kargudunak uraren aferaz arduratzen dira, kontadoreak kontrolatzeaz, fakturazioak egiteaz eta iturriak garbi mantentzeaz». Bertzelako kontuak «denon artean» egiten dituzte; bestak, aste kulturala, mendi lasterketa… «Baina gazteak dira gehien mugitzen direnak. Zorionez, jendea beti egoten da gauzak egiteko prest».

Batzuetan desadostasunak edo gaizki ulertuak sortzen badira ere, «garrantzitsua da solastatzea, baina aktiboki, hau da, bertzeen iritziak ulertzen saiatuz».

Etorkizun «ezin hobea» ikusten dio Carlos Garaikoetxeak Berroetari.

«ZORIONEZ, HEMEN JENDEA BETI EGOTEN DA GAUZAK EGITEKO PREST»

«HERRIA BIZIRIK DAGO ETA GAZTEEK HEMEN GELDITZEKO ASMOA DUTE»

Herria hobetzea helburu

Karguan hasi zenetik, hainbat aldaketa egin dituzte herrian; «herriko plaza kotxez beteta egoten zen, eta lortu genuen aparkaleku bat egitea. Plaza ederra gelditu zaigu geroztik». Bertzetik, herriko asketan pultsadoreak zituzten, «eta barneko ura usteltzen hasia zen». Hori konpontzeko, ur deposituaren soberazko ura tratatu gabe eraman zuten, «eta orain ur garbia dugu asketan, eta arras ona gainera, klororik gabe». Herriko zenbait pista hormigoitu dituzte, «eta hauez gain, betiko gauzak antolatu ditugu; bestak, inauteriak… Aipatzekoa da hau dena beti auzolanean egiten dugula».

Etorkizunera begira

Herrian hainbat behar ikusten ditu Garaikoetxeak; «frontoia ongi ixtea, baserrietara joaten diren bide batzuk hormigoitzea, birziklapena hobetzea eta ekintza kultural gehiago egitea, adibidez». Baditu bertze hainbat kezka, hala nola, «gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea, jakinda arras zaila dela eta ez dagoela gure esku», edota «komunitate energetiko bat sortzea herrian».

Nafarroakoa iparraldeko bertze herrietan bezala, «neurri handiko etxe zaharrak hutsik gelditzen ari dira, arras konplexuak eta garestiak baitira birgaitzeko. Vianako Printzea Erakundearen, Nafarroako Gobernuaren eta udalen arteko ekintza bateratua behar da arazo horri irtenbidea emateko, bertzenaz, azkenean, herrietako etxe zaharrak galduko dira».

Hala eta guztiz ere, etorkizun «ezin hobea» ikusten dio Garaikoetxeak Berroetari; «herria bizi bizirik dago, ume dezente sortu dira azkeneko boladan eta gazteek hemen gelditzeko asmoa dute».

«Erantzukizun sozialeko erakunde» izendatu dute udala

Gizarte Ekonomian egindako lanarengatik saritu dute Baztango Udala

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gizarte Eskubideen Departamentua eta Baztango Udala sarituak izan dira «erantzukizun sozialeko erakundeak» izateagatik. Juan Cruz Arguiñariz EINAko (Nafarroako Gizarteratzeko Enpresak) lehendakariak eta Javier Jimeno CEISNA (Gizarte-Ekimeneko Enpleguen Zentro Berezia) erakundeko ordezkariak banatu zituzten sariak azaroaren 9an.

Joseba Otondok bildu zuen saria.

Legeak gutienez % 6ko erreserba ezartzen du gizarteratzeko enpresetako eta enpleguen zentro berezietako langileak kontratatzeko. Hau nabarmen gainditu izana eskertu diote Baztango Udalari. Izan ere, Baztango lizitazioei dagokionez, 1,27 milioi eurokoa izan da azken jardunaldian, hau da, %28ko erreserbakoa.

Kontratu motari dagokionez, lorezaintza izan da lanbide nagusia, kontratuen %40arekin. Garraioa eta logistika izan dira bigarren, %15,54arekin. Ondotik, garbiketa, mantentze-lanak, igeltserotza, publizitatea eta catering sektoreko lanak izan dira ugarienak.

Nafarroa Europako eredu

Gizarte Eskubideen kontseilaria den Carmen Maeztuk Nafarroako Gizarte Ekonomiaren garrantzia nabarmendu zuen. Gaur egun 1.250 enpresa biltzen ditu, 2.400 milioi euro fakturatzen dituztenak eta 20.000 pertsona ingururi lana ematen diotenak, enplegu pribatuaren %8,5a. Horregatik, Nafarroa gai honetan «Europako erreferentziazko eskualdea» dela adierazi zuen, «neurrien ezarpen, emaitza eta berrikuntzarengatik, baita politika publikoan Gizarte Ekonomiaren alde egindako lanarengatik ere».

Gaztainak egosi eta magdalenak prestatu dituzte Oronozko Eskolan. UTZITAKOAK

Ikasturte hasierako batzarra eta sukaldaritza tailerra Oronozko Eskolan

TTIPI-TTAPA

Ederki hasi dute aurtengo ikasturtea Oronozko Eskolan. Urriaren 20aren goizean, lehenagotik bildu zituzten gaztainak egosi zituzten handien gelakoek eta koxkorren gelakoak eltzea zaintzeaz arduratu ziren. 12:00etan ikasle guztiak elkartu ziren ikasturte hasierako batzarra egiteko eta akitzean gaztain goxoak banatu zituzten denen artean.

Honez gain, proiektu berri bat martxan paratu dute kurtso honetarako. Hainbat ekintza eginen dituzte, haien artean sukaldaritza tailerra. Ingeleseko saioan, erraterako, txokolatezko «magdalena beldurgarriak» prestatu zituzten ikasleek.

Duela bi urteko Anizko asteburu kulturalaren irudia. MAITANE MARITORENA

Asteburu kulturala eginen dute Anizen abenduaren 3an eta 4an

MAITANE MARITORENA

Hondar urteetan egin ohi den bezala, abenduaren 3an eta 4an asteburu kulturala izanen dute Anizen.

Juan Anjel Perotxena artista baztandarrak mural bat egin zuen Anizen eta muralaren nondik norakoak azaltzera etorriko da **abenduaren 3an**, 16:00etan. Azalpenen ondotik krepe ikastaroa emanen dute haurrek elkartean. Oihan eta Leize arituko dira irakasle lanetan eta gainerakoak ikasten. Krepeak egin eta jan ondotik, orain dela bi urte bezala *fotourrupe* izanen dute, erran nahi baita, aitzineko urteetako argazki emanaldia eta hainbat edariren dastaketa.

Abenduaren 4an, larunbatean, 10:30ean mendi itzulia eginen dute Aizkorat. Hango bidean dauden parajeetan zurean zizelkatutako izenak paratuko dituzte. Bazkalondoan frontoian herritarren arteko jolasak izanen dituzte, eta gauean bertso afaria Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazurekin. Sarrerak 25 eurotan egonen dira salgai, edozein aniztarri erranda aski da txartela erosteko.

Turismoaren antolaketari buruzko mintzaldia Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango EH Bilduk antolatua, Daniel Oltzomendi Euskal Hiriguneko turismo iraunkorreko arduradunak eman zuen solasaldia azaroaren 11n Arizkunenean. Ipar Euskal Herriko esperientziaz aritu zen, turismo iraunkorra bultzatzeko turismoa gainerako politika publikoekin gurutzaturik egin behar dela azpimarratuz.

Iparraldeko turismo antolamenduak lau arlo lantzen ditu; garraioa, etxebizitza, ingurune naturala eta harrera. Horietan denetan, «tokiko biztanleen eta lurraldearen beharretan pentsatu behar da, bertako jendearendako ona dena turistendako ere erabilgarria izan daitekeelako».

Zapatillera musika elkartea sortu dute Baztango hainbat taldek Elbeten

TTIPI-TTAPA

Elbeteko garai bateko *zapatillera* lantegia errentan hartu dute Baztango hainbat musika taldek, «entseatzeko eta elkartzeko leku baten gabezia ikusten genuelako». Erakunde bat sortu dute, Zapatillera izenekoa, eta aurkezpen kontzertuak ere egin dituzte. Urriaren 29an Goroldio, Zakill eta Kazeruerk taldeek Elizondoko Gaztetxean jo zuten eta azaroaren 6an Madame Birrots eta Kaskezur taldeek lehen kontzertua eman zuten Zapatilleran.

Orain, «auzolanean dena funtzioan paratzea da asmoa, entsegu lokalak, kontzertuak emateko gune bat eta egoteko leku bat sortzeko».

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Lanbide bat baino gehiago, bizitzeko modu bat sortu dut»

LEIRE UGARTE ARRUTI
GAELA ONGIZATE ZENTROA - BERA

Duela lau urte ireki zuen Leire Ugartek Gaela ongizate zentroa Beran. Estetika, psikologia eta osteopatia ikasi zuen, eta «dena batu eta lanbide bat baino gehiago bizitzeko modu bat sortu dut». Estetika produktuak badira bertan, baina ongizatera bideratzen ditu zerbitzu gehienak; «osteopatia kraneosakrala, masaje lasaigarriak, muskularrak… erlaxatzeko gehienbat». Herritik baztertuta dago zentroa, «leku lasaian eta naturarekin lotua, etxekotasun giro lasaigarria sortzen duena. Hori da bezeroak bilatzen duena, berarentzako momentu berezi bat, barnea irekitzeko». Herri aunitzetako jendea joaten da bertara; «Bortzirietakoak, Malerrekakoak, Sarakoak, Zugarramurdikoak… Garrantzitsuena esperientzia partekatzea da, niri ongi egiten badit, zergatik ez dut zurekin partekatuko?».

«Behar guztiez arduratzen gara, txikienetik handienera»

NEREA MANTEROLA DANBOLENEA
CASER RESIDENCIAL ANAKA - IRUN

2002an ireki zen Caser Residencial Anaka zahar etxea Irunen, eta denborarekin «zerbitzuak garatu eta hobetu egin dira, espezializatu gara: errehabilitazio zerbitzua, alzheimerra eta dementzia daukatenentzat harrera berezia, traumatologia…». 155 erabiltzaile dituzte bertan bizitzen, eta bertze 60 plaza dituzte, egunez bakarrik joaten direnentzat. Egonaldi laburrak egiteko aukera ere ematen dute; «etxean bizi baina astebururen bat edo egonaldi labur bat egin behar izaten dutenentzako». Bertan terapiak, tailerrak eta hainbat jarduera egiten dituzte adinekoak estimulatuak mantentzeko. Etxez etxeko laguntzako zerbitzu berria abiatu dute, «behar guztiez, txikienetik handietaraino, arduratzeko». Mugaz gaindiko egoitza da Anaka, eta Euskal Herri osoko jendearentzat ditu zabalik ateak.

«Denda aldatzen joan naiz eta nire esentzia eman diot»

ELENA ERASO ARREGUI
MARI CRUZ LENTZERIA - DONEZTEBE

Belaunaldiz belaunaldi eta emakumez emakume aldatzen joan den negozioa da Donezteberko Mari Cruz Lentzeria. «Pepitak, nire amatxik, hurbileko lokal batean ireki zuen denda. 1990ean amak, Mari Cruzek, denda orain dagoen lekura mugitu zuen, eta eguneratu egin zuen goitik beheiti aldatuz». Orain Elena Erasok hartu du lekukoa eta bere «esentzia» eman dio dendari. Lentzeria bat baino gehiago da gaur egun, barneko arropaz gain pijamak, bainujantziak eta emakumezkoen arropa ere saltzen baitituzte. Web orria ere badaukate, «baina hor ez daude gure produktu guztiak. Dendan aurkitu dezakezunaren irudikapen bat da. Interneta bertze erakusleiho bat da, baina dendan, fisikoki, aunitzez ere hobe egiten dugu lan».

«Leitzan zapata-dendarik ez zegoela ikusi genuen»

MARIA ZABALETA ZABALETA
BI PAUSO ZAPATA-DENDA - LEITZA

Bost urte bete ditu azaroan Leitzako Bi pauso zapata-dendak. Maria Zabaletak azaldu duenez, «Leitzan zer ez zegoen eta zer behar zeuden begiratu genuen, eta zapata-dendarik ez zegoela konturatu ginen». Zapatak, botak, zapatilak, emakumeentzako, gizonentzako, haurrentzako… «janzteko mota guztietako oinetakoak ditugu». Honez gain, osagarriak dituzte salgai; poltsak, zapiak, diru-zorroak, gerrikoak, motxilak, jaioberrientzat oparitxoak, panpinak… «eta arropa ere saltzen dugu. Jendea eskatzen hasi zen eta pixkanaka gehiago sartu ditugu». Kaxkabeltzaren kide da Bi pauso; «nik zerbait ez badaukat beste denda batera bidaltzen ditut bezeroak, eta alderantziz. Giroa oso polita da».

Kanposantuan, Iturbideri lore-sorta eskaintzen. MARIFA ETA KORO

Jangoneko-bordako Migel Mari Iturbide gogoan izan dute

54 urte bete ziren azaroaren 7an hamasei urteko herriko gaztea guardia zibil batek «tiroz hil zuela»

MARIFA ETA KORO

Azaroaren 7an 54 urte bete ziren gure herrian gertakari triste bat suertatu zela.

1967ko gau hartan hiru gazte aratxeak pasatzen ari ziren mugatik, baino *kokoek* atzeman eta gazte haietako bat «tiroz hil zuten». Jangoneko-bordako Migel Mari Iturbide zen eta orduan 16 urte zituen. Aurten familia herrirat etorri da eta Migel Mariren oroimenez kanposantuan lore-sorta bat eman eta *Hegoak ebaki banizkio* kantatu zitzaion. Ondotik, museoan berari buruzko liburuaren aurkezpena egin zen, Xabier Susperregi idazleak idatzitakoa, *Crimen sin castigo* izenburu duena. Idazlearekin batera, Iturbideren iloba batek parte hartu zuen aurkezpenean eta jendetza handia bildu zen.

Liburuaren aurkezpena museoan.

UTZITAKO ARGAZKIA

1610ean inkisizioak epaitutakoak oroituz

Aurten ere oroimenean izan dituzte Espainiako inkisizioaren 1610eko prozesuan epaitutako herritarrak: gan den urtean horretarako preziski landatutako sagarrondoaren lore-sorta bat eman zen, eta Mikel Laboaren *Haize hegoa* kantatu zuten. Argazkian, Etxeberriko sagarrondoa ageri da eta ekitaldian parte hartu zutenak.

Ondoko egunetan Ttipi-Ttapatik deituko dizute harpidetzako datuak eguneratzeko

TTIPI-TTAPA

Zugarramurdin Ttipi-Ttapa hartzen baldin baduzu, jakin ezazu Arantza lankideak deituko dizula hainbat azalpen emateko. **Hasieratik Akelarrek ordaindu du Ttipi-Ttapa bidaltzeko gastuaren zati handi bat**. Hemendik aitzinera hori ez da posible eta beharrezkoa izanen da jendearen aportazio ttiki bat gastuak ordaintzeko. MECNAri esker, Ttipi-Ttapari donazio bat ematen diotenek errenta aitorpenean %80ko desgrabazioa dute. Xehetasun guztiak Arantzak emanen dizkizue telefonoz deitzerakoan.

Zugarramurditik Logroñorako bidea 1609ko neguan

Sorgin haizeak antzerki taldeak eta Logroñoko Encomienda de Santiago Lucroniun elkarteak grabaketa polita egin zuten urrian Belateko kaskoan. Azaroaren 14an museoko auditorioan ikusteko aukera izan zen.

UTZITAKO ARGAZKIA

Harremana jubilotekakoak Arizkuneneko atarian eta barnean. UTZITAKO ARGAZKIAK

Harremana jubilotekakoek ateraldia egin dute

Pandemia hasi zenetik lehenbizikoa Elizondoko kultur etxera egin dute, 'Descartados' izeneko erakusketa ikustera

ARANTXA ETA IRAIA

Aspaldiko partez, Harremana jubilotekako adinekoak ateraldian egon dira azaroan. Elizondoko Arizkunenan zegoen *Descartados* izeneko erakusteka ikustera joan ziren. El Salvadorreko herri ttikietan adineko jendeak duen egoerari buruzko argazkiak ikusteaz gainera, gai horri buruz mintzatzeko aukera izan zuten. Hango eta hemengo egoerak ikusi eta, batez ere, jubilotekakoek haien haurtzaroarekin egindako konparaketa eta hausnarketak egin ondotik, ateraldia bazkari eder batekin borobildu zuten. Aipatzekoa da Harremana jubilotekak pandemia eta gero egin duen lehen ateraldia izan dela. Honela bada, herriko adinekoak ere haien martxa hartzen hasiak dira, gogoz eskertu duten gauza!

HelpBidea proiektuarekin bat eginen du Urdazubik ere

HelpBidea Oronozko suhiltzaileek, SOS Nafarroarekin batera, aurkeztutako proiektua dugu eta gure herriak ere parte hartuko du. Proiektu honetan Urdazubiko etxe bakoitzarentzat kartel bana sortuko da identifikazio zenbaki batekin. Honela, zerbait gertatuz gero, azkarrago geolokalizatuko da non gertatu den ezbeharra. Kartelak prest badaude ere, oraindik ez dira etxeetarat bidali. Ailegatu bezain fite, informazio bilera bat eginen du udalak kartel hauen funtzionamenduaz herritarrak informatzeko.

UTZITAKO ARGAZKIA

Bengotxea ardi gasnak berriz sarituak

Duela bi aste Etxelekua gasnategia berriz ere saritu dute. Madrilgo IFEMAn ospatu zen Espainiako gasna onenen lehiaketan sari bat irabazi ondotik, orain Oviedon egin duten *World Cheese Awards* munduko txapelketan, Idiazabal argi gasnen kategorian, sari gehiago irabazi dituzte. Zorionak familia!

Bulegoko kideak, Aniozbehere eta Laborde orduko eta oraiko auzapezekin.

30. urteurreneko ospakizuna egin du Beti Gazte elkarteak

Joan den urtean egin beharrekoa aurten hazilaren 6an egin dute, orduko eta oraingo auzapezak bertan zirela

GANEX

Jean Aniozbehere Sarako auzapezaren kontseiluan Anita Suhit sozialeko axuanta zen. Orduan herriko zentro soziala CCAS deitzen zen. Orduan ere egiten zituzten erretretatuentzat herriak eskainitako bazkariak, baita ateraldiak autobusean ere. 1990eko otsailean Omordiko gelan zuten bazkaria, eta han etorri zitzaien batzuei ideia: Zertarako ez egin erretretatuen elkarte bat? Ainitzek ideia ona atzeman zuten eta andana bat elgarretatu ziren herriko etxeko gelan ondoko astean, Anita Suhiten inguruan. Horra nola antolatu zuten elkartea. Zer izen eman? Batzuek eta bertzeek solas egin eta azkenean akort eman ziren: Beti Gazte sortu zuten, Manex Bergara lehendakari zutela.

Herriak Denen Etxean prestatu zion gela bat elkarteari, sukalde ttiki bat bazen baina hutsa. Jateko piska bat egiteko behar zituzten gauzak, pentsatu zuten kideentzat karta bat egitea, bortz eurotan. Diru horrekin montatu zituzten behar ziren gauza guziak, kafe egitekoa eta hozkailua. Horiek denak egin eta asteazken arratsalde guziz, kide andana elkarretaratzen zen elkartean, batzuk kartetan aritzeko, emazte batzuk trikotazeko, horrela pasatzen zituzten arratsalde horiek kafe piskat edanez. Bulego hori 1997ra arte egon zen.

Elizagoien lehendakari 1997ko martxoan

Ondotik, Jean Elizagoienek hartu zuen lehedakaritza, 1997ko martxoan. Bistan da bulegoan ere izan ziren sandamenduak, hor sartu ziren bi erretretatu gazte: Anita Suhit idazkari ordaina eta Yvonne Aspirot diruzain ordaina. Kideen karta altxatu zuten zortzi eurotara, hauek ere segitu zuten asteazken arratsalde hori eta Larrun Kanta abesbatza galdera egin zioten Beti Gazte elkarteari, ea onesten zuten horien izenean kantaldia egiten ahal zuten. Baia izan zuten. Geroztik, kantatzen dute urtean bi aldiz eta 20 euro emaiten dute elkarteari. Diru horrekin mikrouhin labe bat erosia izan zen, bulego hori egon da 2005 arte.

2005EKO MARTXOTIK LEHENDAKARI DA ETXEBERRIGARAI

Jean Etxeberrigaraik hartu zuen lehendakaritza 2005eko martxoan. Bere kargua hartu zuenean, bulegoa berritu nahi izan zuen, kide berri batzuekin. Kideen karta atxiki zuen zortzi eurotan. Beti bezala segitzen du, elkarteko kideak urtean hiru aldiz elgarretaratzen dira.

Oraiko bulegoa

Jean Etxeberrigarai lehendakari; Maite Imaz idazkari; Colette Ayez idazkari ordain; Michel Ferraz diruzain eta Anita Bats diruzain ordain; Anne-Marie Larregle, Pakita Ordoki eta Augustine Pradere ere bulegoko kide dira.

Hazilaren 6ko elkarretaratzea

Gan den urtean bete zituen 30 urteak Beti Gazte elkarteak, baina COVID-19aren pandemiagatik ezeztatua izan zen ospakizuna. Aurten ez dute zalantzarik izan eta urtebetetze hori hazilaren 6an ospatu dute. Ez dira, usaian bezala, kide guziak etorri, baina halere 70 elgarretatu dira, Lur Berri gelan. Kideek izan dituzte girgileria batzuk opari eta *Beti Gazte 30 urte* idatzia zuen basoa. Mariane eta Tristan Sagek karia hortara bazkari on bat prestatua zien. Ttotte Michelena musikariak euskal aire ederrak eman ditu eta kideek segitu kantuz, Jean Aniozbehere eta Battite Laborde lehengo eta oraiko auzapezak gomitatuak zituzten egun hortarat eta lehendakariak eskertu zien, Lur Berri gela eder hori kitto uzten baitiete, agian ainitz urtez.

Dena umore onean bukatu da xanpaina edanez, bulegoak denak eskertu ditu. Biba zuek segi horrela.

Sara Korrika elkarteak ere urteko bilkura egin du hazilaren 13an

GANEX

Sara Korrika elkarteak egin du bere biltzar nagusia gazteen etxean hazilaren 13an, larunbat arratsean. Elkarteak datorren urterako antolatuko ditu bi lasterketa, 2022ko martxoaren 26 eta 27 Sara Trail korrika eta bertzea Sarako bestetako itzulia. Herriarekin batera parte hartzen du kontrabandisten kurtsan ere. Denetara 40 korrikalari ari dira elkartearen izenean. Korrikalari horiek egiten dituzte bertze kurtsa ainitz, auzo herrietan eta bertzela ere. Erraterako, David Nesprias eta Philippe Bordenave bikoteak egin du hazilaren 6a eta 7an Biarnoko Baretous herriko traila, eta irabazi, gainera.

Bulegoari dagokionez, Daniel Ezcurra eta Amaia Saint Martin dira lehendakaritzan, Ximun Garcia Basurco diruzaina eta Eric Etchegaray idazkaria. Bilkura bokado batekin bukatu zuten.

65 urteko herritarrei hirugarren txertoa ematen ari dira

Saran ere 65 urte goitiko jendeari hirugarren txertoa ematen hasiak dira. Hazilaren 18an 117 lagunek egin dute eta abenduaren 9an emateko bertze 117 badira izena emanak. Gadera gehiago ere badirenez, kontseilua pentsaketan ari da bertze egun bat ere hautatzeko.

Ikusten da kontseilua COVID-19aren kontra eginahalak egiten dituela, baita herritarrek ere, zeren bakoitzak berak behar du bere gain hartu. Ustez txertoarekin beharbada zikinkeria hori kasatuko dugu,

Seaskak herrian eginen du bosgarren kolegioa

Herriko Etxearekin akordioa erdietsi du Seaskak eta helburua 2023 urterako irekitzea da

TTIPI-TTAPA

Urtarrilean jakinarazi zuen Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioak bosgarren kolegio bat irekitzeko asmoa zuela, azken urteetan izandako ikasleen igoerari aitzin egiteko. Bi eremutan aritu dira lantzen proiektua: Senpere eta Azkaine inguruan, eta Hazparneko eskualdean. Azkenean, Senpereko Herriko Etxearekin lortu dute akordioa, eta bertan eraikiko dute ikastetxea. 2023rako egitea da asmoa.

Orain artean lau kolegio ditu Seaskak: Larzabaleko (Nafarroa Beherea) Manex Erdozaintzi kolegioa, Kanboko (Lapurdi) Xalbador kolegioa, Ziburuko (Lapurdi) Piarres Larzabal kolegioa eta Baionako Estitxu Robles kolegioa. Senperen eraiki asmo dute kolegioarekin eskaintza handitzea dute helburu, bertze lau kolegioak ikaslez «gainezka» daudelako.

Hain zuzen bosgarren kolegioa irekitzea zen aurtengo Herri Urratsen helburua. Koronabirusak eragindako pandemia dela eta, ezin izan zuten Herri Urrats ohiko formatuan egin, baina Boga izenpean 30 besta ttipi eta dirua biltzeko kanpaina burutu zuten.

Gaur egun Seaskak 37 ikastola kudeatzen ditu: 12 ama ikastola, 20 lehen maila ikasgelekin, lau kolegio eta lizeo bat. Orotarat 4.021 ikasle ditu bere ikastoletan eskolatuak.

San Martin egunaren karietarat hainbat ekitaldi

JL BESSONART

Azaroaren 11n, beti bezala, bildu dira gelditzen diren gerlari ohiak Saratik eta Azkainetik etorriak ere, goizeko mezatik landa. Oroitarri inguruan usaiako zeremonia iragan da. Hunek segitu du Herriko Etxeak eskainitako aperitifarekin eta 50 bazkaltiar elkartu dira Santiago ostatuan. Artisauek ere beren eguna ongi ospatu dute Inharrian. Jendalde pollita hurbildu da eta eguerdi inguruan animazioek goiti egin zuen herritar batzuen kantuekin. Arbaso elkarteko arduradunek, holako antolaketa eginik, eskerrak merezi dituzte.

Xapata elkartearen eskutik Itsasuko gereziondoak

JL BESSONART

Urte guziz bezala, Itsasuko Xapata elkarteak Itsasuko gerezi ondoak salduko ditu gurean. Hiru sagar-mota dituzte hautatzeko: Peloa, Xapata eta Beltxa, hiruak *Maxma 14* delakoan xertatuak. Heldu den abenduan eginen dituzte banaketak. Prezioa 20 eurotan (15 euro laborarientzat, kidetza hartuz). Lehenbailehen manatu behar dira landareak, eskuratzeko berme bakarra da emailez : *contact@cerise-itxassou.com*. Bertan dierazi behar dira izen-deiturak, posta norabidea, emaila eta telefonoa (ahalaz mugikor zenbakia).

Lauburuko kantariak Eztitxuren omenez elizan. JL BESSONART

Musika ikusgarri ederrak eskaini dituzte elizan eta Larreko aretoan

JEAN LOUIS BESSONART

Bi ikusgarri xoragarriez gozatzeko aukera izan dugu, azken asteetan, bata elizan, *Eztitxu Kantatuz*, bertzea Larrekon Segi Aintzina elkartearen alde. Lehen ekitaldian parte hartze murritza izan da, 200 bat lagun hurbildu dira eliz barnera. Larunbat arrats hortan errugbizale aunitz telebistaren aitzinean gelditu dira, dirudienez. Alta erakustaldi izugarria eskaini du Aldudarrak elkarteak Ikastolaren laguntzarekin, goi mailean ibili dira aktore guziak, entzun diren boza eta musikek ongi ohoratu dute Eztitxu kantari ospetsua.

Segi Aintzina elkartearen alde

Larrekon, aldiz, San Martin egunean, leporaino bete dira jarlekuak, batzuk kanpoan gelditu dira, hemen ere giro bero batean iragan da ikustaldia. Azpimarra dezagun, halere, nola sorpresa ederra erakutsi daukuten Gezi taldeko senpertar gazte horiek, herritarrak xarmatu dituzte beren boza ozen eta musika bikainarekin. Alabainan bertze kantari hobeki ezagunek ere, beren onena eman dute ikusleen atseginetan. Artista guziak etorriak ziren beren elkartasuna erakustera Segi Aintzina elkarteari, gaixotasun berezi baten aurka lan egiten dute eta lekukotasun hunkigarriak azalduak izan dira.

Natacha Triadou "biolin bertutetsua".

Ihauteriak hizpide

Aitzinera begira, **abenduaren 3an**, ortziralean 19:30ean, *Euskal ihauterietako erituak eta sinbolikoak* hitzaldia emanen du Beñat Zintzo-Garmendiak Mediatekan. Sarrera urririk izanen da. **Abenduaren 6an ireki eta otsailaren 6ra bitarte**, Zintzo-Garmendia beraren *Ihauterietako praktikak Euskal Herriko zazpi probintzietan* argazki erakusketa ikusgai izanen da Mediatekan. Autoreak kasik hogeita hamar urtez egindako bilduma baten emaitza da, ahozko datu, argazki eta lekukotasunei buruzkoa. Erakusketa honen bidez, ohiturazko praktika horien garapena eta zenbait erritu ulertzen ahalko dira.

Abenduko kontzertua

Abenduko kontzertuaren zazpigarren edizioaren barrenean Natacha Triadouren *Biolin bertutetsua* aditzeko aukera izanen da **abenduaren 5ean**, igandean 17:00etan Saint Pierre elizan.

Euskal Herriko txapelketako lau modalitatetan hamasei emakume lehiatu ziren azaroaren 13an Mungian. UTZITAKOA

Maika Ariztegi bigarren ingudearekin Euskal Herrikoan

Lokotx-biltzen Euskal Herriko txapelak segundo bakarragatik ihes egin dio Asier Gamio berroetarrari

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko txapelketako lau modalitatetan hamasei emakume lehiatu ziren azaroaren 13an Mungian (Bizkaia): txinga-eramatea, lokotx-biltzea, lasto-jasotzea eta ingude-jasotzea. Horien artean eskualdeko bi kirolari aritu ziren eta biak ere podiumera igo ziren: Maika Ariztegi iturendarra bigarren izan zen ingude-jasotze txapelketan, Karmele Gisasola bizkaitarraren ondotik eta Ainhoa Etxegarai beratarra hirugarren lokotx-biltze txapelketan, Eltsoko Ainhoa Iraizoz nafarraren eta Maider Etxezabal arabarraren gibeletik.

Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketan Karmele Gisasola bizkaitarra izan zen onena eta 95 jasoaldi eman zizkion hamar kiloko ingudeari. Maika Ariztegi iturendarra bigarren izan zen 93 jasoaldirekin. Lucia Orbe bizkaitarrak osatu zuen podiuma, 89 jasoaldirekin. Nerea Sanz bizkaitarra laugarren izan zen (82 jasoaldi), Silvia Meseguer bizkaitarra bosgarren (80 jasoaldi), Amaia Mendinueta bizkaitarra seigarren (77 jasoaldi) eta Iraide Gezuraga zazpigarren (71 jasoaldi).

Lokotx-biltzeko finalean, berriz, Eltsoko Ainhoa Iraizoz izan zen Euskal Herriko txapeldun, 7 minutu eta 34 segundo behar izan baitzituen 50 lokotxak biltzeko. Bigarren posturako lehia estua izan zuten Maider Etxezabal arabarrak eta Ainhoa Etxegarai beratarrak eta azkenean segundo bakarrarengatik gailendu zitzaion Etxezabal (7.51) Etxegarairi (7.52). Irantzu Onaindia bizkaitarra laugarren izan zen (8.28) eta Zuriñe Frutos arabarra bosgarren (8.43)

Txinga-eramate eta lasto-jasotze txapelketa ere

Euskal Herriko bi txapelketa horietaz gain, eskualdeko kirolaririk izan ez zuten bertze bi txapelketa ere jokatu zituzten Mungian. Txinga-eramate txapelketan bi bizkaitar aritu ziren. Garazi Arruti nagusitu zen, 40 plazarekin eta Nerea Egurrola bigarren izan zen (33 plaza eta laurden eta 76 zentimetro).

Lasto-jasotze txapelketan, berriz, bi arabar aritu ziren. Garbiñe Lopez de Uralde izan zen txapeldun, 29 altxaldirekin eta Ruth Linaza bigarren, 21 altxaldirekin.

Asier Gamio berroetarra txapeletik segundo bakarrera

Segundo bakarra ez da alde handia lokotx-biltze txapelketan, baina segundo bakar horregatik ez zuen Euskal Herriko txapela janzterik izan Asier Gamio berroetarrak. Izan ere, egun berean Laukizen (Bizkaia) jokatutako finalean 6 minutu eta 27 segundo behar izan zituen txapeldun suertatu zen Jon Larrañaga gipuzkoarrak eta 6 minutu eta 28 segundo Asier Gamiok.

Gibeletik, Aritz Martin bizkaitarrak osatu zuen podiuma (6.43). Patrik Saitua bizkaitarra laugarren izan zen (6.44), Aritz Iturribarria arabarra bosgarren (6.48) eta Guillermo Lopez arabarra seigarren (6.57).

Euskal Herriko lasto-jasotze txapelketa ere jokatu zuten Laukizen eta Jose Martin Bustinza *Tubi* bizkaitarra suertatu zen txapeldun, 45 kiloko fardoa zazpi metroko altuerara bi minutuan 23 altxatu ondotik. Beñat Amade bizkaitarra bigarren izan zen (21 altxaldi) eta Jon Lapazaran arabarra hirugarren (20 altxaldi).

BEHOBIA-DONOSTIA

ESKUALDEKOEN DENBORAK	
Joseba ELIZAGOIEN (Narbarte)	1.09.11
Gwendal LARGUE (Bera)	1.10.35
Hodei LUJANBIO (Goizueta)	1.12.14
Bixente IGARZABAL (Lesaka)	1.13.37
Beñat SARALEGI (Lesaka)	1.13.56
Iñaki TELLETXEA (Elizondo)	1.14.04
Txomin SIRERA (Igantzi)	1.14.11
Patxi AROZTEGI (Amaiur)	1.15.23
Julen IBARRA (Sunbilla)	1.18.49
Adur YANCI (Igantzi)	1.19.13
Angel POMBAR (Bera)	1.20.44
Juan Luis IRAZOKI (Bera)	1.20.44
Unai BENGOTXEA (Erratzu)	1.20.46
Urki MUNARRIZ (Elizondo)	1.21.07
Eneko AIZAGIRRE (Leitza)	1.21.46
Asier HERNANDORENA (Legasa)	1.23.36
Aitzol FERNANDEZ (Donamaria)	1.24.46
Garikoitz LOPEZ (Goizueta)	1.24.53
Julen BALEZTENA (Bera)	1.25.22
Fernando ETXEGARAI (Lesaka)	1.25.38
Ander OLAIZOLA (Lesaka)	1.25.38
Jokin APEZETXEA (Doneztebe)	1.26.29
Estebe APEZETXE (Erratzu)	1.27.12
Gabriel GARMENDIA (Amaiur)	1.27.25
Egoitz HERNANDORENA (Legasa)	1.28.42
Jose Luis IRURZUN (Lesaka)	1.28.43
Mikel MUTUBERRIA (Lesaka)	1.29.30
Bittor TXANTRE (Bera)	1.30.02
Maddalen JIMENEZ (Bera)	1.30.06
Iker GONZALEZ (Igantzi)	1.30.13
Youness AIT HAMDAN (Elizondo)	1.30.25
Mikel LEIZA (Lesaka)	1.30.25
Jon DE LA CRUZ (Bera)	1.30.30
Jabier IPARRAGIRRE (Arantza)	1.30.52
Ruben ZAPIRAIN (Bera)	1.30.56
Imanol ARRETXEA (Elizondo)	1.31.52
Iñaki OTXANDORENA (Oronoz)	1.31.53
Mikel TELLETXEA (Doneztebe)	1.32.15
Joxe Mari ZAMORA (Oronoz)	1.32.31
Zigor SAGARDUI (Goizueta)	1.33.10
Andoni ETXEBERRIA (Elizondo)	1.34.01
Julien BOUDIN (Sara)	1.34.08
Ganix ARRUTI (Lesaka)	1.34.18
Garai DENDARIETA (Irurita)	1.34.22
Ion OLAIZOLA (Lesaka)	1.34.53
Txomin VOUILLAT (Doneztebe)	1.35.02
Mikel ALMANDOZ (Lekaroz)	1.35.30
Mikel ESNAOLA (Bera)	1.36.18
Paula ARTIEDA (Bera)	1.36.18
Santi LIZASOAIN (Oronoz)	1.36.19
Fermin ESTANGA (Doneztebe)	1.37.10
Teresa IGOA (Bera)	1.37.29
Juanma MOLINERO (Bera)	1.37.38
Koldo RUIZ (Elizondo)	1.37.46
Pello URRUTIA (Irurita)	1.37.46
Jose Luis URRA (Elizondo)	1.37.48
Jon MORENO (Elizondo)	1.38.00
Xuban EUGI (Elizondo)	1.38.06
Martin ETXEGARAI (Lesaka)	1.38.33
Eneko AGIRRE (Bera)	1.39.01
Luis ARREGI (Elizondo)	1.39.52
Irene MATXIARENA (Bera)	1.40.19
Xanti DENDARIETA (Erratzu)	1.40.40
Iñaki ITURRIA (Bera)	1.41.27
Nahia ITURRIA (Bera)	1.41.29
Josu AGERRE (Almandoz)	1.41.49
Joxe URRUTIA (Amaiur	1.41.49
Jon APEZTEGIA (Doneztebe)	1.42.07
Jose Miguel LATASA (Sunbilla)	1.42.11
Xabier LOITEGI (Leitza)	1.42.17
Christian SANCHEZ (Sara)	1.42.22
Joseba PAGADIZABAL (Lesaka)	1.42.42
Xabier ARIZTEGI (Lesaka)	1.42.55
Ion Mikel GAZTELUMENDI (Sunbilla)	1.42.57
Javier IRIARTE (Amaiur)	1.43.12
Joxe ELGORRIAGA (Lesaka)	1.43.20
Gerar TELLETXEA (Etxalar)	1.44.28
Jaione PERURENA (Urdazubi)	1.44.42
Tomas GARMENDIA (Urdazubi)	1.44.43
Txomin PETRIKORENA (Elizondo)	1.47.08
Ainhoa UBIRIA (Lesaka)	1.49.39
Loli PARDAL (Lesaka)	1.49.46
Lorea BAZTERRIKA (Zubieta)	1.50.24
Jose Javier INDABERE (Legasa)	1.51.33
Amaia EZKURDIA (Leitza)	1.51.34
Iker ITURRIA (Lesaka)	1.51.39
Idoia BEREAU (Igantzi)	1.51.51
Ana SERRANO (Etxalar)	1.51.53
Jose Ignacio OLAZAR (Elgorriaga)	1.51.33
Carlos CAMPOS (Bera)	1.54.39
Lourdes MITXELENA (Lesaka)	1.54.56
Ixiar ANDUEZA (Bera)	1.57.33
Ana PIKABEA (Bera)	1.57.34
Xabier IRIBARREN (Lesaka)	1.57.54
Alberto MURUZABAL (Lesaka)	1.57.55
Garbiñe IGUARAN (Bera)	2.00.50
Mikel LAKASTA (Elizondo)	2.01.39
Xabier CUETO (Arano)	2.03.41
Alex ABUIN (Lesaka)	2.06.22
Ane BAZTERRIKA (Iturен)	2.11.02
Esteban MARITXALAR (Sunbilla)	2.14.02
Lidia UBIRIA (Lesaka)	2.15.22
Xabier IGOA (Lesaka)	2.15.25
Jone ELGORRIAGA (Lesaka)	2.17.02

Txapelketa mistoa ere irabazita, Nafarroako txapel guztiak lortu ditu Beti Gaztek.

Nafarroako sokatira txapelketa mistoan ere Beti Gazte nagusi

Laugarren izan zen Amaiur eta dagoeneko Euskal Herrriko launakako txapelketan ari dira lesakarrak eta baztandarrak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketako azken jardunaldia jokatu zen azaroaren 6an Elizondon, txapelketa mistoko bigarren jardunaldia eta finala, hain zuzen. Tiraldi guztiak irabazita, txapel hau ere Lesakako Beti Gaztek irabazi zuen, finalean Txantreari gailenduta. Berriozar hirugarren izan zen, Amaiur laugarren, Antsoain B bosgarren eta Antsoain A seigarren.

Zortzikote txapeldunean Joxe Angel Mitxelena, Unai Gurrutxaga, Irantzu Goienetxe, Beñat Ordoki, Ane Gurrutxaga, Iñigo Altzugarai, Ainhoa Ubiria eta Maria Yanci aritu ziren tiran, Paxkual Taberna entrenatzaile eta Maialen Lopez laguntzaile zituztela.

Beraz, Nafarroako txapel guztien (gizonezkoak zortzinaka 620 kiloko kategorian, emakumezkoak seinaka 375 kiloko kategorian eta mistoa zortzinaka 550 kiloko kategorian) irabazle izan da Beti Gazte. Amaiurrek, berriz, itxura ederra eman du bere itzuleran eta podiumeko hirugarren koskara igo da emakumezkoen txapelketan. Gizonezkoetan eta mistoan laugarren izan da.

Orain Euskal Herriko launakako txapelketa

Nafarroakoa bukatu orduko, Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketari ekin diote Amaiur eta Beti Gazteko tiralariek. Senior kategorian, gizonezkoen 310 kiloko kategorian, emakumezkoen 250 kiloko kategorian eta 280 kiloko kategoria mistoan atera dute taldea lesakarrek eta baztandarrek. Sub21 kategorian ez dute talderik atera.

Gizonezkoen txapelketa Beti Gaztek irabazi zuen azaroaren 13an Larrabetzun (Bizkaia). Azaroren 20an emakumezkoena jokatzekoa zuten Antsoainen eta azaroaren 27an txapelketa mistoa jokatuko dute Berriozarren.

Nafarroako aizkora txapelketa nagusia abenduaren 12an Beintza-Labaienen

ARANTXA ITURRALDE

Heldu den abenduaren 12an, eguerdiko 12:00etan, Beintza Labaienen jokatuko da Nafarroako aizkolarien lehen mailako Nafarroako txapelketa finala. Lekunberrin sailkatutako bost aizkolari izango dira bertan aurrez aurre: Iker Vicente (Otsagabia), Eneko Saralegi (Errazkin) , Julen Olano (Leitza), Jon Rekondo (Leitza) eta Joxean Etxeberria (Ziga).

Nafarroan txapeldun handiak izan ohi dira, Martin Gartziarena, Ramon Latasa, Migel Berakoetxea, Patxi Astibia, Miel Mindegia, Donato Larretxea, Floren Nazabal,… Orain Iker Vicenteren aroa da. Bera izanen da faborito nagusia txapela janzteko Beintza-Labaiengo finalean.

Eguraldi ona egingo balu, Labaiengo frontoian jokatuko litzateke. Euria eginez gero, Beintzako frontoi estalian. Ohi bezala, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte.

UTZITAKOA

Arribeko bi aizkolariak lehen mailara

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren finala jokatu zuten azaroaren 7an Igantziko pilotalekuan. Arribeko Txomin Amundarain izan zen txapeldun eta Ibai Soroa bigarren. Biak lehen mailan ariko dira. Indakotxea zubietarra laugarren izan zen eta Beintza-Labaiengo Telletxea bosgarren.

UTZITAKO ARGAZKIA

Juanenea binakako txapelketan

Binakako erremonte txapelketa nagusiaren 51. edizioa hasi da, bortz bikoterekin. Aritz Juanenea saldiastarra da eskualdeko ordezkari bakarra eta Aizpuru III.arekin egiten du bikote. Lau bikote onenek finalerdiak jokatuko dituzte abenduaren 24an eta abenduaren 29an izanen da finala.

AZAROAK 25 - ABENDUAK 9

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

ARTXIBOKO IRUDIA

ELIZONDO Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna

Elkarretaratzea 12:00etan plazan eta mobilizazioa 19:00etan plazatik abaituta.
Azaroaren 25ean, herriko plazan

AZAROAK 25

LEITZA
Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna
19:00etan elkarretaratzea biribilgunean.

GOIZUETA
Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna
18:30ean kalejira herriko karriketatik.

ARANO
Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna
19:00etan elkarretaratzea eta ondoren pintxo potea.

ELIZONDO
Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna
12:00etan elkarrateratzea herriko plazan. 19:00etan mobilizazioa plazatik abiatuta.

IKUSKIZUNAK

IRURITA
'Bi ero diskotekan' antzerkia
Gizarte Bilgunean, azaroaren 26an, 19:00etan.

'Barrexerka' ikuskizuna
Gizarte Bilgunean, abenduaren 5ean, 19:00etan.

'Sugarren mende' antzerkia
Izen bereko liburuan oinarritua.
Gizarte Bilgunean, abenduaren 12an, 19:00etan.

GOIZUETA
'Nekatutak' bakarrizketa
Antton Telleriaren bakarrizketa.
Udaletxeko ganbaran, azaroaren 26an, 18:30ean. Txartelak estankoan eskuragarri 5 eurotan.

LEITZA
'Birritan bortxatua' antzezlana
Herri Aretoan, azaroaren 28an, 19:00etan.

BERA
'Zinestar' antzezlana
Familia guztiarentzako antzerkia.
Kultur etxean, azaroaren 28an, 17:00etan.

PROIEKZIOAK

ARANO
'Zauriak' dokumentala
Azaroaren 27an, 18:00etan.

LEITZA
'Biografia del cadáver de una mujer' dokumentala
Herri Aretoan, azaroaren 27an, 18:30ean.

AZOKAK

LESAKA
Lesakako Feriak
Aziendak, artisauak, bertsolariak, herri kirolak eta musika.
Azaroaren 25ean.

GOIZUETA
XVII. Feria Eguna
Postuak, aziendak, toka txapelketa eta herri bazkaria.
Azaroaren 27an.

ELIZONDO
Baztango artisauak eta bertako zaporeak
Herriko plazan, abenduaren 3an eta 4an, goizez.

KONTZERTUAK

LESAKA
Santa Xixili
Lesakako musika taldeen kalejira. *Azaroaren 26an 20:30ean eta 27an 19:00etan.*

LEITZA
Ezpalak
Atekabeltzen, azaroaren 27an, 22:30ean. Sarrerak eskuragarri Torrean 7 eurotan.

ARANO
Jeiki abesbatza
Herri aretoan, abenduaren 12an, 12:00etan.

BERTZELAKOAK

ELIZONDO
'Film noir-en zirrikituak: generoa, sexualitatea eta desioa' solasaldia
Arizkunenean, azaroaren 26an, 19:00etan.

Eli Mendiaren margo erakusketa
Arizkunenean, abenduaren 3tik 24ra. Aste tartez 18:00-20:00, asteburu eta jai egunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

DONEZTEBE
Adimen desgaitasuna dutenentzako defentsa pertsonaleko ikastaroa
Kiroldegian, azaroaren 27an, 10:30etik 13:30era. Idatzi santi@anfasnavarra.org helbidera izena emateko.

Nire aukera

«Urteen poderioz lanbidea menperatzen joan naiz»

EDORTA A. MURUA ZUBIRIA ZUBIETAKO ERROTARIA

«Askatasuna, natura eta artea maite dituen pertsona xumea» da Edorta A. Murua Zubiria (Donostia, 1968). «Lagun bakan eta sendoak nahiago ditut jendetza baino, eta hiru seme dituen guraso harroa naiz».

«Kontaezinak» dira bere zaletasunak; «zurgintza, argazkigintza, musika, ogia egitea, mendian ibiltzea, baratzezaintza, liburuak, bertsolaritza, natura ezagutzea, bizikletan ibiltzea, semeekin bidaiatzea…». Gauzak eskuz egitea eta bere kasa bizitzea gustuko du, eta horretarako aukera ematen dion lantoki du Zubietako errota.

Zubietatik Zubietara

Donostiako Zubieta auzoan sortu zen Murua. «Amak Sunbillan baserri bat hartu zuen eta egonaldiak egiten nituen bertan. Handik, Donamariako borda batera joan nintzen bizitzera bikotekide eta arrebekin. Geroago, inguruan borda baten bila aritu ginen eta Zubietako Linok bertako borden berri eman zigun. Horrela aurkitu genuen bizilekua».

Orain, Zubietako herriguneko etxe batean bizi da duela 20 urte. «Herria gustuko dut naturaren erdigunean dagoelako eta nekazaritzak eta abeltzaintzak oraindik bizirik dirautelako. Urteko sasoi guztiez gozatzen dut aspertu gabe».

«ESKUEKIN LAN EGITEKO ASMOA IZAN DUT BETIDANIK»

Errotaria

Eskuekin lan egiteko asmoa izan du beti Muruak, eta zurgina izan nahi zuen. «Errotako arduradunak konponketak egiteko deitu ninduen, eta pixkanaka hasi nintzen bertan irina egiten eta gero bisita gidatuak. Konturatzerako urteak eta urteak pasa ditut lanbide honetan, ofizioaren xehetasun gehienak menperatu arte».

Irina antzina egiten zen bezala egiten du. Zubietako eta inguruko herritarrek artoa bildu eta ongi idortzen dute. Gero errotara eramaten dute «eta bertan harri handi batzuen bitartez xehetu edo ehotzen da, uraren energia erabiliz. Bildutako irina zetabetik pasatzen da, eta etxera bueltan eramaten dute».

Jendearen interesa pizten du errota zahar honek, eta hainbat bisitari erakartzen ditu. Erakusketa sala batean aspaldiko tresnak daude ikusgai, historia hobe ulertzeko. «Turistei deigarria egiten zaie errota benetan martxan dagoela jakitea, eta ez da arraroa bisitaren erdian norbait agertzea bere irina biltzera edo artoa ekartzera. Bizirik dagoen jarduera baten partaide izateko aukeratzat hartzen dute». Eskolako gaztetxoen bisita ere jasotzen du Muruak, «haientzat bertze mundu batean murgiltzea da, pantaila eta botoirik gabeko teknologia bat ezagutzea».

Errota bizirik dago herritarrek erabiltzen segitzen dutelako, eta horregatik saiatzen dira ahal bezain ongi lan egiten. «Irina taloak egiteko erabiltzen dutenez, ongi ehotu behar da, eta horretan saiatzen gara errotako langileak. Horrek pazientzia eta ezagutza eskatzen du, adibidez, harriak ongi pikatu behar dira. Uste dut urteen poderioz lanbidea menperatzen joan naizela, eta jendeak ere eskertzen duela arreta hori».

Musika beti bidelagun

Eskuekin lana egiteaz gain, musika ere maite du Muruak. Amaia Zubiria abeslaria izan du ama eta erreferente, musikaren munduan sartzera animatu zuena. «Betidanik izan dut kantuak ikasteko zaletasuna, eta gitarra jotzen nire kasa ikasi nuen 15 urte nituenean. Printzipioz, ez nuen jendaurrean jotzeko inolako asmorik, baina amak animatuta kantaldiak ematen hasi ginen han-hemenka». Euskal Herri osotik aritu dira, eta kanpora ere joan izan dira kantatzera.

«Artista handi baten alboan egoteak ematen dituen ikasketa guztiak ahaztezinak dira, beti ere argi izanda maila ezberdinetan gaudela. Berarengandik ikasi dut norberaren izaera beldurrik gabe garatzearen garrantzia, baita famatua izatearen alde onak eta txarrak ere.

Honez gain, ibilbide oparoa izan du musikan; «Gartxot kantariarekin, *Kantuz Hi* emanaldia egin genuen duela urte dezente. Ondoren Guajiroak taldea sortu nuen Txas eta Boti adiskideekin, eta EITBko Imanol Larzabalen omenezko lehiaketa irabazi genuen. Bakarka ere aritzen naiz modu xumean han-hemenka, eta nire azkeneko proiektua *Euskal Kantagintzaren Harribitxiak* emanaldia da». Youtuben ikusgai daude harribitxi honen zenbait ale.

Euskal musikan gaur egun «sorkuntza ugaria eta emankorra» dagoela adierazi du, baina kontsumoa, aldiz, «ez da hainbertze zabaldu, eta badirudi euskaraz egiten diren emanaldiak geroz eta baztertuagoak daudela, hizkuntza hegemonikoen mesedetan».

Etorkizunera begira, «ahal den neurrian, orain artekoari eustea da nire asmoa. Xabier Letek zioen moduan, *ez dut amets haundirik…*».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

ZALAIN ZOKOn eraikitzear dagoen etxea salgai. Lursail txikiarekin. ☎636 42 60 94 / 639 94 46 14.

ELIZONDO. Etxea salgai, biltegia itsatsia (230 bat m2) eta gutienez hiru ibilgailurendako tokia duen etxabearekin. 2 logelako etxebizitza erosoa, bista zoragarriak, herritik minutu batera, menditik minutu batera... Kokapen egokia. ☎680 91 19 12

ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

BERA EDO LESAKA. Donostiako bikote bat lanagatik pisu edo logela bila. Sei hilabetetarako errentan hartu nahi dute. ☎657 70 38 98.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Agerra auzoan lokal komertziala errentan emateko. 78 m², komun txiki batekin. Leiho haundiak eta hegoaldera begira. ☎636 42 60 94 / 639 94 46 14.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

SUNBILLA. 30.000m²ko gaztainadia salgai, piketeak egiteko 30 urteko gaztainondoekin. Sartzeko pista ona du. 18.000 euro. Ordaintzeko erraztasunak. ☎657 05 04 43.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Ibardinen, Beola Etxean egun osoz aritzeko janari-dendako saltzailea eta harakina behar dituzte. Bidali curriculuma *beolaetxea@gmail.com* helbidera.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean egun osoz aritzeko zerbitzaria behar dute. Bidali curriculuma *beolaetxea@gmail.com* helbidera.

ELIZONDOko La Baztanesa autobus enpresan gidaria behar dute egun osoko lanaldirako. D motako gidabaimena eta CAP izan behar du. ☎948 58 01 29 edo *autobuses@labaztanesa.com*.

BEHOBIA. Faisan ostatuan, zerbitzari bat behar dute, egun osoz aritzeko. Eta bertze bat asteburuetan lanean aritzeko. Bidali datuak *faisanostatua@gmail.com* helbidera edo deitu. ☎629 47 25 89.

BERA. Emakume bat behar dute etxeko lanak egiteko, kozinatzeko eta adineko bat zaintzeko. ☎607 56 60 22.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75 / 948 63 11 06.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BORTZIRIAK inguruan haur bati ukelele klaseak emateko pertsona baten bila ari dira. ☎658 38 18 37.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak oparitzeko. Jostalari eta ehiztari bikainak. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SUNBILLA. Arratoi zakurkumeak opari (Jose Ignacio). ☎625 70 96 80.

Zakur gazte honentzat etxe on baten bila ari dira. Arra eta hagitz zintzoa da. ☎646 10 32 50.

Katakumeak opari. ☎649 01 40 31.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Bagorditik Eskizera bidean Afflelou betaurreko progresiboak galdu dituzte. Montura beltza dute. ☎665 72 31 25 (Lore).

BERTZELAKOAK

SUNBILLA. Moztearen alde iratzea opari. Bidearen ondoan dago iratze-lekua. ☎657 05 04 43.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Iragarkiak ERRAN.EUSen ere argitaratzen dira hilabete batez. ***https://erran.eus/sailkatuak***

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,27
• 1.koa	4,15
• 2.koa	4,03

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,38
• 1.koa	4,24
• 2.koa	4,13

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

• (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

• Urruxak	125,00
• Idixkoak	150,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	120,00
• Idixkoak	140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	4,20/4,30
• Zaldi-behorrak	1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	9,10/10,00
• 8-10 kilokoak:	8,10/8,70

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo):	30 €
Zerri gizena	1,020 €
Zerramak	0,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

BERAKO UDALA

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA
–HIRIGINTZA–

Berako Udalak, 2021eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udal Planeko hirigintzako antolamendu xehakatuko determinazioak aldatzeko espedientea, Hirigintza Arauetan 43 bis artikulua sartzeko (lurraren kontra dauden beheko solairuen aprobetxamendua). Espedientea jendaurrean izanen da hilabeteko epean, iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik.
Dagokion iragarkia 2021eko azaroaren 11ko 258. N.A.O.n argitaratu da.

Bera, 2021-11-11
ALKATEORDEA, J. Esteban Aguirre Zubieta

SALGAI

Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

Egurrezko ontzitegi lakatua, egurrezko **mahai** lakatua (handitzen dena) eta egurrezko lau **aulki** lakatu tapizatuak salgai. ☎610 38 58 67

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Sofa, relax **besaulkia**, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi **mahai** (bat lakatu zuria eta bertzea bernizatua) eta alfonbra salgai. Dena egoera onean. Dena batera edo banaka erosteko aukera. ☎610 38 58 67.

MOTORRAK

SALGAI

Citroen Berlingo 1.6 hdi autoa salgai, 2015ekoa, egoera oso onean dagoena. 174.000 km. ☎626 22 91 92.

Opel Vectra autoa salgai, berlina, ia berria. 50.000 Km. Hagunak edo *llantak* berriak, bateria berria egoera onean. Matrikula: CWM 9712. Grisa, metalizatua. Gasolina. Beti garajean egondakoa. Prezioa: 1.500 euro. ☎686 97 35 02.

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENA
–HIRIGINTZA–

Berako Udaleko alkateak, urriaren 29an emandako 320/2021 Ebazpenaren bitartez, 10. poligonoko 127. partzelako –Eztegara pasealekua, 30 B– Xehetasun Azterlana, onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hogei laneguneko epean, iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik. Dagokion iragarkia 2021eko azaroaren 11ko 258. N.A.O.n argitaratu da.

Bera, 2021-11-11
ALKATEORDEA,
J. Esteban Aguirre Zubieta

URTEURRENA

Ramon
ARANBURU OLAZIREGI

Beran, 2019ko azaroaren 28an
II. urteurrena

Hegoak ebaki banizkio
neria izango zen
ez zuen alde egingo.
Baina horrela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik txoria nuen maite.

ZURE ALABA

URTEURRENA

Ramon
ARANBURU OLAZIREGI

Beran, 2019ko azaroaren 28an
II. urteurrena

Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.

EMAZTEA ETA FAMILIA

HILBERRIAK

- **Pedro Martin Irigoien Lertxundi**, Elizondokoa, urriaren 10ean, 72 urte zituela.
- **Hilaria Zubieta Irigoien**, Leitzakoa, urriaren 11n.
- **Josefa Bengoetxea Berridi**, Elizondokoa, urriaren 13an, 92 urte zituela.
- **Noel Etxeberria Eiheregarai**, Arizkungoa, urriaren 14an, 67 urte zituela.
- **Gregorio Zozaia Lasaga**, Berakoa, urriaren 17an, 75 urte.
- **Iziar Bergara Elizondo**, Arantzakoa, urriaren 19an, 71 urte zituela.
- **Ana Nemours Goienetxe**, Zugarramurdikoa, azaroaren 9an, 87 urte.

URTEURRENA

Perpetua
ARBURUA ITURRIA

Etxalarren hil zen,
2019ko abenduaren 11n,
92 urte zituela
II. urteurrena

Ama, amatxi maitea,
betiko joan zara
baina bizi garen bitartean
zutaz oroituko gara.

ZURE FAMILIA

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com
BEILATOKIAK: Elizondo, Arantza, Bera, Igantzi Doneztebe

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

IRACHE
tanatorioak
948 63 74 04
948 19 70 70
BERA
(Kanttonberri, 14)

Zuen ondoan, betidanik
- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzazko taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiekin lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorrak.

URTEBETETZEAK

Noak azaroaren 9an eta **Julen**ek azaroaren 15ean urteak bete dituzte. Aunitz urtez gure etxeko bi pottokoei familia guziaren partetik. Muxu potolo bat!

Zorionak **Naroa**, azaroaren 20an 9 urte bete dituzu! Muxu haundi bat ama eta attaren partetik.



Aresoko **Irati**k urtea beteko du azaroaren 29an. Zorionak pottoki! Muxu erraldoi bat etxeko guztien partetik.

Elgorriagako **Ekhi** eta **Beñat Garziarena Ostiz**ek azaroaren 21ean 3 urte bete dituzte. Zorionak familiako guztien partetik! Muxu handi bana!!

Berako **Nahia Endara**k azaroaren 28an 12 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.

Luis Ibarrak azaroaren 25ean 35 urte beteko ditu. Aunitz urtez etxekoen partetik.

Alaitz Ibarra Bereauk urteak bete ditu azaroaren 17an. Atta, ama eta Beñaten partetik aunitz urtez!!

Goizuetako **Enaitz Ispasoiu Apezetxea**k azaroaren 22an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat gure *kolloxko*ri aitatxo eta amatxoren partetik.

Enaitz Ispasoiu Apezetxeak azaroaren 22an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxuak Goizuetako Leku-ederreko eta Curtea de Argeseko familien partetik.

Aurtizko **Leiane Altzuri Mindegia**k azaroaren 22an 10 urte bete ditu. Aunitz urtez familia guziaren partetik eta bereziki Naikari eta Joritz anai-arreben partetik.

Aunitz urtez **Intza**! Muxu haundi-haundi bat abenduaren 5ean 9 urte beteko dituzulako. Aunitz maite zaitugu! Gozatu zure egunean!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Ttipi-Ttapan! **Internetez** *http://erran.eus/zorionagurrak* helbidean sartuta; Ttipi-Ttaparen **bulegora** etorrita, **postaz** bidalita (Koskontako bidea, 7-1·31770 LESAKA), edo **Whatsappez** 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

EZKONTZAK

- **Julen Pradines** eta **Mirentxu Darrichon**, urriaren 30ean Saran.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58ra deitu edo 744 48 43 61era edo *info@ttipi.eus*era idatzi beharko du.

Ttipi Txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

794 zenbakiko irabazleak >

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Isabel Juanikorena Perotxena | DONEZTEBE
Buatxabal - Jertse bat
Fermin Organbide Dagerre | ELIZONDO
Salting Iruñea - Bi sarrera
Maider Azkarate Tomassone | ANIZ
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Mª Luisa Goñi Mutuberria | ITUREN
BKZ Abentura - Sarrera bat
Mikel Arizteta Bengoetxea | LEITZA
Lesakako Udal Kiroldegia - Sarrera bat
Begoña Pikabea Etxebeste | BERA
Erein - Liburu bat
Jaione Irigoien Iparragirre | ZUGARRAMURDI
Erein - Liburu bat
Ana Iturbide Ibarra | IGANTZI

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com

Bi sarrera

ELIZONDO
www.giltxaurdi.eus

Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrera bat

Galaxy Park
www.galaxypark.eus

Bi sarrera

LIBURUAK

- Ipuina Bete Otso
- Baginen

- Antzara eguna
- Tximaokerren Pikondoa

txalaparta
www.txalaparta.eus

LA GUNTZAI LEAK

www.ttarttalo.eus

www.saltingcenters.com